

**GIZONEZKOEN SEXISMOA,
MASKULINOTASUNA
ETA
ASKAPENA**

p. XABIER ODRIUZOLA EZEIZA

DONOSTIA, 2007ko Ekainaren 15ean

SARRERA

Liburu hau idatzia izan da Euskal Herrian sexismoa ezabatzeko eta gizarte justuago eta berdintsuago baten alde lan egiteko azken hogeitau urteetan antolatu diren gizon taldeen bizipen zuzenetatik. Ideia batzuk landu dira azken hogeita bost urteetan Amerikako Estatu Batu batzuetan, Kanadan, Ingalaterran Irlandan, Eskozian, Australian eta gainerako lurralde batzuetan eratu diren gizon taldeetatik, non taldeok euskarri baliagarria suertatu zaizkigun gizonezkooi buruzko ezagutza eta gorputz teorikoa garatzen hasteko, gizonezkook zein emakumezkoek pairatzen dugun sexismoaz eta generoaren araberrako zapalketaz, hala nola gure maskulinitasuna eta askapenaren inguruan.

Ez da, honakoa, liburu itxia ala osoa. Aurkez genitzakeen gai ugarien artean, indar gehien egin ditugun batzuk aurkezten dizkizugu. Gure argitasuna eta pentsamendua gehiago sakondu eta garatu beharreko arlo andana bada oraindik, bai pertsonal mailan zein talde mailan.

Baina badu izan nahi liburuxka honek denok itoarratzen gaituen genero-zapalketa sistemaren egoera ez zuzenaren aurkako borrokan ale bat gehiago.

Gizon talde batetik ez bazara inoiz pasa izana litekeena da hemengo ideia ugari sinestezin ala defendaezin iruditzea. Hau ez da arazo. Nire helburua ez baita zure adostasuna ala uste osoa bilatzea baizik eta zuri beste ikuspegi posible bat eskaintzea sexismoak gure gogamenetan hautsi duen gizakion definizioaren inguruan, batik bat gizonezkoei dagokigunean.

Orrialde hauetan ezagun egiten zaizun zerbait ala zure burua islatua ikustean argitasun ñimiñoa aurkitzen baldin baduzu, asebeta sentituko naiz.

Azkenik, zuri eskerrak eman irakurketa honi zure denbora preziatuaren zati bat eskaintzea erabaki duzulako.

**“Biktimaren rolean egoteak duen alde baikor bakarra da bertatik
ateratzeko erabaki adimentsua hartzea ”**

Xabier Odriozola

AURKIBIDEA

SARRERA

2

A.-GIZARTEAREN EZKUTUKO CURRICULUM SEXISTA

10

Non bizi gara

rol sexista nagusiak

Sexu banaketa-bereizketa

Genero bereizketa

Aldea= ezberdintasuna

Leku gutxiegi pertsona izan ahal izateko rol hauetatik at

Belaunaldiz- belaunaldi -ko sexismoaren igorpena: ezkutuko curriculum

Zergatik askatu beharra: maskulinitasun zapaltzaile, hegemonikoa

Gizonezkoen baldintzapena

Zapalketaren ikustezintasunaren arriskua

B.-GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN MASKULINOA EDO ZAPALKETA: GIZATASUNAREN GABETZE JARDUERA LUZEA

18

Zer da zapalketa

Gizonezkoen zapalkuntzari buruzko nahasmena

Nola zapaltzen dira gizonak?

C. GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN MASKULINOA EDO ZAPALKETA BERE HORRETAN IRAUNARAZTEN DUTEN INDUSTRIA-ERAKETA BATZUK

24

D.GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN- ZAPALKETAREN EDUKI OROKOR BATZUK

27

D.1GIZON JAIO IZANAGATIK ZAPALTZEN ZAIGU

Gizonok nola ikusten gaituzte

Zapalketa honek eta besteek duten antzekotasuna

D.2BALDINTZAPEN-ZAPALKETA HONEK GUGAN DITUEN ERAGIN OROKOR BATZUK

Gure buruaz dugun iritzian

Gure burua zaintzen dugun moduan
Besteak tratatzeko moduan

Lana bizitzeko moduan

Etorkizunari begiratzeko orduan

Besteengana sozializatzeko garaian

E.GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN-ZAPALKETAREN MEKANISMO GIZATASUNAREN-GABETZAILEAK

E.1 GIZATASUNA GABETZEKO ERA ZEHATZAK:

E.1.1 GIZATASUN GUTXIAGOKOAK BAGINA BEZALA HANTATU -TRATATU- GAITUZTE

a.Sentitzeko besteek adina gaitasun edukiko ez bagenu bezala hantatzen gaituzte

“gizonezkook ez dugu mina emakumeen erara sentitzen ”

- b. Bakarrik uzten gaituzte
- c. Gure minek ez dirudite garrantzizkoak
- d. Gure sentimenduei arretarik ez

E.1.2 IZATEZ ERASOKOR ETA INDARKERIA ZALEAK GARELA ESATEN ZAIGU

E.1.3 SEXUALKI KONPULTSIBOAK BAIKINEN HEZTEN GAITUZTE

F.GIZONEZKOENGANDIK ESPERO DIREN OHIKO ROLAK

F.1“GIZONEN ERARA” JOKATZERA GURE BURUA BULTZATZEN DUGU

F.2 ”GIZONEZKOEN OHIKO ROLAK

Ezerk eragingo ez bagintu bezala jokatu behar dugu: “sorgorak- gogorak=helduak ”

Indarkeriarekin ohitura gaitezen espero da

Ororen erantzule senti gaitezen hezten gaituzte

Lan-makinak

Bitarteko material iturri

Itxarobide eta igurikapen irrazionalen iturri

Gizonezkoak= gizateriaren zati sakrifikagarria

Sexu konkistatzaileak izan gaitezen espero dute
Sexurako gartsuak

G.-ZAPALKUNTZA HONEN ERAGINA PENTSATU, SENTITU ETA JOKATZEKO GURE ERATAN

Barneraturiko zapalkuntza
Isolamendua eta etsipena
Sorgorkeria
Gure buruari buruz argi pentsatzeko oztopoak
Mendetasunetarako eta ez zaintzeko joera
Handikeria
Hurkoari beldurra, mesfidantza
Lehiakeria
Lidertza postueak hartzen dutenei erasoak

G. 1 SEXISMOAREN ETA BERE ROLEN ERAGINPEKO BI ESPARRU GARRANTZITSU, GIZONEZKOENGAN

AITATASUNA ETA INDARKERIA GURE HARREMANETAN

G.1.1. AITATASUNA: IKUSLEAREN ROLA

Gure axola eta maitasuna erakusteko zailtasunak
"Sobera ala traba" sindromea
Gure ardura da
Iraganari leihoa itxi. Geroari atea zabaldu

G.1.2. SEXISMOA ETA INDARKERIAREN ERAGIN BATZUK GURE HARREMANETAN

Indarkeria ofizialerako prestakuntza
Trebakuntza ala gizarteratze sexista maskulinoa
Sentikortasunik eza eta oharmen eza
Indarkeria antzemateko zailtasun maskulinoa: MAITASUNAREN KUDEAKETA
Trebakuntza ala sozializazio sexista femeninoa
oharmena lortzeko borrokan
Elkar behar dugu
ESTRATEGIA MASKULINO ZAPALTZAILE BATZUK
Itxurakeria, arrazionaltasunaren ezkutua, ustea-gaitzespena, alperrikako ihesa

G.2 NOLA IKUSTEN GAITUZTE ETA NOLA IKUSTEN DUGU GURE BURUA HONEN GUZTIAREN ONDORIOZ

Ez gaituzte beti guztiz gizatiar ikusten.

H. GIZONEZKOOK, IZATEZ, EZ GARA ZAPALTZAILE

I.-IRTENBIDE BATZUK IKUSMIRAN

I.1.ERAGINDAKO KALTEAK OSATZEKO GAITASUNA.SENTIMENDUEN KUDEAKETA

I.2 INFORMAZIO ZUZENA ETA HEZKUNTZA EGOKIA ZIURTATU.GIZON TALDEAK ETA FORMAKUNTZA

I.2.1 GIZONEZKOEI BURUZ BENETAN ZER DAKIGU

Gauzak, zuzen eta zuzenak ditugu gustuko
Gainerako jendeak arduratzen gaitu
Sentikizunen aniztasun osoa sentitzen dugu
Bizitzaz blai gaude
Pozteko asko dugu
Gutako bakoitza bakarra, errepikaezina eta ebaluaezina da
Oso ezberdinak gara eta, era berean, oso antzekoak
Aurrerantzean, nahi dugun bizimodua hauta dezakegu
Dirudiena baino eskuragarriagoa da
Antolakuntza maskulinoa+femeninoa

I.2.2 SEXISMOAZ ZER DAKIGU

I.2.3 MASKULINOTASUNAZ ZER DAKIGU

I.2.4 SEXISMOAREN EZKUTUKO ALDEA: EZARPENA ETA GARAPENA

EZKUTUKO CURRICULUM SEXISTA

J.-ZUZENDU BEHARREKO AKATS BATZUK

ZEIN ERAGILEK ESKU HARTU DUTE GIZONEZKOOK, ORO HAR, EMAKUMEZKOEN ALDARRIKAPENEKIN BAT EZ EGITEKO.

J.1 FOKATZE EZ ZUZENA SEXISMOARI ANTZEMAN – ZAPALKETA BEZALA- ETA BERONI AURRE EGITEKO ORDUAN

J.2 FOKATZE EZ ZUZENA, ONUREZ ETA GALEREZ HITZ EGITERAKOAN

J.2.1 GIZONEZKOOK EMAKUMEZKOEN ASKAPENAREKIN ZER DUGUN
GALTZEKO AZPIMARRATU IZAN DA, GEHIEN

J.2.2 EZ DA ASKO HITZ EGIN GIZONEZKOOK ZER DUGUN IRABAZTEKO

K. ASKAPEN POLITIKAK

Gizonezkoon askapenerako ekintzaile izatea lortzea

Balizko askapen politika bat litekeenaren puntu nagusiak

ASKAPEN POLITIKA BATEKIKO EKIMEN PARALELOAK

- a. Jende gaztearen sexismoa eta zapalketa batera baliogabetzea
- b. Gay zapalketa baliogabetzea
- c. Gure benetako gizatasuna eta zapalkuntza ezagut daitezen ekin eta jardun
- d. Gure balizko liderrei euskarria ematea, ez arbuioa

M. MASKULINISMOA GUREAN; HISTORIA LABURBILDUA.

94

MASKULINISMOAREN GARAPENA EUSKAL HERRIAN. LABURPENA

GIZONEZKOON SEXISMOA, MASKULINOTASUNA ETA ASKAPENA

“Gizon bakoitza mundu bat da; halere, gauza ugari oso antzera gertatu zaigu “

A.-GIZARTEAREN EZKUTUKO CURRICULUM SEXISTA

Non bizi gara. Rol nagusiak

Bizi gara sexista den gizarte batean. Gu etorri baino lehen bazen sexista. Bere erakunde, instituzio, antolakuntza eta egituretan balore sexistak errotuta zeuden eta daude. Eta egitura horietan bizi diren pertsonengan ere bai, oso aspalditik. Honelako testuinguruan sortu ginen eta haren arabera hazi eta hezi gintuzten. Gure aurrekoen gogamenean txertatu zen sexismoa eta gaur egun hor jarraitzen du oraindik, gizarte hauetan bizi garelako. Ez da ezer pertsonala, ez da zu zarelako, ez du ideia honekin zerikusirik. Zerikusia du gizarte egitura sexista horietan bizi zen eta den jendearen seme-alabak izatearekin; denok gaude sexismoaz blai; batzuk gehixeago beste batzuk gutxixeago, baina “birusa” denok daramagu.

Gizonezkoei rol batzuk gordetzen zizkien eta emakumezkoei beste batzuk, guk ezer jakin, egin edo esan baino lehen. Gizonentzako ziren rol horietako bat da emakumeak zapaltzea, besteak beste; emakumeentzako ziren rol horietako bat da zapalketa hori ametitzea, besteak beste..

Hartu gaituzten gizarte hauek gizonentzako rol ezberdin batzuk gorde dizkigu eta emakumeentzako beste batzuk, fisikoan genitalki ezberdin izate hutsagatik. Hasiera batean ez da bestelako arrazoirik izan paper horiek esleiri diezazkiguten. Ez zuk, ez nik, ez genituen paper horiek nahi, ez behar, baina.... Txertatu egin zizkiguten eta geroztik sexismoaren birusaren eroaleak gara, bai zu bai biok.

Rol sexista nagusiak

Rol "maskulinoak"

Gizon jaio bazara, ni bezala, emakumeak zapaltzeko rol nagusia esleitu zaizu. Emakume jaio bazara, zapalketa horri men egiteko rola esleitu zaizu, gainerako emakumeei bezala. Eta bion rola zapalketa hau igorraztea hurrengo belaunaldietara. Hau da ia-ia oharkabean maiz egiten dugun zerbait, bai guk mutilok zein zuek neskok. Sexu-genero zapalketa honetaz ohartzen hasten garen arte ez ditugu gure jokabideak, pentsamoldeak... kuestionatzen, zalantzan jartzen; orduan konturatzen gara rol hauek burutzeak zenbat kalte dakarren.

Gizonei esleituriko gainerako rola – zurruna izan beharra, serioa, indar zalea, ausarta, mentala, zorrotza, gogorra, sentiberatasun gutxikoa, errukigabea, oro jakilea, agintaria, eraginkorra, lehendabizikoa, hoberena, eginkorra, erabakitzailea, independentea, beti prest, erakargarria eta konkistatzailea, sexualki aktiboa, lehiatua, publikoa, babeslea, hornitzailea, ekoizlea ... - emakumeak zapaltzeko rol nagusiaren egitura euskarrizteko dira. Ondorio nagusia da ez dutela apenas lekuri uzten pertsona guztiz garatzeko rol hauen ondoan, gizakiak berez diren izaeratik urrun kokatzen baitira. Gizarte hauek kutsatu baino lehen – klasismoa, sexismoa, arrazakeria, eriljiokeria, politiko alderdikeria, heterokeria... gizakiok berez aurkeztu ohi ditugun elkertasuna, gertutasuna, zuzentasun zaletasuna, berdintasun-zaletasuna ukituta eta desitxuratuta gelditzen dira.

Rol hauek, dakusazunez, jokaera eta jarrera bat definitzen dute. Jokabide hau hartu beharra daukagu gizonok " benetako gizonak " garela frogatzeko. Hezi gaituzte pentsatzeko eta sentitzeko gure gizontasuna honen arabera zetorrela. Rolok betetzen baditugu benetako gizontzat hartzen gaituzte, bestela susmagarri izan gintezke.

Argi dago jokabide horien araberako pertsona izateak kalte ekar diezaikeela gurekin harremanean jartzen den edonori. Emakumeentzako kaltegarriak dira gizonezkooi hezi, bultzatu eta sustatzen gaituztelako emakumeen aurkako portaera ez gizatiarrak burutzerak. Nolabait irakatsi zaigu hori dela emakumeak hartzeko modua, emakumeek hori espero izango dutela gugandik (txikitandik horretan hezten zaituztete zuek emakumeok) eta honela beste mutilen artean aukeratuko gaituzuela zuen maiteak izateko. Ez da, ez, maitasuna ulertzeko erarik egokiena, baina nahas-mahas honetan hazi eta hezi gintuzten.

Eta, era berean, gu geu kaltetzen gaituzte bitzita estresatuak eta exigentzia maila handikoak – rol guztiak bete nahi izatera- eramatera behartzen gaituztelako eta benetan garenetiko urrutiko izaerak hartzera garamatzatelako. Gizakiak gara. Hau ezin ahaz

dezakegu. Zu eta biok pertsona gizatiarrak gara, nahiz eta baldintzapen eta prestakuntza prozesu luzeak bizi izan ditugun eta egun horrela ez dirudigun denbora guztian zehar. Eta gizakiak garen aldetik gure gizatasunak ez luke inor kaltetzea baimenduko, gizatasun horri ukigabe eutsiko bagenio. Rolon arazoa da, hain zuzen, gizatasuna jotzen dutela eta albo batetara bazter egitera behartzen gaituztela, gizakion arteko jokabidea izan behar lukeenarekin alderatuta desitxuroso jokarazten digutelarik.

“Rol femeninoak”

Eta emakumeei esleitu zaizkie gainerako rolak. Sobera ondo ezagutzen dituzue zuek emakumeok; esparru zabala hartzen dute gizartea eta garaiaren arabera, baina oro har: sumituak izan beharra, ahalmen gutxi -ala ezer ez- agertu edo garatu beharra, mendekoak izan, subordinatuak erraz konformagarriak, bigarren mailakoak, ahulak, beti atseginak, emankorrek, sentiberak, emozionalak, zaintzaileak, maitekorrek, fisikoki eta mentalki ahulak, ulerkorrek, egonarridunak, etxekoiak, samurrak, pribatu esparruzaleak, senadunak, apalak, laguntzeko eta besteen beharrek asetzeko beti prest zuen buruaz ahazteraino, gizonaren itzala eta bigarren eskua izatea, amak eta “ama puskak”, erakargarriak eta sensualak, ezetatik abiatuta kostatako baietzerara pasatzeko, desiragarriak, betiko gazteak eta alaiak, fidelak, ...- emakumeentzat kaltegarri suertatzen dira beraiek ez diren bezalakoak izatera behartzen dituztelako eta, bestalde, gizonentzat kaltegarriak dira ere, azken hauekiko jokabide ez zuzenak eta ez gizatiarrak hartzera bultzatzen dituztelako emakumeak.

Rolok kaltegarriak zaizkizue era jakin batera izatera etengabe behartzen zaituztelako, nahi eta nahi ez, aukeratzeko aukera eskasarekin, egoera bakoitzean zein den egokiena erabakitze oso leku gutxirekin. Balizko sariak zerikusia badu maitasuna eta onarpena jasotzeko, leku bat izateko eta oso egitura estua, itxia eta murrizta da gizaki bat bizi ahal dadin; zuek benetan zareten horretatik- jende askea, independentea, ahaltsua, adimentsua erabakitzaila...- urruti.

Guretzat ere kaltegarri suertatzen dira zuen rolok zeren eta guk garatu behar genituzkeen ezaugarri gizatiar batzuk zuen esku gelditzen dira. Zuen gain gelditzen dira, beraz gizatasunaren ezaugarri asko eta hauei dagozkien jokabideak, zeinak ez diren inoiz ezagutuak eta aitortuak izaten, ez publikoki ez ofizialki, eta zeinetan gizonok ez dugun parte hartzen: zaintza, arreta, samurtasuna, axola eta afektibitatea ondoko gizakiekiko.

Rol “maskulinoen” eta “femeninoen” batuketa

Bai guri, gizonezkooi, bai zuei, emakumezkooi, txikitandik ezarri zaizkigun rol hauen emaitza da ezin garela elkarrekin topatu berdintasun eskenatoki batean; maitasuna, begirunea eta onarpena lehenengo kolpean ager daitezkeen eskenatokirik ez dugu. Rolok haurrak jo aurretik aukeraren bat bada beraien artean elkar gizalegez hartzeko, baina berehala datoz rolak. Rolon uztarriean ezinezkoa zaigu gizakiak gizaki ehuneko ehunean izatea eta ez digute uzten zein pertsona osoak jatorrak eta duinak garen erakusten, esperimintatzen.

Beraz zuentzako eta guretzako kaltegarriak dira; mugatzen gaituzte, estutzen gaituzte eta murrizten. Honela ez dago harreman zuzenik, parekiderik, osasuntsurik garatzerik. Galdera behin baino gehiagotan egin ahal bagenio eta pertsonak bere zintzotasun sakonetik erantzun ahal balu ez dut uste inork sexista izan nahi duela esango lukeenik, nahiz eta batzuetan aurkitzen ditugun rol hauetan hainbeste estutu diren pertsonak, ezen beraiek jada

ez baitakite beste era batez izaten.

Sexu bereizketa: rol sexistak

Era erraz batez laburtzearren, esan dezagun gizarteak eta bere entitateek, oro bat hartuta, ezarri zuten aspaldi-aspaldian - gizonezkook eta emakumezkoek sexu biologiko ezberdin bat dugunez- sexu bakoitzak ezaugarri bereziak - eta ezaugarri horiei dagozkien portaerak- izango zituela, gizonezkoen sexua eta honi dagozkion ezaugarriak goretsiz eta emakumeen sexua eta hari dagozkion ezaugarriak gaitzetsiz. Hala, sexu maskulinoa sexu "zuzena " eta eredugarria izango zen eta sexu femeninoa gainditu eta mendean hartuko zuen, azken hau sexu "okerra ", "ahula "zelakoan. Zientziak zein erlijioak bere biziko garrantzia izan zuten banaketa-bereizketa hau indartzerakoan.

Ezaugarri horiek ez dira, inolaz ere, sexu bakoitzari berez, izatez, dagozkionak, baizik eta sozialki eta kulturalki eraiki eta garatutakoak. Hala, gizonezkoek sexuari esleitu ezaugarri horiek barneratu beharko genituen eta emakumezkoek beste batzuk bereganatuko zenituzten, halaberharrez, aurkakoak edota osagarriak.

Sexu bakoitzari esleitu zitzaion ezaugarri multzo hauek elkarren osagarriak dira, alegia, gizonezkook ez genituen garatu behar emakumezkoek esleitutako ezaugarriak (sentiberak, maitagarriak, gertuak, bigunak, ulerkorak, errukigarriak, goxoak, zaintzaileak, zalantza zaleak, eremu pribatu zaleak, erakargarriak, apainak...) eta, alderantziz, emakumezkoek ez zenituzten garatu behar gizonezkooi egokituriko ezaugarriak (ausartak, indartsuak, gogorrak, sentigaitzak, erabaki zaleak, boteretsuak, beldur gabeak ala, behinik behin hauen itxurak ematekoak, planta segurudunak, langile amorratuak eremu publikoan, lehiakorak, oldarkorak, sexualki eraginkorak eta beti prestuak edozertarako...)

Araudi sozial hau gainditzeagatiko saria oso altua da. Ikusiko dugunez bazterketa sozialarekin, talde erasoarekin eta banakoarekiko erasoekin, kritika suntsikorrekin, esamesekin, zigor fisikoekin, psikikoekin, ekonomikoekin, erlijiosoekin... zerikusia izan dute. Pertsonak nekez eta pekez jasan lezaketan emaitzen zerrenda luze bat da.

Genero bereizketa

Sexuak bi bakarrik direla – emakumezkoa ala gizonezkoa- eta bi hauek onargarriak diren bakarrak direla ("ofizialak") jakinarazten zaigu, gai honekiko zalantzak eta bestelako teoriak agertu diren arren (J.A.Nieto"transsexualidad, transgenerismo y cultura. Talara. Madrid.1998). Generoarekin antzeko bidea ibili da. Kultura hainbatetan genero bi baino gehiago egon arren (Nanada, 2000; Murray y Roscoe,2001, Aurelia Martín Casares-en "Antropología del género: Culturas, Mitos y Estereotipos sexuales", 2006) gure gizarteetan bi genero bakarrik onartu izan dira gaurdaino, maskulinoa eta femeninoa. Eta hau izan da aitzakia paregabea genero biak bereizteko eta zatitzeko, beren "berezko ezberdinatsunen" naturalizazioarekin (Verena Stolcke. "Es el sexo para el género como la raza opera la etnicidad?"Librería de mujeres. Zaragoza.)

Ezberdinatsuan naturalizatzea da kultura ezberdinetan bizi garenon artean garatzen

ditugun aldeak eta ezaugarri ezberdinak ikaragarriak direla, gaindiezinak eta berezkoak, aldarrikatu eta ziurtatzea, baita gure rolek ezartzen dizkiguten aldeak ere. Nolabait, jaiotzez ezberdinak garela uste osoa izatea da eta rol ezberdinak jokabide hauetatik eratorriko balira bezala sinistaraztea. Horrek galarazi egiten du pertsonen arteko antzekotasunez ohartzea; honetan arreta jarriko bagenu konturatuko ginateke zeinen antzeko garen gizakiok kulturaren betaurrekorik gabe elkar begiratzen dugunean.

Sexu biologikoei ezarritako ezberdinatsunak indartzea, orokortzea eta desdimentsionatzea erraztu eta nabarmenduko zuen generoren sorrera eta genero bereizketa: genero maskulinoa eta femeninoa eraiki ziren ez bakarrik sexu biologikoan oinarritutako ezberdintasunetan, baizik eta genero hitz horren esanahi handia eta zamatsuaren baitan egosten diren ohituretan, iritzietan, joeretan, aurre-juzkuetan, sineskerietan, estiloetan, pentsaeretan, erreakzioetan eta abarretan, sexu biologiko bakoitzari esleituta.

Nolabait, kultura batean, genero horri dagozkion pertsona denek nola jokatu behar zuten jokabide eta jarrera zerrenda zehatz eta luzea ezartzen zuen generoak. Ez da bakarrik zure sexua zein den arabera jarrera batzuk hartzera eta beste batzuk alboratzera eraman zitzaizula, baizik eta, gizarte mailan eta kultura mailan, alde zure espero zela zu zeu zagozkion genero horretako ezaugarri, esanahi, jokabide, joera, jarrera, janzkera, ibilera, pentsaera eta etiketa guztiak zure gain hartu, bereganatu eta aldeztuko zenituela. Eta hau igorriko zeniola datorren belaunaldiri, heziketa egokiaren izenean. Hau da gehienok jaso, sinistu eta egin dugun zerbait, bizitzaren uneraren batean, era batera ala bestera, maila ezberdinetan, ezaugarri partikularrekin.

aldea = ezberdintasuna

Bi sexuen artean dagoen aldea oso txikia da alderatzen badugu bi sexuek komunean dituzten ezaugarriekin. Azken hauek %95-%98 izatera iris daitezke (zentzumena, adimena, giza gaitasunak, giza baloreak...) aldeak %2-%5 izatera iristen ez diren bitartean (biologiari dagozkionak, hain zuzen).

Bi gauza ezberdinen artean dagoen aldea izan daiteke elementu interesgarri, aberasgarri eta erakargarria, baita osagarria ere hainbat egoeratan; bizi garen sistema kapitalistaren gizarte hauetan aldea elementu arriskutsu, mesfidatzeko, susmagarri eta alboragarri bihurtzen dute txiki-txikitatik, ezberdintasunarekiko edo ezezagunarekiko beldur eta bazterketaren heziketaren bitartez. Gizarteek eta bere belaunaldiek aldean arrastaka igortzen daramatzaten beldur zaharrak dira hauek, garai batean biziraupenerako komenigarriak, baina, egun, funtsik eta funtziorik gabeak.

Gizarteak diferentzia horretan izugarrizko indarra jartzen du, neurri gabe azpimarratzen digu aldea ikus dezagun eta ez dezagun komunean dugun guztia aintzat har. Zenbat eta gehiago zatikatu eta sailkatu errazago suertatzen zaio sistema kapitalistari taldeak elkarren aurka jarri, elkar zanpatzera behartu eta, ondorioz, etekinak ateratzea: beste etxeok, taldeok, herrialdeok, kontinentekok erasan ez zaitzaten erosiez asmakizun hau, produktu babesle hau, alarma berri hau, lapurren aurkako zera akats-gabe hau, misilen aurkako beste zera hauek... ala antola ezazu zure indarra defentsa teknika ala ikastaro hauek harturik, hau janik, hori erabilirik, beste hura erosirik...

Leku gutxiegi rol hauetatik at

Gizarte horretara jaio ginen eta bertara egokitu behar izan genuen, nahi eta nahi ez, rol horiek barneratzera behartuta izan ginelarik, lurrera kuku egin orduko. Inork ez zigun galdetu rol hauek nahi genituen ala ez, beraiekin ados geunden ala ez. Heziketa zurrun eta gogor baten bitartez ezarri egin zizkiguten eta prestatu gintuzten rolok ongi sinesteko eta defendatzeko. Rol hauetatik at gelditzen zen edonork bazterketa, gizartearen zanpaketa orokorra jasotzen zituen. Bakarrik onartzen ziren bi generoak, eta genero bakoitzak argi eta garbi uzten zuen sexu identifikazio bakarra eta jarrera identifikazio bakarra. Ez zen aukera gehiagorik. Edo moldatzen zinen egokitu generora eta bere ezaugarri guztietara edo begiz joa izango zinen, honek dakarren sufrimendu eta tratu txar guztiekin. Agian gogoan izango duzu oraindik haietakoren bat...:

a)-Maritxu hori! Hi ez haiz ez gizona, ez ezer! Neskekin egon behar huen! Jo eta korrika alde egin ezak hemendik, oilo hori! Homosexual halakoa! Soldaduskan bilakatuko haute gizon, mari neska halakoa! Orduan etorri gugana!

b)-Mari mutil hori! Astakilo hutsa zara! Ez duzu balio neskokin egoteko: ez zara batere femeninoa, zakar hori! Hobe duzu mutil astakirten horiengana joatea! Utz gaitzazu baketan! "Modalak" ikasten dituzunean deitu guri!

eta halakoak jasotzen zituzten beren rolak onartu nahi ez zituztenek eta rol hauetan estu-estu ahokatu baino beren duintasunari eustea erabakitzen zutenek, askotan gertuen dituzten edota gehien maite zituzten pertsonengandik: gurasoak, aitona-amonak, anaia-arrebak, ikaskide eta lagunak, sendikoak...Ez dute bi genero hauen kontua onartu nahi eta beraientzako mugok kentzea bilatzen dute ("Third sex, third gender: beyond sexual dimorphism in culture and history". Margaret Bullen. Gilbert Herat (ed) Zone Books, New York. 1996).

Beraz erabaki zaila zen – eta egun oraindik bada- benetan. Zapalketa onartu zure gertuko maitasuna jasotzeko ala zure duintasunari eutsi eta, horregatik, bazterketa jasotzea. Denok jakina da, ordea, maitasunik gabe neke handiz haz litekeela pertsona, beraz gehienok beste aukera hura hautatu behar izan genuen: zanpaketari men egitea.

Heziketa latza, luzea eta sistematikoa izan zenez gaur egun zaila baitzaigu barneratu genituen rol hauek gure pentsamendutik bereiztea eta ohartzea abian jartzen ditugula, jokatzeko ari garela, aldean daramatzagula ia egun osoan zehar. Gainera, guri rol hauek ezarri zizkiguten pertsonak (gurasoak, gertuko sendikoak- aitona-amonak, izeba-osabak...- irakasleak, lagunak, ikaskideak...) eta erakundeak (erakunde hauetako langileak; telebistako programa sexistak, jolas, joko eta jostailu sexistak -mutikoari baloia, boxeo eskularruak, pistolak, kirolerako jantziak, heroien komikiak eta tebeoak..neskari panpinak, sukaldetxoak, eleberri erromantikoak, erizain jantziak, printzesen tebeoak... literatura sexista, marrazki bizidunak, filmak, iragarkiak...) eta erakunde horietako gizakiek ere jasan zuten heziketa sexista hau, guk baino lehenago, eta hauen arbasoek ere bai...

Sexismoaren belaunaldiz-belaunaldikoigorpna: ezkutuko curriculum

Horren barneratuta dago gizartean, hain modu tematian ezarri digute gure-gurea izan arte eta gogotik biziarazi izan digute horrela ezen ez baikara ohartzen sexismoaz blai eginda gaudela ia den-denok., batzuk bestetzuk baino gutxiago edo gehiago, modu eta maila ezberdinetan, baina orokorki, salbuespen gutxi delarik.

Honela, ia-ia oharkabeen bagoaz igortzen belaunaldiz belaunaldi "curriculum" sexista hau. Ez dugu berau nahi, ez gaude ados berarekin, baina hor dirau gure gogamenean sartuta, era abstraktu ala ia ikusezin batean, denongan sexismoaren birusa inkubatzen, ukitzen duen guztia gaiztotzen ala infektatzen, etengabe.

Eta rol hauetatik atera nahi duenarentzat ez da egon saririk, ez ezagutzarik, ez aitortzarik; bazterketa, errepresioa eta zigorra baino ez. Emakume feminista ausarta batzuk gogora ekarri besterik ez dugu, beraien bizitza jokatu zuten emakumeak, zeintzuk beraiei esker oharmena hartzen joan garen. Ez zuten erraza izan eta ez dugu oso erraza guk geuk. Baina garrantzitsua da hemen gaudela itxaropentsu, aldaketaren aurrean sistemak hedatzen duen etsipenaren aurka.

Zerk adoretzen gaitu? Rol hauen barruan nekez izan daitekeela bat gizaki argi ikusteak; rol hauetatik kanpo zampaketarako erdigune bihurtzeko arriskua egon arren hor gure lana ere badagoela argi ulertzeak: rol hauetatik at eremu berri bat bermatzea non arnasa lasai hartu, gizon-emakumeek ekarri begietara begiratu eta begirunez elkar hartu ahal izango dugun.

Zergatik askatu beharra

Rol sexista hauek guztiek zehazten digute zein den bereganatu behar dugun maskulinitasun eredua, beste eredu ezberdin ala berri batzuen faltan, ala eredu berri hauek pairatzen duten bazterketagatik: zapaltzailea, hegemonikoa eta patriarkatuaren fruitua den maskulinitasun oker eta kaltegarria. Hau ez da guretzat nahi dugun bizimodua, ez da emakumeentzako nahi dugun bizimodua, ez dute merezi gure rolen emaitzarik eta ez ditugu merezi haiekiko harreman zail eta atezutsu hauek, non, nahi gabeen, elkar mintzen dugun, elkar zango-trabatzen dugun, elkar beldurtu, gutxietsi, salatu eta mintzen dugun, elkarren mesfidati garen arte.

Guk geuk ere ez ditugu merezi rol hauek geuri dakarkiguten "prezio " garestia, ordaina (larrua utzi behar genuke rol horiek denak bete nahi izatera, aurrerago ikusiko dugunez), ez eta emakumeek gureganako jokatu behar dituzten rolen emaitzarik ere. Honegatik uste dugu gizonezkook emakumeak zapaltzera behartzen gaituzten rol hauetatik askatu beharra daukagula, eta emakumeei euskarria eman behar diegula beraiek ere rol horietatik aska daitezen.

Honexegatik antolatzen gara gizonok gizonezkoen taldeetan, rol hauek antzeman, aztertu eta deuseztatzeko. Berauek betetzen ditugun aldiro gure burua mugatzen eta zanpatzen gabiltzalako, gure gizatasunari uko egin behar izaten diogulako. Gure

gizatasunak ez baitu onartzen beste gizaki bat mintzea ala begirune osoz ez tratatzea.

Genero-sexu sistema honetatik askatu beharra daukagu zanpaketa sortzen duelako, iherarkia, zapalketa, injustizia eta bertan emakumeek zuzenki pairatzen dituzte gure rolon eraginak: mendetasuna, kontrola, genero arteko indarkeria, eskubideen urraketa; justizia eza lanean, politikan, ekonomian, harremanetan. Burutu behar ditugun rolon eraginaren zurigune zuzena dira eta baita rolok burutzeak ematen digun beldurrak sortzen duen egoera anabasatsuaren jasotzaileak ere. Emakume andana hiltzen da genero egitura honen hatzaparretan, baita gizonezko franko ere; eta sortzen diren giza gastuak -zein diru gastuak- jasanezinak dira eta .

Bestalde, genero sistema oker honek indarkeria itzela sortarazten du: gizonen artekoa - genero beraren artekoa- gizonen eta gazteen artekoa (adultismoa) eta gizonezkoen beren buruarena urkakoa (autoindarkeria) rol horien menpean handia baita jasan beharra dugun presioa (ia-ia ezinezkoa da rol horiek denak betetzea). Gehiegizkoa zaigu “benetako gizona” izatearren garatu behar ditugun gogorkeria, deshumanizazioa eta tratatu txarra

“Baldintzapen maskulinoa”

Rol hauek bete ahal izateko, aldeztatik aurretik prestatu behar izan gintuzten geure gizatasuna galtzeko prozesu psiko-sozial-kultural luze eta berezi baten bidez gure gizatasunekiko lotura eragotzi arte; soilik orduan prest egongo ginen gainontzeko gizakien gizatasuna kontuan ez hartzeko, kaltetzeko, zapaltzeko. Gure gizatasuna galtzeko prozesua, hots, baldintzapen maskulinoa, jardunbide latza eta luzea izan zen eta oraindik izan ohi da hainbat gizarte taldeetan jaiotzen den mutikoarentzat, nahiz eta gauzak aldatzen ari diren, poliki-poliki. Aurrerago sakonduko dugu gai honetan, bertan matxismo maskulinoaren funtsa datza eta.

Zapalketaren ikusezintasunaren arriskua

Bestalde, azken garaion joerak erakusten du poliki-poliki, sistema kapitalistak iraun ahal izateko adabaki eta trikimailu gehiagoren beharra duen eran, emakumezkoengana zuzentzen duela lehen soilik gizonentzako gordea zuen zanpaketa ustiatzailea. Honi “askapena” izena jartzen dio: gizonezkoek zapaltzaile roletatik eratorritik dituzten pribilegio eta askatasun berberak lortzeko ahaleginari. Aurrerago ikusiko dugu gizonezkoen pribilegio eta askatasun hauek “ispilatzea” besterik ez direla.

Honek ez ditu gauzak errazago jartzen; aitzitik, zapalketa orokortzean eta globalizazioa sortzen doan aldaketa eta egitura sozial berrietan saltzen zaigun ideia da zoriontsua, independentea, arrakastatsua eta askea izatea lortzen dela botere “eredu berria” imitatuz, eredu berri hori eredu hegemoniko maskulino makilatua delarik. Honi erantsi behar diogu uste oker bat: pentsatzen da garai bateko ohitura sexistak batzuk egun ez errepikatzearekin: haurrak sexuaren arabera eskoletan bereiztu, genero baten hainbat portaera eta balore bi generoetan batzea, edota azalekoagoak diren xehetasunetan (arropa koloreak, estiloak, markak, tipoak) bateratu ala deuseztatea, (apaingarri batzuk bateratzea: belarritakoak, eraztunak, tatuaiak, pertzinak, tangak...) eta abar, ala berdintasun legeak araudi ofizialetan jasoak direnez prentsatzarekin nahikoa dela, gizarte sexistak haurtako banakoengan baneraturiko kontzeptu sexistak ezabatuak direla, benetako kontzientziazio lan bat egiteke.

Honek guztiak sexismoaren aurrean ernai jarraitzeko bidetik lekoratzen, desbideratzen

gaitu, modu, ñabardura eta adierazpen ezberdinak aurkezten ari den egungo sexismo horren aurrean.

B.- GIZONEZKOEKIKO BALDINTZAPEN MASKULINOA EDO ZAPALKETA: GIZATASUNA GABETZEKO JARDUERA LUZEA

Zer da zapalketa

Giza talde batek beste giza talde batengandik etekinak ustiatzeko asmoz talde hori zapaltzen duen agia, fenomenoa dugu. Zapaltzea, gizarte batean, erakunde eta instituzioen bitartez, kultur ekintzen bitartez, sistema politikoa eta honek aldeztu dituen sistema zientifikoaren, erlijiosoaren zein ekonomikoaren bitartez eta sistema horietan bizi diren norbanako zein gizataldeen jokaeren bitartez, giza talde bat sistematikoki menderatuta edukitzea da, zapalduko taldearen etekin ekonomikoak lortzeko.

Zapalkuntzak gizartekide guztiei eragiten die, batzuegan zapaldu behar dituen pertsonen buruzko aurreiritzi, jarrera, sinesmen, ohitura eta jokamolde oker eta kaltegarriak sortaraziz – hots, jokabide zapaltzailea- eta bestetuz jarrera, aurreiritzi, sinesmen, ohitura eta jokamolde horien jomuga bihurtuz - hots, zapalduak-

Zapalkuntza jarrera hauek sendotzen dira gudan, aurrenik, gure haurtzaroan zehar, kultur eraikuntza konplexu - “ezkutuko curriculum” - baten bidez, gertaera hau biktimak gertukoenganako dituen behar fisiko eta emozionalak saihestu ezin dezakeen aroan -umetan- hain zuzen, eta, geroago, zapaldua bera zampaketaaren agente, egile, eroale, burutzagile... bilakarazten duelarik.

Gizonezkoen zapalkuntzari buruzko nahastea

Aldea dago, ordea, gizonezkoen baldintzapen edo zapalketaaren eta gainerako taldeen zapalketa moten artean. Zapalketa mota guztietan argi ikusten da talde zehatz bat dela beste talde bati zapalketa ezartzen diona: horrela, arrazakerian, zuriek beltzak zapaltzen dituzte; antisemitismoan, ez juduek (*jentilek*) juduak; aberatsek behartsuak, gizonezkoek emakumezkoak... Gure kasuan ez da talde zehatz bat, ez da argi ikusten talde bakar batek zapaltzen gaituela. Ez da berehala ulertzen gizonok emakumeak zapal ditzagun aldeztu aurretik baldintzatu eta prestatu zaigula zampaketaaren bitartez. Ez dirudi gure baldintzapen-zapaketaaren horren atzean talde zehatz, jakin bat badela. Honegatik jendeak ez du erraz ikusten gizonezkoen baldintzapen-zapaketa hau oso-oso orokortuta eta hedatua dagoelako kultura asko eta askotan.

Bestetik, gizonezkoek baldintzapen hori jasaten dutela aitortzeak zapalduko taldeen arteko beldurtxoak eta usteak, alderatzeak, sor ditzake eta biktimismo ala protagonismoaren inguruko kezka ala lehia ager daiteke, zein den zapalduena ala zapaltzaileena, etc. Gure helburuetatik –zapalketa oro ezabatzea- desbidera gaitzaketenak.

Gizarteak berak, osotasunean, eta bere genero-sexu sistemak zapaltzen gaitu eta bertan bizi diren gizakiek, baita gizonezkook, guk geure burua ere. Pertsona hauek guztiak baitira sistema sexistaren helmuga eta nahi gabe garatzen ditugu sexistak eta zapaltzaileak diren ideiak, jokaerak... besteekiko eta elkarrekiko. Gizonok jakin, badakigu, nola zapaltzen ditugun emakumeak. Beraiek era ezberdinetan kontatu digute; azkenean zerbait ulertzen hasi gara ("gure harremanetan sexismoa eta indarkeria" atalean aurki zenezake zerbait). Eta garrantzitsua da geuren zapalketaz zerbait ulertzen hasi garela ere bai.

Nola zapaltzen zaigu gizonezkoei, baldintzapen "maskulino " prozesu luze horretan zehar? Mendez mendez bizirik iraun eta guregana heldu zaizkigun – eta garatzen eta aldatzen doazen- **elementu kulturalak** aurkituko ditugu gure gizarteetan txertatuta, gugana mendez mendez, belaunaldiz –belaunaldi iritsi direnak, ia-ia oharkabeen:

Ohiturengatik

mutikoari behar baino lehenago kontsideratu nahi zitzaion gizon gogorra, "heldua ", bizitza gogorrerako prest eta gai

- hire ama defenda ezak ni ez nagoen artean, etxea eta hire arrebak zain itzak... Seme! edan ezak hire aitarekin batera, erre ezak gizonok bezala... ehiza ezak animalia hori beldurrik gabe; jo ezak lehenago, joa izan baino lehen, hiretarrak bizitzaz defenda itzak! Jar hadi haien aurrean eta arriskuari planto egin iezaioke... Pelikuletan, liburuetan, literaturan, hedabideetan... oro har, ikusi ahal izan ditugu eredu hauek.
- Kultura askotan aurkitu izan da " egin itzak gizonezkoen gauzak! Leloari erantzun ziezaiokeen gizarte egitura kultural garrantzitsua; "Gizonezkoen etxeak " deituak izan dira (Maurice Godelier, 1986). Egun hainbat kulturaan bizirik aurki ditzakegu; gure kulturetan beste itxura bat hartu izan dute. Herriko mutiko gazteak elkartzeko eginak ziren etxolak, txabolen moduko eraikinak dira. Bertan mutikoei bakarrik irakasten zitzaion "benetako gizona " izateko arte gogorra, gizon helduen eskutik. Suzko probei aurre egin behar izaten zieten mutikook beren gizontasuna frogatzeko. Gainerako herrikideengandik aparte proba fisiko latzak ezartzen zitzaizkien eta emozionalki une oso zailak igaroarazten, bakardadean, zigor fisikoak, bortxakeriak eta abarreko gogorkeriei aurre egin eta gainditzen bazituzten benetako gizontzat hartuak izango diren itxaropenarekin. "Borroka egin ezak eta gailenduko haiz " izango litzateke mezu sakona, hizkuntza arruntean "*bi potroekin* " esango genukeena.

Egun, gure gizarteetan ohitura sakon hauen isla dezente aurki dezakegu eta beraietan gure mutikoek aurki ditzakete enklabe garrantzitsuak maskulinitasun tradizional honen balore askorekin bat egiteko, beren burua neurtzeko, berresteko eta identifikatzeko (Deporte y construcción de las relaciones de género. Carmen Díez Mintegui. Gazeta de antropología.nº 12. EHU/UPV.1996): Kirol instalazioetako aldagelak, eremuak, hauen inguran hedatzen diren tabernak eta klubak, (futbol, rugby zelaiak, ikastetxeetako jolas-lekuak, pilotalekuak, boxeoko ring-ak, borrokarako arteetako gunek, arku edo tiro eremuak, zezen plazak), instituzio militar batzuk (kanpamendu eta koartelak dira maskulinitasun patriarkal zaharren kabiak) edo polizia eta beren entrenamendu eremuak; oraindik "maskulinitate" hartzen diren lan batzuen eremuak (mehatzuloak, suhiltzaileen etxeak, eskulanerako lantoki batzuetako aldagelak, etab).

ikasitakoengatik eta utzitako kultur herentziagatik,

esaterako (egun, zorionez, "lehuntzen" doan auzia) gurasoek mutikoari etxeko lanak egiten utzi ez eta enkarguetara bidali eta neskatoari etxeko lanak eragin, argi utzita eremu publikoa mutilarentzat izango dela eta eremu pribatua neskarentzat. Soldatapeko lana gizonari egokitu zaio, ekoiztea, eta emakumeak lan ordu pila egin du soldatarik gabe, eremu pribatuan, ugalketarekin lotuak askotan. Soldatapeko lanaren banaketak ezartzen zuen ideia: gizonezkoek soldata "etxera" ekarri behar dutela eta emakumeak etxean kudeatu diru hori, baina jakinda etxean dagitena ez dela "benetako lana".

Gizonek hiltzen eta desagertzen lehenengoak izan behar dutela ikasten genuen, emakumezkoak, neskak eta umeak baino sakrifikagarriagoak zirela: Itsasontzia edo abarreko gailuak hondoratzean ala haustean "Las mujeres y los niños primero!" oihukatzen eta onartzen zen gizalegezkoa bailitzan; hau da, itsasontzian kapitaina azken uneraino geratzea jokaera gizakoi, heldu, zuzen, ausart edo edukazio onekoa balitz bezala hartu izan dugu eta hunkitu egin gaitzake.

Egun, oraindik erakunde ofizial hainbatetan ikus dezakezun fenomenoak, kolore eta jantzi ezberdinez jantzi hasiera-hasieratik eta honen arabera ere emozionalki ezberdin tratatzea: larrosa, belarritakoak eta gonatxoak neskatoarentzat, igurikapen eta ezaugarri zehatz batzuekin – goxotasuna, lehuntasuna, samurtasuna, mendetasunerantz...- tratatzeko prest, urdina, praktatxoak eta belarritakorik gabe mutikoarentzako. Honentzako tratatu ezberdina, indarrerantz, gogorkeriarantz, balentrietarantz, autonomiarantz...zuzenduagoa, beraz sentikizun gutxikoa.

ohiko heziketagatik:

Sexu ezberdintasunaren arabera, mutilak eta neskak aparte kokatu eta ikasketa ezberdinak sustatu - eskulanak, lantegiak, kirola, eremu publikoko gaiak...- neskatoek jostea, dantza, aerobika, administraritzarako lanpostuak, amatasunerako ikuspegi eta prestakuntza, zaintza eta barruko eremutarako heziketa, heziketa formalari dagokionez. Badira hezteko beste era batzuk. Esaterako, aita egunero etxean egoten ez den sendiengan mutikoek hartzen duten eredu maskulinoa da etxean ama bezain besteetan egoten ez den pertsona horrena; seme-alaba txikiak aiton-amonen esku uztean bi belaunaldi atzera denboran jo eta seguraski beren molde eta jokaera sexistak gehiegi aztertzeke erraztasunik eduki ez duten pertsonekin harremanean ari dira egunean zehar ordu askoz, eta ez dakit hau dena umeekin berrikusteko eta behatzeko astirik izaten dugun.

"Kaleak hezi egiten du ". Gure belaunaldiak denbora luze eman zuen kalean. Asko sendi ugarien seme-alabak ginen, alokairu merkeko etxe txikietan pilatzen ginenok, eremu txiki horietan zazpi-bederatzi... kide lasa eta lasai bizi ahal izateko etxe txikiegiak zireneko belaunaldikook. Beraz kalean bizi zen giroaren ikasleak izan ginen, bertan zeudenak irakasle. Hau, berez, ez zen ezkorra izan, baina honek egin gintuen garai hartan kalean bizitzen zen maskulinitasun ereduaren lekuko zuzenak inolako galba herik pasa gabe.

Bestetik, “hizkia, odolez ikasia” esaeraren “seme-alabak ” izan ziren maixu-maixtren eskutan ibili ginen eta beren eskuak guregan ere erori ziren maiz, genero bereizketan guztiz errotutako heziketa eman zigutelarik. Agi, fenomeno honi sustraiak ikus dakizkioke gaur egun. Ikastetxeetara egindako bisitetan ikusi ahal izan dugu lan batzuen sexu araberako lan banaketa: zaintza eta gertuko harreman sentikorrek eskatzen dituen hasierako hezkuntzan gizonezko irakasle oso gutxi; heziketa fisikoa, zientzietan eta eskulanetan gizonezko asko, eskulanetako geletan lisatzeko, brodatzeko, josteko, sukaldatzeko materialik ia gabe, eta alderantziz: entxufeak, kableak, mailuak, aliketak apenas ikus daitezkeen eskulan gelak emakumezko irakasleen esku...

aurreiritziengatik:

zerrenda luze bat kateatuta bizi da gure burmuinetan eta aldarrikapen berdintzaleekiko bidea oztopatzen dute edozein arlotan. Jarraian, gizonezkoen baldintzapen-zapalketarekin zerikusia duten adibide bakan batzuk ikusiko ditugu.

“gizonek ez dute negarrik egiten” Aurreiritzi honek ez du hitz egiten bakarrik malkoak isurtzeari buruz. Bere atzean ezkututzen du portaera multzo zabal eta serioa: gizonezkoek sentimenduekiko itxi behar duten atea eta honen esanahia (aurrera aztertuko dugu).

“Gizonak ez dira koldarrak, oiloak, ez dute bizkarra ematen ”

“Burugogorrek eta independenteak dira jaiotzez ”

“Gizona ez da marikita bat lez kexatzen ”. Eroriez gero, jo eta altxatu egiten da, eta segi aurrera! ”

“Bi potroekin joka ezak; ez hadi marineska izan!”

“Joa izan aurretik jo ezak, erakutsi bi barrabil dauzkaala!”

“Gizonak? Denak berdinak”

“ Mutilak astakirtenak dira” eta ez dute balio gauza batzuk egiteko –umeez ala adinduez, gaixoez arduratzeko, adibidez- eta bakarrik gogor egiten bazaie orduan ikasten dute... Neskak ez dira halakoak, ez independenteak ez eta gai gizonezkoen mailara iristeko ere gauza askotan – gorputz trebetasunetan, botere eta erabaki ahalmen esparruetan...- beraz ez dira horietara behartu behar, beste erritmo bat dute, polikiago, suabeago, isilago... Gainera neskak mutilen moduan hartuko bagenitu marimutil aterako litzaizkiguke. Azken esaldi honek bere baitan gordetzen du gurasoek zein hezitzaileek barneraturiko ezberdintasun psiko-kultural hori, eta berorrek bultzatzen dituen generoen araberako bi lerroen heziketa bereiztuak, inoiz elkartuko ez direnak.

-Uste ohi da mutikotxoa intimitate, samurtasun eta hurbiltasun handiz hartzen baldin bada bingunkerietan haztaraziko dugula, era desegokian haziko zaigula, jokabide horiek ez diotela onik ekarriko, mutikoa prestatu behar dugun bizitza gogor horretarako ez direla bidelagun lagungarriak izango eta “homosexual ateratzeko ” aukera elikatzen ari garen sentazioa ala zalantza pizten zaigu. Gauza antzekoa gertatzen da neskatuekin, aurkako norabidean: gogorkerian ezin dira hartu beren “papera”-k “lehuna” izan behar duelako bizitzan. Heziketan ez du mutil baten antza hartu behar; bere paper “femeninoa” ongi zehaztuta gelditu beharra dago, hots, bere “senarraren andrea” izango dena.

Beste aurreiritzi bat da mutikoa beste mutikoen eta gizonezkoen artean hazi eta hezi beharra dagoela gizentasuna ongi xurga dezan, bestela desbideratu egin baitaitezke, okertu, gaizki hezi... eta neska nesken artean eman behar dituela bere gizarteratzearen lehenengo urratsak eta oinarriak. "Alaba maitea: gauza batzuetarako prest egon behar duzu gizon batekin topo egiten duzunerako ". Guri ere prestatzen zaigu "topaketa" horretarako: lilura ezak neska, ohera eraman behar duk, baina poliki, berak ezetz esango dik baina hik ekin eta ekin , zeren eta bere ezetza baietz ezkutu bat duk eta; berritsu-hitzontzi batzuk dituk...

sineskeriengatik:

Aurreko multzoaren antzekoa litzateke baina ezaugarri eta ñabardura ezberdin batzuekin. Oro har, sineskeriek bizipen txar bat gordetzen dute beren baitan; sentikizun ezkor horrek aurreiritzia indartzen eta finkatzen du eta hartzen duen itxura hauxe izan ohi da: " Nik diotsut, neronen eskarmentuagatik " Multzo honek aldaketarako traba gehiago aurkezten du. Ikus dezagun adibide bat edo beste:

Mutikoa nesken heziketa berberaz hazten bada "maritxu" izateko aukerak igo egiten dira; honek errazten du lehenago aipatu "Gizonezkoen Etxeak" izeneko fenomenoak. Muga pentsaezinak erdiets ditzake: Txinan alabatxoak errekarra jaurtikitzen zituzten- giza galera onartezina- eta soilik mutikoak hazten zituzten, nesken erreferentziarik gabe, gehiegizko ardura andana eurengan eroriz, mutilen buru botatze tasa nabarmena sorturik herrialde haietan. Beste zonalde batzuetan sineskeria kultural hauek txikizioak eragiten ditu gazteengan erritu erlijiosoei lotzen zaizkielako beren auto-estima suntsituta uzten duten praktikak: judutar mutilen zikiratzea edo nesken ablazioa... marra zeharkatzerakoan harrika ere akabatzen dituzte. Marra horrek, jakina, kulturalki ezarritakoaren eta gizatasunak onar dezakeenaren arteko muga islatzen du. Eta funtzionatzen du norberak "gauzak hala jaso zituelako betidanik " eta "beti hala izan direlako " . Hauek dira aurkezten diren argudio batzuk gertaera hauek beren lekuan iraurarazteko.

Honela, erritu, sineskeria eta gezurrak sinisten ditugu eta zalantzatu aurretik sinesgarritasuna ematen diegu, gure harremanak, besteekikoak zein gure buruarekikoak ustelduz. (Agridino Matesanz. Mitos sexuales de la masculinidad. Madrid.2006)

erritualengatik:

militar, erlijio, politika ekitaldietan, gudetan, gizakia galtzeko arriskua dagoen ekimenetan, desfileetan, edo enpresa ala elkarte armamentistikoetan... gizonek parte hartu behar zuten ideia errotzen digute, haietan emakumezkoen agerpenik ez delarik. Aita Santu emakumezkoen ez dugu ezagutu guk, ez emakume diktadoretik ala borrarorik... kanpoko mundu horrek irakasten du barruko munduan nola interpretatu behar ditugun esparru boteretsuen banaketa eta erabakien garrantzia norengan erortzen diren. Gizonezko andana gudetan eta gatazka belikoetan hiltzen den bezala, andre eta ume gehiegik pairatzen du gudaren eragina, gudaren zehar, lehen eta gero. Soldaduak milaka dira hilda eta milaka ere herrira itzulitakoak, betiko elbarriak, fisikoki zein psikologikoki. . Emakumeek ondorio latzak ere pairatzen dituzte erokeria haietatik. Ni bezalako gizonezkoek ez da arraroa hogeitau urte geroago ametsak edukitzea jarraitzea egin behar izan genuen militar zerbitzuan kideak erahil eta gure burua hiltzeko prestakuntzarako ariketa fisiko eta psikiko ikaragarri haiei

buruz.

Hau da, **kultura** bera osatzen duten **osagarriengatik** aurkitzen gara estu-estu hartuta eta harrapatuta, portaera jakinok - denontzat kaltegarriok- barneratzera, garatzera eta igortzera. Gure gizarteratzearen zati dira eta oso jende urrik ihes egiten die.

Denok gara kulturaren “**EZKUTUKO CURRICULUM SEXISTA** ” ¹ honen jomuga eta biktima, eta -ohartzeke- agente ere bai, kontzientzia hartu eta gauzak aldatzen hasten garen arte. Kontzienteki ez gaude curriculum honen, ideia hauen alde, ez ditugu nahi, ez zaizkigu zuzenak iruditzen, ez ditugu aldezteko asmorik, ez zaizkigu ez zilegi ez gizatiar iruditzen, baina inkontzienteki garatu eta igorri egiten ditugu, txiki-txikitatik sartarazi, inkrustatu dizkigutelako.

Gizarteak garatzen eta aldatzen doazen arren, elementu hauek ez dira desagertzen, baizik eta itxura berriak hartzen. Batzuk lehuntzen doaz eta agian, denborarekin eraldatu eta desagertzera irits daitezke. Beste batzuk ez. Bada, dena den, sistema kapitalistak gizonezkoak egoera ustiatzaile honetan eta emakumezkoak beste aurkako posizioan mantentzeko eratutako industria azpiegitura sare bat, jarraian laburki eta gainera azalduko duguna:

¹ Irakurri “Sexismoaren ezkutuko aldea ” atala, 75. orrialdean

C. GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN-ZANPAKETA BERE HORRETAN IRAUNARAZTEN DUTEN INDUSTRIA-ERAKETA BATZUK

Gizonezkoek bete behar dituzten gizarte rola, eta rol hauek eskatzen, indartzen eta sustatzen dituzten pentsamoldeak, jarrerak eta jokabideak gizarteetan eta bertako pertsonengan tinko mantentzeko sistema kapitalistan industria-eraketa berezi batzuk – eta beren erakundeak eta entitateak- garatu dira, bereziki zuzenduta gizonezkoen baldintzapen-zanpaketa finkatzerantz eta iraunarazterantz, egoera horietatik sekulako etekin ekonomikoak eskuratzen dituelarik. Zoritxarrez, azken urteetan industria hauetako batzuk abiada bizian emakumea ere erdiesten ari direla aipatu beharko genuke.

***Arma industria:** Sistema kapitalistaren diru-iturririk handiena. Bere militar zerbitzuak, non gizonezkoak gudurako material negoziagarri, erosgarri eta salgarri gisa, hots, sakrifikagarria, ulertzen diren. Txikitatik prestatzen zaigu indarkeria maila altuekin ohitzeko armekin, borrokekin, eta hauetako heroiekin liluraturik haz gaitezen eta gure jolasetan elkarren aurkako borroketan parte handia eman dezagun; honetan ikaragarriko propaganda eta presioa dago. Kromoak eta tazoak, play-station-ak eta beren jokoak, komikiak eta filmak... horretara bultzatzen gaituzte behin eta berriro. Haur batek, telebistaz bakarrik, egunean milatik gorako indarkeriazko irudi irensten ditu. Indarkeriarik gabeko hezkuntza batez hazitako gizonik ez luke hain erraz bere burua eskainiko indarkeriaren alde.

***Iantokietako zanpaketarako eraketa:** historian zehar lanik arriskutsuenak eta zailenak gizonezkoek hartu izan dituzte, baldintzarik zailenak, arriskutsuenak, gogorrenak, zikinenak, ahigarrienak dituzten lanak gizonezkoentzat gordetzeko joera izan dugu nagusi: lehegailu eta kimika gai arriskutsu eta kutsakorrek dituzten lanpostuak- meatzariak, eraikuntza, lehegailu sortzaile ala artazilariak, urpekarik, soldaduak, espioiak, torturatzailak, makinaria ez seguruaren gidariak, teknikariak, konpontzaileak... -Euskal Herrian aunitz dira gidatzen zihoazen traktoreak irauli eta harrapatuta, aldamiotik behera erorita edo garraiatzen zituzten zamek azpian hartuta... hiltzen diren gizonezkoak-² Sexuaren arabera lan banaketak indarrean darrai oraindik.

²Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera Euskal Autonomia erkidegoan lan istripuen % 0,1 da emakumezkoa. Lan arriskutsuenetan (eraikuntza, argi-indar altuko beharginak, antena konpontzaileak, igogailu teknikariak, meatzariak...) hiltzen den langile kopuru ia-ia osoa gizonezkoena da. (Joseba Azkarragak, zuzentza, enplegu eta gizarte aseguratzen sailburua, 2003.an). Espaniar estatuan lan istripuetan hiltzen diren gizonezkoen kopurua genero indarkeriaren esku hiltzen diren emakumezkoen kopuruaren hamar halako ohi da. Emakumezkoen institutua. Lan eta gizarte gaien Ministerioa.2006. Aurten bide bertsuan goaz.

***sexu industria:** emakumea objektutzat aurkezten digute, desiragarri bihurtu sexu objektu bezala, sexu eta pornografiaren salerosketa azoka ikaragarri zabal batean, gizonezkoak lor dezan, kontsumi dezan, erabil dezan, eta “bota ” dezan prestatua. Eraketa honek izugarrizko amu eta baliabide aniztasun zabala erabiltzen du egunean zehar gizonezkook ehunka aldiz joak garelarik bere mezuengatik. Behin eta berriz, behin eta berriz kitzikatzen, subermatzen zaigu emakumeak hala ikus eta desira ditzagun, haien gizatasuna alboraturik. Ez da erraz ulertzen zer demontre egiten duen neska errubia altu eta apain batek erdi biluzik uzta-makina baten gainean eserita, halako makinak saltzen diren saltokietan, uztarako gailu handi horretara neskari ez zaionean ez eta hurbiltzen utziko behin salmenta eginda.

***Droga industria:** alkohola, farmazeutika eta bestelako droga legal zein ilegalen ekoizpena eta merkaturatzea kontrolatzen dituen industria honek sentimenak “itotzeko ” edo ekiditeko edo ahazteko erabiltzen ditu bere produktuak. Gizonezkoen sentimenak aintzat harturik nekez burutu liteke zampaketarik. Sentimen hauekiko kontaktuan egongo balitz, sorgortu eta lotaratu ordez, gizonak ez lituzke berarengandik egitea espero diren gauza ugari egingo, ziur aski bere sentimenduek ez liokete hori egiten utziko; errazago matxinatuko zatekeen. Honen adibidea nazien pilatze eta suntsitze eremuetan behatu genuen. Bertan (Auschwitz-Birkenau) duela urtebete azaldu zigutenez, lanik nazkagarrienak, suntsigarrienak burutu behar zituzten gizonezkoek alkohol tasa altuak kontsumitu beharra izaten zuten ekintza basati haiei aurre egin ahal izateko, egin aurrez eta egin ondoren. Eremu haietara egunero iristen zen alkohol kargamendua izugarria omen zen.

***Kirol industria:** gizonezko balizko eredu fisiko zein psikologiko batetara iristeko beharrezko diren salgai guztiak eskaintzen dituzten industriak: gorputza ez dakit nolakoa, ez dakit nolako sustantzia eta elikagaiak kontsumituz...halako ez dakit eta badakit zein kirolari aditu eta ereduren markak, etiketak, ohiturak, gorpuzkerak... imitaturik. Honekin batera, lehia aldarrikatzen dute gure artean, elkar laguntzaren ordez, merkatua eta diru-bidea ziurtatzeko ideia hau nagusi delarik: “bakar batzuk balio dute bakarrik; eta horietako bat bakarra da aukeratutakoa, gehi berak ordezkatzeko duen marka ”.

***Farmazeutika, kosmetika, dietetika, “edertasun” eta “osasun fisikoa”:** hauek markatzen dute zein diren ohitura osasungarriak, zein eratako gorputz, itxura, ohiturak, jokamolde, produktu... hartu eta kontsumitu beharra dauzkagun sozialki onartuak eta desiratuak diren fisikoak beregana ditzagun. Honek izugarri sufriarazten ditu emakumezko asko eta euren artean lehiatu eta elkar baztertu eta bekoiztu; azken urteetan, gizonezkoak ere industria hauen atzaparretan erortzen ari dira.

***zigor legeria:** Auzitegiak, epaitegiak eta bere zigor-guneak –presondegiak, espetxeak, polizia-etxeak...- gehi polizia erakundeak dira, non aitzakia bezala hartzen den gizartea babestu beharra dagoela gizakiarengandik berarengandik eta ez bere rol zurrinak eta zampaketak sortarazten dizkioten -eta portaera horiek garatzera daramatzaten- politika okerarengandik. Sistema honen jomuga gizonezkoa da izugarrizko portzentaia altuan. Eta arrazakeriak eragiten du haietako gehienak koloreko gizasemeak izatea; klasismoak berriz, klase txiro edo baztertuetako gizonak izatea... Sinisten zaila suerta dakiguke zenbat herrialdek aldeztu duen heriotza zigorra egun (90; hurrenez hurren: urkatzea, afusilatzea, elektraindarraz hiltzea, txerto hilgarria, lepoa ebakitzea eta harrika erailteza) haien artean beren burua “garatu herrialdeak ” –tzat dutenak (Estatu Batuak).

***Hezkuntza sistema,** sexismoaren igorle garrantzitsua oraindik, nahiz eta gauzak aldatzen doazen poliki-poliki. Baita bestelako "ismo"-en iraunarazlea: klasismoa, arrazismoa, adultismoa... Sexu bakoitzari esleitzen zaizkion rolen onarpenerako prestakuntzarako, banaketarako eta haiek bereganatzeko lekua. Besteak beste, adibide batzuk aipatzearen, lehiak (onena izan, notarik hoberenak lortu, kirolean lehenengoa izan eta hori bakardadean erdietsi, autonomia ulertzeko modu oker batez mozorrotua...) elkartasuna ordezkatzeko, gai batzuetan mutil eta nesken arteko bereizketari eusten dio (mutilei ez zaie negar egiten uzten oraindik edo gai batzuetan sentiberak izaten eta neskei jolastokietako bazterretatik mugitzera ez zaie animatzen. Eskolaurrean gizonetako irakasleen eredurik gabe hazten dira neska-mutikoak hezkuntza, zaintza... emakumezkoen eskuetan dagoela ikusiz eta ikasiz; zientzia batzuen irakaskuntza nagusiki gizonetako eskutan jarraitzen dute, eta abar.

***Erlitio erakundeak:** bereizketen sortzaile- gure jainkoa haienaren aurka, bide zuzenekook okerreko bidekoen aurka, zintzoak eta gaiztoak - eta, noski, sexismoa eta gainerako zapalketa batzuen igorle-. Adan gizon ereduak, txuria, munduan lehena eta onena eta Eva, Adanen saihetsetik aterea, bigarren mailako gizaki gisa. Emakumeak bekatariak (inpuruak, hobendunak) gizonetakoak penitentzia erraldoi eta ikaragarrien eredu eta esklabo (martiriak); homosexualen jazarpena, sexu jardueretarako debekuak, zirkunzisia gizonetakoentzat eta emakumeentzat ablazioa, infernuarekiko ikara, ipuin arrazista eta sexistak (parabolak, kondairak, etab) gizonetako garrantzitsu eta ezinbesteko ereduak (santuak), Aita santuak eta beren diskurtso sexistak ugaltzeari buruz...

***Sendi erakundea:** non generoei eta sexuari buruzko aurreiritziek habi izan duten herentzia patriarkala dela medio; non gizonetako sendiaren nukleotik alboratua bizitzera bultzatu den, barruko ardurak bereak ez baizik andreakenak baliran gisa... Gizonak periferiatik ardatz nagusira mantenua ekartzeko gailua izan behar du, ekoizle, hornitzaile, sortzaile eta babesle den baina parte hartzerik ez duen lur- orotako satelite bat bezala. Bestela, inutil hutsa sentituko litzateke, gizartearen bizkarroia, hutsaren hurrena...eta emakume batzuk horrela gogoraraziko liokete, ezin baitugu ahaztu sexismotik oso jende gutxi egiten duela hanka gure kulturari. Dena dela, ez dugu uste gurasoek gauzak hobeto egiteko aukera eduki izan balute okerrago egiteko aukera hartuko zutela. Gure joera gehiago da gure gurasoek izan zituzten aukerak, baliabideak eta testuinguruak edukita zailki egin zitekeela gauza hobea gure pentsatzeko.

Orain gonbidatzen zaitut gizonetako zapalketaz pixka bat jakitera, nondik nora prestatzen gaituzten gizatasunari bizkar eman diezaiozun, honen bidez zapaltzaile rola bereganatu ahal ditzagun eta honen eragin batzuk guregan nola gertatzen diren azter dezagun. Jarraian irakurriko duzun ezer ez da ez argudiorik, ez aitzakiarik gizonetako biktima paperean geratu eta gizarte aldatzeko erantzukizuna har ez dezagun. Aitzitik, gure helburua oharmena zabaltzea da, gizarteotan oker diren gauzak aldatzen laguntzeko, gure buruarengandik hasita.

“EZAGUTZAK ARDURADUN BIHURTZEN GAITU”.

che gevara-k

D: GIZONEZKOEN BALDINTZAPEN-ZAPALKETAREN EDUKI NAGUSIETAKO BATZUK

D.1 GIZON IZATE HUTSAGATIK ZAPALTZEN ZAIGU

Gizonezkooi hertsatzen, erreprimitzen zaigu txikitatik era askotan, aitortzen eta batzuetan ezagutzen ez diren eretan, ahaztu egiten ditugun eta jada ezagutzen ez ditugun moduetan, oso-oso goiz gertatu zirelako. Ez ditugu gogoratzen zeren eta gizarteak, oro har, mintzeko era horiek praktikan jarri, gidatu, abilki ukatu eta sutilki ezkutatu egiten baititu; gaia azalerraten duenari eraso egiten dio eta oportunistak edo biktima labela ezartzen dio eta hezkuntza puntual baten kasutzat har dezake, ez egiturazko fenomenotzat.

Honexegatik gizonezko denok oraindik ez gaude gure minaz jabetzeko egokieran, gizarte honetan bertan baldintzapen-zapalketa hau biziaren zati bat bezala bizitzen ikasi behar izan baikenuen. Era berean, nekez ulertzen dugu gure arazoaren sorburua ez dagoela gure gizon-izatean, baizik eta gizarte honek ezartzen digun “gizon” definizioan. Gizarte sexistaren egitura guztia hau hala sinis dezagun zuzendua baitago, horrelakoak garelako eta horrelakoak izaten jarraituko dugula, erremediorik ez balego bezala. Hezkuntza sozial hau zalantzan jarri nahi duenari aurpegiratzen zaio “Ezarritako ordenari ” muzin egin nahia.

Gizonezkooi nola ikusten gaituzte

Gizonezkook arazo ia gehienak sorburutzat jotzen gaituzte. Ez da harrigarria, nolabait, bizi garen kulturetan sarraski eta hondamendi nabarmenenak gidatzen dituzten gizonezkoen ereduak jaso ditugulako eta, neurri batean gutako batzuk, antzeko prestaketa hartu genuelako. Emaitzaz ez gara guztiz ezberdinak haiengandik; indarkeria kopuru handixeago batez haien maila zentzugabera hel gitezke eta.

Era berean, sinesgaitza da jende askorentzat, gizonok, gizatalde gisa, minduak izan garelako sinestea, zeren eta geu baikara gizartearen boterea dutenak, ustez legeak antolatuta eta ematen ditugunak (egiatan, aspaldidanik ezarriak datozkigunak) eta nahi dugun guztia

lortzen ei dugunak. Nola liteke, bada, geuri kalte egitea, sozialki, ekonomikoki zein politikoki geu baino talde boteretsuagorik ez badago?

Gizarteak, hasieran aipatu bezala, oro har erakundeak sortzen ditu eta erakunde horietan aurkitzen diren pertsonak arauak ezartzen dituzte, erakunde horietan beraien egitura eta izatean emaitza onak dakarkizkietenak, hasi esklabutza sistematik, sistema feudaletik pasa eta kapitalismoraino iritsi direnak, beren jarrera zuzen eta okerrez beteta. Pertsonak erakundearen parte bilakatzen dira eta guk erakunde haien menpe bizi behar dugu. Erakunde horien politika okerren menpe ere bai, ohartu ala ez. Ondorioz, jende kopuru garrantzitsuak era bereko mina pairatzen badu (hiritarren gehiengo handiak, sexismoaren zapalketa jasaten duen moduan, esaterako) min hori aurki islatuko da erakunde gehiagotan eta bere egintzen eremuetan eta hauen mendean diren gizakiengan. Arrazakeria kasu: hiri batzuetara etnia jakin batzuk sar ez daitezten eraikitzen diren harresiak eta hesiak arau batzuek agintzen dituzte; arau hauek pertsonak idazten dituzte eta beste batzuek bete daitezten zaindu. Arrazakeria irentsi eta sinistu dituzten erakundeetako langileak dira. Araudiaren aurka egiteko erakunde horietatik at egin beharko duzu lan, kaleratua izan nahi ez baduzu, zure gogo onez, militantzia mugimenduetan, GKE-en bidez, etab.

Honela, erakundeok berezko mugimendu, dinamika eta bizitza sortzen dituzte. Gazte belaunaldiak honen hatzaparretan murgiltzen dira, kalte hori birsortuz helduarora iristen direnean, gorpil amaigabea osaturik. Gutako zenbatek ez du ikusi edo sumatu halakorik betidanik lagun zuen norbaitengan sendikoren batengan ala berorren buruarengan? Gure gurasoengan gorrotatzen genituen esaldiak, ideiak, ohituretako batzuk ala jarrera batzuk batzuetan guk geuk errepikatzen ditugu, nahi gabe askotan.

Gizonezko gazteak prestatzen eta hezten dira sistema hauetan parte hartzeko, ez sistema hauek aldatzeko edo hobetzeko. Emakume gazteak ere bai. Ezagutzen ditugun ama gazte hauetatik ez dira gutxi molde zaharrak errepikatzen dituztenak, adibidez, beren semeei negar egitea galaraziz, era leunez ala apalez, baina sentikizunetik lotura zailduz ala ukatuz. Gauza bera aita gazteekin.

Illo horretan, jasaten dugun zapalketaren iturburua erakundeetan datzala uler daiteke eta hauetan murgiltzen diren pertsonen bidez igortzen da. Eta zapalketa hau gorpuzten dela eta indartzen dela lehen aitatu osagarri kulturalen bidez pertsona bakoitzarengan (Celia Amoros. 2005). Eta osagarri hauek heredatu eta igorri egiten direnez, gauzatu egiten direla inkontziente kolektiboan kontatzen, entzuten, ikusten ditugun bakoitzean. Nagusiki oinarritzko ideia batean bil genitzake:

“ Gizonezkook, berez, gara matxistak, arriskutusuak ala bortxa-zaleak, modu batera kaltegarriak.... Ezin zara haiekin guztiz fio izan, zeren eta halako batean...egingo dizu...”

Gizartearen onarpen orokorrari esker indartzen eta gorpuzten da ideia hau. Ikuspegi oker hauek barneratzen ditugu eta hauen araberrako jokaerak garatu eta betikotzen ditugu, sistemak hau dena zalantzan jartzeko aukerarik ez duelako ematen. Era honetan, sistemak eragiten duen zapalketa horren errua gizonezkoei beraiei egozten diegu, zapalkuntza belaunaldi, birsortu eta bermatu egiten delarik.

Bestalde, pertsona maiteen eta garrantzitsuen erreferentzia gisa zapalketak berak jotako gure gurasoak, aiton-amonak izaba-osabak... izan genituen egunero gure aurrean. Denok ez genituen oso eredu ezberdinak, ez eta erreferentziak erraz aurkitzen gauzak beste modu

batez izan zitezkeela pentsatzeko. Ondorioz, txantilo (jokabide, patro) hauek ongi irentsi eta buruz zein bihotzez ikasi genituen, bai mutilok, bai neskek.

Gizonezkook zehazki, prozedura berezia jasan behar dugu zapalkuntza hau onartu, barneratu eta gauza dezagun: baldintzapen maskulinoa, gure sentimenduekiko lotura antzutu egiten zigun prozesua, hain zuzen. Sentimenduen esparrurako sarbiderik gabe oso manipulagarri gertatzen gara zapalketen aurrean eta pertsonaren identitatea erraz galtzen dugu gure rolen identitatea hartzeko. Honela erraz jartzen dugu jendeak - eta guk geuk-ideia nagusi hau sinis dezan.

Zapalketa honen eta beste batzuen arteko antzekotasunak

Gizonezkook jasan behar izan dugun zapalketak beste batzuen antza du. Esaterako: zpaldua gutxiatea, harekiko begirune eza, pertsonaren gizatasunaren ukazioa, biktimak aukeratu ez dituen gauzak egitera behartzea bortxaren mehatxupearan (“ez ezazu horregatik negar egin, ala nik emango dizut benetan negar egiteko egiazko arrazoi bat!”) gertatzen zaion injustiziaren errua berori leporatzea...

Oro har, hasiera batean ez dago zapalkuntzaren gaineko kontzientziarik, ez alde batean, zein bestean; geroago ukatu egiten da zapalkuntza badenik eta gizaki horren akatsatzat hartzeko joera izaten da. Azkenik, kontzientzia zabaltzen hasten denean egoera iraultzeko antolakuntza eta borroka agertzen da, zapalketa desegiteko asmoz.

D.2 BALDINTZAPEN-ZAPALKETA HONEN ERAGIN OROKOR BATZUK GUGAN

Ohartu ala ez, zapalkuntzazko bizipen hauek eragiten gaituzte, aztarna uzten dute guregan (beranduxeago ikusiko dugu). Baldintzatzen dituzte gure jokamoldeak, gure sentimenduak, gure pentsamendua, gure harremanak. Ideia orokor bat egin dezagun, eragina dute, besteak beste:

-Geure buruaz dugun iritzian

Gutako askok ez dugu gustuko honelakoak izatea, ez dugu gure burua gogoko modu hauetan, hau ezkuta dezagun prestakuntza ekina jaso dugun arren. Batzuek gure burua maite eta errespetatu baino errazago gaitzetsi eta zigortu egiten dugu, isilean. Beraz, esperokoa da gure buruarekin pozik ez egotea, sentitzea “akats moduko zerbait nauk ” eta hau islatzea Hainbeste rol eta igurikapen bete beharrarekin normala da sentitzea ez dugula neurria ematen eta izututa egotea, nahastuta, disgustura, galdu samar eta ez zoriontsu, eta gutxiago ondokoei zorientasuna emateko.

-Gure burua zaintzeko eran

Barne sentimen hauen egonezina eta urduritasuna direla eta denok ez dugu bizitza osasuntsurik garatzen, ez fisikoki, ez psikikoki. Elikadura eta sustantzia ez egokiak eta kaltegarriak hartzen ditugu, (lo egiteko pilulak, tentsiorako pilulak, lasaigarriak, telebista...) adikzioa sortzen dutenak. Adikzio hauen helburuetako bat da sentimendu desatseginok ez sentitzea, ekiditea. Gorputz ariketarik ez dugu egiten, edo egiten dugunean ez dugu beti erabiltzen harreman osasuntsuak garatzeko aukeratzat, baizik eta lehiatzeko, bai gure lagunekin zein gure buruarekin. Atsedenez ahaztu ohi gara gizon ugari.

Batzuk, hunkimendu eta maitasunezko bizipenak saihesten ditugu ez badute sexu osagarriren bat ez dakigulako ongi sexu konkistetatik kanpoko harreman intimoetan mugitzen, ez zaizkigu eroso suertatzen badutelako arazo eta errepresioa gehien ekarri dizkigun munduarekin harreman zuzena: sentimenduena. Labur genezake esanez maiz sentitzen duguna sentitzea baino ez sentitzea errazagoa egiten zaigula. Gainera, hertsatzen gaituen sistemak berak saltzen dizkigu sentimenak ekiditeko, lotaratzeko sustantziak – alkohola, tabakoa...- Sustantzia horien eraginpean ez gara hobeagoak sentitzen, ez zoriontsuagoak; ez dute arazoa konpontzen, baizik eta metatu eta atzeratzen, eta egoera horretan esan edo egiten ditugun gauzek sor dezakete kalte ondokoengan.

-Gainontzeko pertsonak tratatzeko eran

Gure artean batzuk geure burua errespetatzen ez dugunez, nekez errespetatzen ditugu besteak. Beraz, gure harremanetan ez dugu nahi bezain besteko hurbiltasunik lortzen. Ezin izaten gara seme-alabekin nahi dugun adina denbora egon. Maite ditugunak izutu, mindu ohi ditugu eta gero damu izaten gara. Etsita gaudelarik, sarritan, guri esan zizkiguten gauza mingarri haiek beraiek esan eta errepikatu egiten dizkiegu gehien maite ditugun pertsoneri, gurekin erabilitako doinu gogor haiek beraiek erabilirik ondokoekin. Askotan ez dugu ezagutzen gure egonezinaren zergatia, baina geure buruari egozten diogu gertatzen denaren errua, ez garelako nahikoa "gizon ". Gure harremanak nahastu samarrak izaten dira gure buruarekin nahastu samar gaudenez gero. Ez dira beti sakonak, azalekoak baizik.

Gaur egun jokabide zahar honetan automatikoki murgilduta gabilta gizon frango. Izututa egoten gara denbora gehienez; sarri, inguruko gizonak arerio bihurtzen ditugu eta gure lagunak izan litezkeenekin lehiatzen gara. Honek tristatzen gaitu; errua gainontzekoei ere egozteko joera izan ohi dugu. Apenas dagoen erlaxatzeko unerik, ez dugu lasaitasun handirik eskuratzen ez eta eskaintzen ere.

-Lana bizitzeko eran

Gure bizitzari dagozkion erabaki zentzuzkoak hartzen ez dugu beti asmatzen lana galtzeak beldurra ematen digulako. Lana garrantzitsua zaigu beraren bidez lortzen dugulako gure burua baloratzea, material arlotik kanpo baloratuta sentitzea zaila zaigunez gero. Soldata iturri hau edozer gauzaren aurrean jartzen dugu horretatik "auto-estima " lortzen dugulako, beste balore gizatiarretatik baloraziorik lortzen oraindik ongi ikasi ez dugunez.

Lana bizitzeko behar-beharrezkoa dugunez gero, lanpostua galtzeko beldurra erabilirik, manipulatu egiten gaituzte, nahi eta merezi ez ditugun baldintza ez gizatiarretan lan egin dezagun. Nekatuegi iristen gara etxera, lan esparruan batzuetan ustiatuak, zapalduak izanaren bizipenarekin, eta hau errepikatzen dela ametitu egiten dugun sentsazioarekin. Honela zaila zaigu gutaz beti irudi on bat edukitzea, eta ez dugu aldarte egokienarekin eguna bukatzen, ingurukoak guztiz ongi tratatzeko egokieran.

-Etorkizunari begiratzeko orduan

Horrela jokatzeko dugula sumatu egiten dugu eta gaizki sentitzen gara gure buruarekin. Ez dugu uste, honelakoak izanik, inork gurekin egon nahi izango duenik; eta gure konpainia onartzen duen norbait badenean, harritu egiten gara eta pertsona hori defendatu gure-gurea balitz bezala. Geure itxaropenetan, geure ametsetan, bizitzaren aurreko baikortasunean eta

jarreretan... amore ematen dugu behar baino lehenago, eta nekez sinets dezakegu besteen ametsetaz. Geroari modu mugatuan, nekez eta kolorerik gabe begira diezaiokegu, zuri-beltzean.

Era berean, bakarrik eta arraro sentitzen gara ez dakigulako zer gertatzen zaigun. Ez dakigu zer nahi dugun ez digutelako seriooki galdetu inoiz; maiz, galderari erantzun aurretik erantzuna mahai gainean baitzegoen jada, eta, bestetik, eguna amaitzean ez denborarik ez indarririk ez zaigulako geratzen pentsatzeko biharamunean zer nahi genezakeen.

Gizarteratzeko garaian

Nahiz eta askotan jakitun ez garen, egun etsitzen gaituzten gauzak lotuak daude txikitan jaso genituen tratu oker haiekin. Bestalde, umetan mindu gintuzten era berean minduak izateko joera gara dezakegu: txikitan jo bagintuzten -mutiko koskorrekin sarri gertatzen den bezala- gerora jotzeko joera gara dezakegu, edota joa izateko arriskuaren aurrean geldo, butxaturik gelditzen gara eta ez gara gai egoera ez zuzen hori eteteko. Edo eta edozer egoeratan jotzea erantzun gisa erabiltzearen aurrean sorgor bihur gaitzke, ez dugu erreakzionatzen. Azken hau dator, neurri batean, joak izan ginen unean zenbateko ikara pairatu genuen arabera. Oso-oso ikaratuak utzi bagintuen egoera bortitzak, beldurrak geldotuta, sorgor ala hartara ohituta aurkitu gintezke indarkeriaren aurrean. Oso irainduak izan baginen indarkeriazko egoera hartan, indarkeriaz erantzuteko aukerak biderkatzen dira.

Alegia, marka haiek – gure gogoan sendatu gabe dirautenak- beste zenbait pertsonaren aurka burutzeran eraman gaitzakete edota geu umetako modu berean berriro minduak izatea onartzeko joera garatzera eta ezer ez egitera ere bai. Gutako batzuk, guraso garelarik, topo egin dezakegu egoera honekin, gure aitarengandik gorroto genuen esana bera guk geuk esaten dugularik; joak izan ginenok geure seme-alabak jotzeko joera senti dezakegu... Ohartzeke suertatzen zaigu maiz. Beste batzuetan ohartu egiten gara segituan. Baina ez dugu ondo jakiten nola maneiatu hau guztia.

Sarritan, zailtasun hauek guztiak sortzen zaizkigu gizonezko izateagatik berariazko heziketa eman digutelako. Guregan ezartzen diren rol eta igurikapen faltsu eta ez gizatiar hauek eten ezean markak uzten dizkigute, luzerako eta, ondorioz, gure ondokoengan, “gizon” izateko presioak eginarazten dizkigun jokabide burugabeen emaitzen ondorioz. Aztarna hauek zuzendu ala sendatu ezean, gutaz, gainerakoez, munduaz eta bertan ditugun eginbeharrez dugun ikuspegia lausotu, gandutu egiten zaigu. Gainerako jendearekin ditugun harremanetan ere ikuspegi motz eta okerra gararaz diezagukete eta beraiekin sortzen zaizkigun igurtzietan -zein hauei irtenbidea emateko ahaleginetan- eragin erabakigarria izan dezake.

Gizonezkook, talde moduan, antzeko kaltetu gaituzte eta, ondorioz, arazo berdintsuak ditugu oinarrian. Inoiz ez genuen kalte gintzaten nahi, ez gara egin ziguten kaltearen errudun baina, bai, min hau beste inorekiko zein gure buruarekiko ez jokaraztearen arduradunak gara. Era berean, ez dugu gizarte zapaltzaile honek beste inor kaltetzea nahi ere. Helburu errealitate bihurtzeko ardura den-denona da. Horregatik gizonezkook gizon taldeetan antolatzen gara, aurrerago ikusiko dugunez. Taldeotan saiatzen gara aztertzen nola **eraikiarazi** ziguten gizontasun kaltegarri hau, gero jakin ahal izateko nola **eraitsi**.

Sakon dezagun apur bat honetan.

E- GIZONEZKOEKIKO ZAPALKETAREN MEKANISMO GIZATASUN GABETZAILEAK:

E.1-GIZATASUNA HUSTEKO ERA BEREZIAK

Neskek jasaten dutenaren ezberdina da mutilek jasaten duten heziketa, heziketa honen igurikapenak eta igurikapenok dakartzaten jarrerak ere bai. Biek ala biek sexista kutsu kaltegarria daramate, arlo askotan. Honegatik, problematika eta diagnosi ezberdina garatzen dituzte bi generoek. Gizonezkoen kasuan hiru eratan mintzen gaituzte, nagusiki:

1.1.Gure gizatasunari dagokionean: gizatasun gutxiagokoak bagina bezala hartu izan gaituzte.

1.2. Gure “*berezko*” indarkeriazko izaera eta indarkeriazko hezkuntza-trataera ohikoa gizonekiko.

1.3 Gure izaera eta “*sen ia menderaezinak*”: bulkadak, sexualitatea, obsesioak...

E.1.1 GIZATASUN GUTXIAGOKOAK BAGINA BEZALA HANTATU -TRATATU- GAITUZTE

Gure izaera emakumezkoen ezberdina izango balitz bezala hantatu izan gaituzte askotan, gure gizatasuna haiena baino apur bat eskasagoa oinarritzko ezaugarriren batean. Izan ere, haur ipuinetatik ideologia erradikaletarainoko esparru zabal batean, guztiz giza gaia ez den zerbait ezberdinez osatuta bageunde bezala pentsatu gaituzte. Honek badu adierazpen laukoitza, hain zuzen maskulinitasun eta gizontasun hegemoniko patriarkala ezartzeko gehien sakatzen gaituzten arloetan islatuta:

a. Beste pertsonak bezainbesteko gaitasuna ez bagenu bezala, gauzak sentitzeko.

“gizonezkook ez dugu emakumezkoen erara sentitzen mina ”.

Jende askok uste izan du gizonezkook mina emakumezkoek baino gutxiago edota ezberdin sentitzen dugula :

* ‘*Biak jotzen baditugu, neska batentzat kaltegarriagoa, iraingarriagoa da mutil batentzat*

baino. Azken honi berehala pasatzen zaio, "gogorragoa " da eta "ez dio horrenbeste axolarik"; "agian gogorrago jotzen baduzu, ala birritan... agian orduan zuzenduko da, erantzungo du..."

** 'Mutil bat ez da espero, ez da ikusi nahi izaten triste edota deprimitua... edo inolaz ere ez, negarrez. Ez da espero laguntza emozionalik beharko duenik. Horrelako tontakeriatan ez duela denborarik galduko espero da, eta berehala zuzpertzuko dela.'*

** 'Mutil batek ez du mina edo ahalegin fisikoa lehenesten neskek bezala, gehiago disimulatzen du, itxura batean, min gutxiago hartzen du. Gehiago ezkututzen du edo gogorrago hartu behar du min egiten ari zen jarduera eteteko ala mina sentitzen duela erakus dezan '.*

Honelakoak sarritan entzuten eta ikusten dira. Kontuok berresten dituzten lehenago aipatu hamaika elementu sozial aurki ditzakegu eta ez dute laguntzen gure errealitatea islatzen: gure gorputzek eta neskenek nerbio-sistema bera dute, sentiberatasun bera dugu, min berak eragin bera sortzen digu. Ezberdina dena da min beraren aurrean erreakzionatzeko genero bakoitza nola izan den hezia: mutilok minik dugula adierazten badugu ahultzat hartzen gaituzte, neskekin alderatzen gaituzte, eta hau oso lotsagarria dela txikitandik ikasita gaude.

Izugarrizko presioa dago, arlo honi dagokionez, geure gainean. Adibideak nonahi ditugu, hasi pelikuletatik eta ahozko mito eta heroi gaindiezinen historietatik, segi saltzen zaizkigun iragarki eta marrazki bizidunek eskaintzen dizkiguten gizon eredu hegemonikoekin (popeye eta Brutus, spiderman, Bruce –Lee... zenbaitzuk aipatzearren)... jarraitu kulturetan garatzen diren ohitura eta erritualekin... (hainbat kulturatan ohikoa den zirkuntzizioak honelaxe adierazten du; espero da horren mingarria den ebakuntza mutikoak kexatu gabe gaudituko duela, eta gizontasunaren merezigarri edo garrantzitsutzat hartua izan dadin igaro beharreko trauma du. Neskek ere pairatu behar dute ablazioa hainbat kulturatan;(azken honek ez dirudi beren emakumetasuna frogatzeko ala bereganatzeko egin denik, baizik eta euren burua sexualki plazerraz asetzeko gaitasuna baliogabetu eta gizon plazer-emaileen esku uzteko helburuari erantzun liezaiokeela, iritzi antropologiko batzuen ustez).

Mundurako 'ongi etorri' zail honek, aldez edo moldez, baldintzatu egin dezake mutiko horren minarekiko ikuskera eta bortizkeriaren aurrean kexatu ala hari uko egin ahal izateko aukera. Gaur egun beste esparru batzuetan ikus dezakegu honelakorik: futbolaria lurrera erori bezain laster altxa dadila espero da - "Ez duk ezer izan eta!"- eta bere zereginarekin aurrera segi dezala. Ez da espero emakumeak boxeoa aritzea, hori "gizonezkoen" kirola baita eta. Bi generoen borroka ere nola aurkezten dizkiguten: gizonezkoen artekoak oso bortitzak eta krudelak izatera heltzen dira- bere biziko zartakoak, odola nonhai; emakumezkoen artekoak irri garri gisara aurkezten dizkigute- ileetatik tiraka, bultzadizoak, atzaparkadak... Beraz, mundu sinboliko oso bat dugu gai honen bueltan eraikita, burmuinean iltzatuta, zeinak frogatzen digun hala dela, "gutziz gizona " izateko modu zuzena dela ez sentitzen, ez minik, ez atsekaberik, ez beldurrik, ez emoziorik... (John Wayne edo Humprey Bogart, Rambo, Swatzenager... eta abarren moduko norbait).

Negar edo jaramonik egiten badiegu gure minei *maritxu ala ahulak, ala neskek*, esaten digute, trufa egin diezagukete. Gure gizarteetan ez dira oraindik nahikoa aintzat hartu emozioen adierazpen hauen garrantzia, haien inguruan dauden aurreiritzi sakonen

eraginez. Negarrak birgaitze edo osatze funtzio garrantzitsua betetzen du: ez da ahuleziaren seinale, baizik eta egoera zailen eragozpenak eta alde traumatikoak gainditzen laguntzeko tresna. Oro har jendea zapuzten duten gertaerak, pertsonak gaindituta eta lur jota uzten dituzten egoerak gainditzeko eta iraultzeko giza baliabidea da, gizon taldeetan egiaztatu ahal izan den bezala.

Gure sentimenduak emakumezkoenak bezain aintzakotzat ez hartzeko heziak izan gara, ahuleziaren eta *gizontasun* ezaren seinaleztat hartzen direlako. Horien ondorioz, gure zapalkuntzaren alderik mingarriena sortzen digute: **sentimenak ukatzen, irensten ikasi beharra daukagu eta edukiko ez bagenu lez jokatu**, beti. Honek ahalbidetzen du zanpaketa guregan errotzeko oinarria ezartzea eta, ondorioz, emakumeak zapaltzea gauza handirik sentitu gabe. Zeren eta sentitzeko gaitasunari eutsiko bagenio uko egingo baikenioke beste gizaki bati minik ezartzea, gure sentimenduek ez ligukete baimenduko, ez utziko gizatasunik gabeko eran inor hartzea, tratatzea.

Zoritxarrez, gure heziketaren zati handiena doa gure sentimenak ukatu eta lurperatzea; eta hauek gabe, gizakoia den ereditik nahikoa urrun dauden baloreetan oinarrituta behartuta aurkitu gara gure nortasuna eraikitzaera.

b.-bakarrik uzten gaituzte.

Arlo fisikoan ere bai, baina, batik bat, arlo emozionalean laguntza behar dugunean bakarrik utzi ohi gaituzte; deprimituak, jota, etsita... gaudenean ez da esperokoa “gizon oso” batek horrelako egoeretan denbora ematea, edo pentsatzen da bere kabuz ikasi behar duela egoera horretatik ateratzen, hori gainditzen. Honen efektu bat aurki dezakegu maitasun adierazpenen kudeaketan: mutilen neskei baino gutxiagotan eman ohi zaizkie laztanak eta maitasun keinuak, ferekak, besarkadak ... dezente ohikoagoak dira nesken artean, neskentzat. Ez da uste afektu zuzen honek on egingo diola mutikoari, edo ongi hartuko duela, baizik eta alderantziz, litekeena da “kalte egingo diola”, “bigundu” eta “txolindu” egingo duela...

Uste ohi izan da, bestalde mutilek lehenago eskuratu beharra dutela independentzia; ongi ikusia da neskak baino lehenago autonomo bihurtzea. Autonomo izatea berez onuragarria litzateke baina ez zaie eskaintzen bide horrek sorrarazten dizkien zailtasunak, zalantzak, beldurrak... konpartitzeko, azaltzeko tokirik ala aukerarik. Ez da behar bezain aintzat hartu mutilek ere norbaiten intimitate, segurtasun, babeseta eta arreta behar dituztela. Nahastu izan da autonomia “gauza denak bakarrik egitearekin”. Mutikoek behar baino lehenago “bakarrik uzte” horrek zaildu egiten du mutil batek sentitzea maitatua eta babestua dela, eta zaildu egiten dio era berean jabetzea bera izate hutsagatik mundu honetan dagokion lekuaz, garrantziaz, segurtasunaz eta baikortasunaz.

c.-gure minek ez dirudite garrantzizkoak

Zerbaitetan ari garela, lanean edota jolasean esaterako, mina hartzen badugu, ezer gertatu izan ez bailitzan segitu behar dugula dirudi, gure minak garrantzitsua izan beharko ez balu bezala. Ez da espero jarduera, jokia, zeregina bertan behera uztea. Jokoa, lehia, garaipena, podiuma... sarritan gure sentimenduak baino garrantzitsuagoak dira. Gertaera hau, zoritxarrez, hedatu eta orokortu egiten da arlo sentimentalera, eta esparru honetan ematen diren gertakari gehienak sentitzeko eta sentiberak izateko gaitasuna eragozten du. Horretarako eragingarriagoa dirudi gure minari uko egin eta aurrera segitzeak. Gauza bera

jazotzen da gure bizipen emozionalekin:

d.-gure sentimenduei arretarik ez.

Mina azaleratzen duten gizonez (negarrari ekinez, ala dardarka, esaterako) maiz lotsatzen dira helduak. Hau ez denez *gizon* baten jokamolde zuzena kontsideratzen ez dute ikusi nahi izaten erakustaldi hori. Edozer asmatzen da mutilak negar egiteari utz diezaion: umetan txupetea sartzen zaio ahoan, edo geroago txantaia egiten zaio (ez bazara isiltzen ez duzu telebista ikusiko, ez dizut kasurik egingo...) edo beranduago mehatxatu egiten zaio (ez bazara isiltzen zure aitari esango diot eta orduan emango dizu benetan negar egiteko arrazoirik...) Bestalde, ez da ongi ikusia mutilek, minez daudelarik, norbaiten arreta eskatzea; nahiago izaten da - eta errazago onartzen da- bere gelara joaten bada negar egitera ("pasako zaio memelokeria..."). Ez da bakarrik egon nahi duela, baizik eta nahikoa lotsarazi dutela bere negarragatik, jada ez dela gai inoren aurrean egiteko.

Mutil batek bakarrik egon nahi duenean helduak ez dira asko harritzen, jokabide heldutzat kontsideratzen dute. Aitzitik, arreta behar duela erakusten duenean helduek mutikoa ahultzat edota, nolabait, ezgai ikus dezakete, eta kezkarritzat jotzen dute: ez ote gara gaizki hazten arituko? Minetan gaudelarik jende gutxi gai da hor lasai eta goxo egoteko; atentzioa eskaintzen ez bazaigu, gure mina egiazkoa ez dela pentsatzera jo dezakegu, gerora sentitzen dugunaz eta, ondorioz, mundu sentimentalekiko mesfidatzeko jokabidea beregana dezakegularik.

E.1.2. IZATEZ ERASOKOR ETA BORTITZAK BAIKINEN IKUSIAK GARA.

Portaera bortitz eta erasokorra, umetan jasan dugunaren isla da. Eta jasandakoak mina errepikatzen bultzatzen gaitu . Gutxi dira gizonezkook adieraz ditzakegun sentikizunak, gure gizontasun maila kolokan gelditzen dela sentitu gabe. Haserrea eta amorrua dira sentikizun arloari irekitzen diogun ate bakarrenetakoa. Alde batetik ondo dago gure sentimendu batzuen adierazpena baimentzen digulako. Bestetik ez da onuragarria senti dezakegun sentikizun esparru zabala (pena, tristura, hunkidura, beldurra...) amorru ala haserrearen kodean adieraztean sentimendu askoren murriztea dakarrelako. Horretan ez dugu heziketa egokirik jaso eta ez dakigu haserrea eta gorrota adierazten gainontzekoa begirunez artatzen dugun bitartean. Bestalde *bitxia da ohartzea zein erlazio zuzena dagoen gorrotoa eta haserrea adieraztearen eta sentikizun hauek gure gizontasuna zalantzan jartzeko aukeraren artean* . Ez dute gizontasuna kolokan ipintzen.

Horren maiz erakusten ditugu amorrua eta haserrea ezen arrunta izaten baita jendeak oro har, gu sentimendu horiekin identifikatzea. Bestalde ez zaigu irakatsi amorruaren eta gorrotoaren adierazpenen kudeaketa osasungarria: inor eta ezer kaltetu gabe adieraztea. Beraz, jende askoren gogamenean datzan izen lagun hori bizirik dago: gizonezkoak , a ze astakiloak diren!

Honi gehituko bagenio historiak erakutsi duen alderdia behin eta berriro: pistolez edota gudetan jolasten dira mutilak beren izaera adierazten ariko baliran, kontuan hartzeke hau dela eraikuntza kultural bat - ez besterik- etorkizunerako prestaketa, bereziki herrialde inperialisten dinamika armamentistikoen bidetik doan etorkizun hori.

Aurretik zein bortxazko rol bete behar dugun eman eta ezarri bai, eta haietara hezi eta ohitu arazi ere bai, baina gero ahaztu egiten da prozesu hau eta soilik ikusten dugu curriculum ezkutu horren azaleko emaitza: gizonezkoon bortizkeria, bortxazko jokabidea geure-geurea balitz bezala ikusten da oraindik, egun.

E.1.3. GURE SEXUALITATEAN, BEREZ, KONPULTSIBOAK BAIKINEN GARA HANTATUAK.

“mutilok gauza bakarra nahi dugula ” esaten zaigu behin eta berriz

Badirudi, bai nerabeak bai gizonak sexura gaudela bideraturik, nahitaez, eta inoiz asebate ezinik; animalien antzeko sena genukeela esan lezake batek baino gehiagok alor honetan. Edozer egin genezakeela emakumezkoak sexu jardunerantz mugiarazteko. Beraz, ezin daitekeela gutaz fida. Beste aldetik, eta alderantziz, edozein emakumezko, sedukzioaren bidez, edozer gauza egin dezagula lor dezakeela esaten da. Gizonezkoon izatekoa honelakoxea dela uste ohi da eta, ondorioz, sexuan odolberoak izan behar dugun ideia heldu egiten zaigu gaztetan. Gizon bat honelakoa ez bada, gay-tzat, susmagarritzat, ez-gizontzat... hartzen zen, baina, bestetik, rola jarraituz portatzen bazara gaitzetsia izan zaitezke, “zakil hutsa, olagarroa ala zerria...”. Zenbait arrazoiengatik - eta ez gure izaera horrelakoa delako- bizi dugu gizonezkoak sexua arduraz ala premiaz; kasu askotan gure benetako izaeratik kanpoko arrazoiak dira horretara garamatzatenak.

Gizon askok bulkadaz jokutzen dugu sexuari dagokionean, baina ez berez, baizik eta, sexuan lasaitasunez jokutzen uzten ez duguten zenbait esperientzia pilatu dugulako:

mutikook ez dugu jasotzen, ez elkarrengandik eta ez inguruko pertsonengandik beharko genukeen giza samurtasun eta kontaktu nahikorik, ez behar besteko laztan eta besarkadarik. Aurreiritziek erabakitzen dute mutikoen ez dutela tratu “mimati ” honen beharrik, “zuzen” haziko badira. Ferekak eta laztanak oso eskasak dira beraien bizitzetan, neskei ematen zaizkienekin alderatuta oso murriz, eta horren gosean hazten joaten dira. Gero, hazten doazen heinean pornografia industriak mutil batek zein gustu, eredu eta “maitasun” erara jo behar duen argi uzten dio eta sexua, eduki ez duen maitasun guztiaren ordezkotzat ulertzeraz bultzatzen du. Mutilak sexuari zoratuta ekiten dio, sexu-ekimenak, ustez, beteko balizki bezala dauzkan intimitate, maitasun, hurbiltasun eta elkar ukipen hutsuneak eta beharrak. Lau hitz hauek bai direla ezinbestekoak gizakoiki hazteko, baina ez dira mutikoen hiztegi emozionalean agertzen ia. Hitz hauek ez dute sexuarekin ezinbesteko zerikusirik; baina justu hauetatik ez du mutikoen behar adina jaso. Nahikoa gutxi eta eskas hartu du hauetatik bere hazkuntzan gerora hurbiltasun fisikoa aurkezten duen egora askorekin ez tematzeko.

Nerabezaroan, lehendik arrastaka daramagun maitasun, samurtasun, afektu, hunkipen

-behar naturalak- laztanen falta handi hori asetzeko ez zaigu beste hauturik eskaintzen sexu harremanetik at. Hau berresten eta gogorarazten digute egunero jasotzen ditugun eduki sexuala duten ehunka mezuek (soilik telebista bidezkoak zenbatuta, gehi iragarki, filma, serie, saio eta film pornografikoenak...). Honexegatik, batzuetan “gure onetik ateratzen gara” eta urduri eta konpultsiboki jokatu ohi dugu norbaitengana hurbiltzeko aukera sumatzen dugunean, gure gogamenetan halako aurreiritzi, mezu eta rol banaketa zorrotz eta zehatza edukirik.

Areago, oraindik orain martxan baitago beste gizarte-ohitura hau ere: gure inguruko emakumezkoen edertasunaz balioesten dugu gure burua eta gaituzte, alegia, zenbat eta *gizontasun handiagokoak* izan gu hainbat eta *emakumezko ederragoak eta sexiagoak* izango ditugu aldamenean, edo alderantziz. Hau obsesio izatera hel daiteke, eta etengabeko frustrazio iturri ere bai.

Hedabideek eta abarrek erabiltzen, handiagotzen eta bideratzen dizkigute sexuaren inguruan ditugun fantasiak, ardurak eta lilurak, egoera honetatik sexu industriak sekulako dirutzak irabaziz. Era honetan, zenbait erosgai eskuratuz, edo zenbait jarduera kontsumituz ala praktikaturik- oro har multinazional berberak saltzen dituztenak- emakume ederrak gureganatuko ditugula sinestarazi nahi digute. Gainera, soilik emakume *ederrak* nahigarri direla barnerarazten digute, edertasun eredu horretakoak ez diren gure inguruko emakumeekiko harremanak urritzen, eskasten eta zailtzen ditugularik. Honela, emakumezkoaren gizatasunari baino gehiago bere itxurari begi ematen diogu, modu honetan fisikoarekin zerikusirik ez duen emakumezkoen alde gizakoi guztiaren galera ikaragarria datorkigularik. Homosexualitateak eta homofobiak honetan ere parte hartzen dute, aurrerago irakurriko dugunez.

Gizartean indarrean egon den arauaren arabera, gizonezkoak hartu behar izan du harremanetako inizatiba eta emakumezkoak jarraiki beharra izan dio. Horretan irakaspena gurasoengandik hasi da gehienetan. Betiko mezua da emakumeak sexuan aritu nahi ez duela eta mutilak bai; gutxienez hala ikasi genuen mutilok:

Mutila baldin bazara neska limurtu, erakarri egin behar duzu. Hala eginez gero gizon balekoa zara, “behar bezain arra ”; hala ez baduzu jokutzen susmorako tartea zabaldu duzu. Neska baldin bazara ez duzu erraz. Limurtzen erraz uzten baldin baduzu “errazegia ” zara; zail jartzen baduzu “estua ” zara; zeu baldin bazara limurtzailea “hankatarte berokoa ” zara, emagaldua... Rolak zehatz eta zorrotz mugatuak eta banatuak egon dira hemen.

Egiazkoa zera da: zenbaitetan bai emakumezkoek bai gizonezkoek sexuan aritu nahi dutela eta bestetuetan ez; honen sinplea da.

F. GIZONEZKOONGANDIK ESPERO DIREN OHIKO ROL NAGUSIAK

F.1.-“GIZONEZKOEN MODURA” JOKATZERA BULTZATZEN ZAIGU

Gizentasuna da beti kolokan egoten den zerbait, ez da berezko den zerbaitzat hartzen, etengabe erakutsi eta probatu beharreko baloretzat hartzen da baizik, alegia, gure ekintzek eta jarrerek islatu behar duten zerbaitzat. Gizarteak espero ohi du gizonok gizatasuna islatzen duten rol horiek jokatzeari; batzuetan gizonok gu geu gara elkarrengandik hori espero duguna eta beste batzuetan sistema sexistaren biktima diren beste emakume batzuk. Seme-alaba batzuk ere ohitu dira beren gurasoen sexismoan bizitzen, hezten, elikatzen...eta ez dute gauza ezberdin handirik espero.

Gay zapalkuntzak zer ikusi handia du gizonetzko kaltegarritasun modu hauekin guztiekin. Presioari muzin eginez, eta “gizon ” izateko arau zurrunei bizkar egiten badiegu gureari eutsirik, “gay ” izatea lepora diezakegute, hau da, “ez gizona ”. Arbuioa eta bortizkeriaren bitartez indarrean dagoen araudiari men egin diezaiozun bilatuko dute. Aukera aurrez erabakia ia-ia: “gizon” izan eta gizartearen toki bat eduki ala zapalketa erantsia jaso. Izan ere, gaytzat hartzeko eta iraintzeko edo tratatu txarrak emateko zio nagusiak ez du zer ikusirik sexuarekin gehienetan, *gizon estandar hegemonikoaren bizimoduari uko egitearekin baizik*. Gizarte ia guztietako kolektibo maskulinoaren psikean iltzatutako kode sinbolikoan ikusezin den arau flotatzaile bat da eta puntu gorena harrapatzen du militar eta zigortzaile diren egitura sozialetan. Han izugarri sustraiturik dago. Halako esaldi batek jaso lezake mezu orokorra: “denok izorratuta gaudek; hi ez haiz gutxiago izango ”

Beste zailtasun bat multzo honetan: bereari eutsi nahi izan diotelako eta une batean horregatik jasandako zapalketa erantsia eramanezina gertatu zaien gizonetzkoak ditugu. Bere ekinean gelditzen ez den sistemari men egin diote presioaren presioaz eta beraiek eredu zurrun sexista-matxista eta homofobikoaren defendatzaile eta batzuk igorle sutsu bihurtzen dira, gogor jo ohi dutelarik amore eman nahi ez dutenen aurka.

Zenbat eta kontzientzia gehiago hartu gizarteetan nola pairatzen ditugun rolak eta hauen

eraginak zein diren, gero eta gutxiago eskatzen diogu elkarri rol horiek jokatzera eta errazago jartzen gara kolektibo ezberdinen askapenerako lanean. Talde bakoitzaren zapalketa zenbat eta hobeto ulertu orduan eta aliatuago bilakatzen gara beste taldeen askapenarekiko.

Ikus ditzagun rol hauek eta beren eraginak

F.2 GIZONEZKOEN OHIKO ROLAK

Ezerk eragingo ez baligu bezala jokatu behar dugu: “Sorgorak-gogorak = helduak ”

Gizon batengan okertzat jotzen den edozer sentituko ez bagenu bezala jokatu behar izaten dugu, dela mina, beldurra, lotsa, zalantza, atsekabea... Hainbat sentipen erakuts dezakegu: ausardia, kemena, indarra, logika hutsa, zorrotasun zorrotza... oro har beste sentimen batzuk estaltzera datozen sentipenak, hain zuzen. Ezin dugu negarrik egin; ezin dugu beldurrik erakutsi; ezin gara izaturik agertu, nahiz eta errealtatean horrela egon. Gure gizarteetan sentimendu hauek etengabe agerrarazten dituzten egoerez inguratutako bizirik gara; tele-berriak ikusi besterik ez dago ohartzeko bizirik garen gizarteetan gertatzen diren gauzek zenbat sentimen harro dezaket.

Dena den, itxurari eutsi behar diogu eta ezin gara oso sentiberak, gertuko ala goxoak ager, are gutxiago beste gizonezkoekin, gaizkiulertuak saihesteko. Noiz ikusi dituzu azken aldiz bi gizon elkarri eskua emanda paseatzen? Edo gerritik helduta, edo bata bestearen sorbaldan negarrez? Eta horrela izan bada, zer da burutik pasa zaizun lehen gauza?

Sentibera azaltzea saihestu behar dugu, gure gizatasunak gehien eskatuko lukeen unetan ere bai: oso-oso maite ditugun pertsonen heriotzaren orduan espero da “konpostura” edo itxurak gordeko ditugula eta ez dugula negarrik egingo; denok dakigu honek zer esan nahi duen, emakumeek, neskek eta mutikotxo batzuk soilik negar egin ahaliko dutela. Edo egoera arriskutsuetan ez dugula oilo beldurtien pare jokatu eta gutarrak defendatu eta babestuko ditugula gure bizitza jokoan jarritz, “aitzinean jarrita”, behar balitz.

Ez dago ongi ikusia gure sentikizunak erakutsi ditzagula pertsonak sentimenduei eutsi ezin dieten egoeretan: “norbaitek burua hotz edukitzeari eutsi beharko lioke”; hau beti espero da gizonarengandik.

Bortizak izan gaitzen espero da

Gizonezko ugari jaio ohi gara presio gogor eta zakarpeko giroetan indarkeria zantzu mota eta konnotazioz beteriko harremanetan, “benetako Gizonak” “Gizon osoak”, “Gizon Handiak” heroiak sortzeko setakeria horretan. Gure kulturaren parte da gizonok indarkeria mota ezberdinen lekuko eta ikasle izatea, lehenbizi gure gizontasunaren garatze

prozesuan -sexual mailan- eta gero gure maskulinitasunaren eraikitze prozesuan -genero mailan- elementu zilegi eta ezinbesteko gisan. Gurea dena, ondasunak – “emakumeak barne”, aurrerago ikusiko dugunez- ondra, arrazoiak eta lurraldea... defendatzea indarkeria erabiltzeraino gure “gizonak ” izenpeko ikaspen jardunbidearen baitan kokatzen da, gure maskulinitasuna eraikitzen laguntzen du eta adierazlea izango da nola osatzen garen “gizon oso” bezala. Adierazle hauek berresteko egoitza sozialak aurkituko ditugu, bertan gure gizontasunaren eta maskulinitasunaren maila neurtzeko eta ebaluatzeko pautak gordetzen dituztelarik, arestian aitatu bezala: elkarte jakin batzuk, kirol kolektibo jakin batzuk, taberna jakin batzuk, prostituzio-gune zehatz batzuk, literatura zehatz bat, aldizkariak, programak...

Gizonezko batzuk borrokatu behar izan dugu anaiekin edo lagun hoberenekin gure gizontasun maila frogatu eta berorri gainerako gizonen aurrean eustearren, froga single eta txoro gisa “nahikoa gizon” bagarela, maite genituen gertuko pertsonen merezimendua bilatzeko eta hauen igurikapenak betetzeko zein beren onarpena eta miresmena irabazteko (gure aitek, entrenatzaileek, tutoreek, lagun onek hala eskatuta) eta zenbait elementu femeninoren maitasuna, esker ona, onarpena bereganatzeko ere (gure amak : ... eta beharrezkoa baldin baduk jo ezak hik, seme, lehenbizi! ez haitzatela txoropitotzat har!... edo gure arrebak indarkeriazko egoeraren arriskupean sentitu eta gure atzean babestuta: “anaiari esango diot eta hark berotuko zaitu! Ikusiko duzu!...)

Zenbat aldiz egon gara mutilok murgilduta indarkeriazko giro arbuigarri hauetan, zenbat alditan borrokan aritu behar izan dugun; joak izan ala jotzen ikusi “*bigun*” ala “*erdi gizon, erdi marikoi* ” itxura ez emateko, arbuiatuak eta jipoituak ez izateko, edo gure maskulinitasunaren estatusa mantentzeko ala norbaitentzako garrantzizkoa izateko. Gauza bera mehatxuak uxatzeko gezurrak esan beharrezkin edo gure “gizontasuna ” frogatzeko gure neskalagunei tratatu okerrak eman beharrezkin, edo normalean sexismoak jotako emakumeen arreta gureganatzeko baldintzapean, zeintzuek maite dituzten “beraien buruaz ziur diren gizon indartsuak, babestu eta defendatuko dituztenak ”, euren burua defendatzen ausartu baino lehenago...

Borrokatzeari uko egin dioten batzuek, hartu dute beren taldekideen mespretxua eta bazterketa, agresio fisikoa izan ez denean, eta lagunak beste nonbait bilatu behar izan dituzte. Esperientzia hau traumatikoa izan daiteke.

Bitxia da datu hau: ziber-kafe eta internet guneeetan joko biolentoetan aritzen diren gazteetako 99,99 % mutikoak dira, azken bi urteetan nire hirian behatu ahal izan dudanez.

Ororen Erantzule senti gaitezen hezten gaituzte.

Gizonek beraiek sortutako sistema patriarkal honetan erantzukizun nagusia geuri egokitzen zaigu, gehienetan; gainera hala ez balitz zer edo zer gaizki dabilelako dela uste dugu, ez sistemarekin, gurekin baizik. Denaren erantzule sentiarazten gaituzte, baina erantzule bakardadean eta besteekiko lehian. Eredua aitengandik eta haien aitengandik jaso dugu: lidertzan ikusten ditugu, laguntza eskatzeke, lanean tinko eguzkiz eguzki, ardurat hartzeak eta arrakasta izateak gauza denak bakarrik egin behar izatea ekarriko balute bezala. Dena eduki behar dugu kontrolpean, bestela zerbait gaizki ari gara egiten, eta ez dugu behar beste balio sistemarako. Ondorioz, gutariko batzuek jo eta su aritzen gara, lehertu arte, dena geure kabuz egin nahian, laguntza eskatzea gizon batek egin behar luken azken gauza balitz bezala, edo gure ahaleginari balioa kenduko balio bezala. Beste

batzuok, nazkatuta, beste muturrera jotzen dugu eta uko egiten diegu ardurei, era zurrun edo anarkiko batez, hau erantzunik zuzena eta egokiena delako ustea izanik.

Lan-Makinak: *lantokietan ere deshumanizatu egiten gaituzte.*

Ekonomia arloan ekoizten dugulako gara garrantzitsu, honek arlo publikoan eragina duelako, etekin iturritzat hartzen gaituztelako. Badirudi guretzako garrantzitsuena lana dela; izan ere, gizon bati beretaz galdetzen badiogu, ziur aski, bere lanari buruz mintzatuko zaigu. Alegia, *egiten dugun adinakoak izateko* hezi gaituzte. Ondorioz, lanik gabe ezertxo ere ez, inortxo ere ez garela iruditzen zaigu. Esan liteke gutako batzuentzat lana dela -eta historian beranduago, ikasketak, klase sozialaren arabera- geure identitatea eta gizarte irudi onargarria sostengatzen dutenak.

Lana izango dugun segurtasun eza honek gutaz aprobetxatzeko bidea ematen du; izan ere, lanik gabe, daukagun dena –hau da, garen guztia- gal dezakegula iruditzen zaigu eta egoera hau ekiditeagatik edozer egiteko prest geundeke. Langabezia tasa altuak, gure lana egiteko prest dagoen norbait beti egoten dela diosku, beraz, sistemari hortzak erakustea arriskutsua dateke.

Bestalde, etxerik gabekoen kopuru handiak, jendeak lanik aurkitu ezin izateak gure gizartea lar kezkatzen ez duela erakusten digu. Bai gizonezkook bai emakumezkook horrela erabiltzen gaituzte lan batzuetan, baina gizonezkooi presio handiagoa ezartzen zaigu, *“lan egitea eta familia mantentzea ezinbestekoa baitugu gizonezko izango bagara ”* leloak gure kode maskulino hegemonikoan indarrean darraien bitartean.

Bitarteko Material Iturri: *Helduaroan mintzen jarraitzen gaituzten erak.*

Aurrez zehazturiko funtzio batzuk bete behar dituen izakitzat hartu izan zaigu: sortzaile, ekoizle, babesle, hornitzailetzat... Oro har: diru-iturritzat eta aberastasun sortzailetzat; etxean segurtasun ekonomikoaren ezarletzat eta behar izan materialen hornitzailetzat... batzuetan, inozoki, sentitu gara etxeko inor baino garrantzitsuagoak funtzio hauengatik.

Guda garaian, berriz, armatzat hartzen gaituzte; hiltzeko ala erailtzeko prest egon behar duen aberkidetzat, dela aberriagatik, dela politikagatik, edo ideia baten alde, buruzagi baten alde (bizkartzainak), enpresa bat (zaindariak), herrialde bat, nazio bat, ikurrina bat, gasbide bat edo beste edozeren alde delarik ere.

Egin dezakegunaren arabera baloratzen zaigu eta zeregina amaitzerakoan gure balioa iraungi egiten da eta berriro frogatu beharra daukagu balio dugula beste lanen bat hartuta. Antzeko esaerak defini lezake egoera hau: Ekoitzi ala sobera hago..

Itxarobide eta Igurikapen Irrazionalen iturri

Sarri, gu geu, gizonezkook, gara itxarobide hauek beraiengandik, gainontzekoengandik, eta gure buruarengandik espero izaten ikasi dugunak. Kasu batzuetan sexismoak jotako emakumeak dira itxarobide hauek barneratu dituztenak.

Geure familia mantentzeagatik ia-ia hiltzeraino lan eta lan egin dezagun espero izan da. Ekoizpenean arrakastatsu eta gure aitak baino hobeto egin dezagun espero izan da guregandik, baina zaila da hori sistema ekonomiko honetan. Gizon batzuk gizontasuna honela ulertarazirik, sistema kapitalistaren akatsei dagokien porrotaren zama eraman behar

izan du, berea bailitzan. Bera sentitzen da porrota, bere barrenean.

Itxarobideekin gauza bera gertatzen zaigu: gauza asko espero da gugandik eta itxarobideok oso altu jarri zizkiguten. Hauek ez betetzea -arruntena, noski- gure porrota bailitzan hartzen dugu batzuetan. Horretaz gain, porrota gu garenaren ideiarekin nahasten dugu, eta gure bizitzak ikuspegi eskas horretatik antolatzen dugu. Ez da arazoa igurikapen guztiak ez betetzea; arazoa da hori ez betetzea arazoa dela pentsatzea.

Gizonezkoak = Sakrifikagarriak

Arestian esan bezala, gizonezkook hartzen dugu mezu hau: gizateriaren zati sakrifikagarriena izatea egokitu zaizu. Gudetara gizonezkook joaten gara gehien batean, hil eta erailtzera eta ondorioz haur eta emakume eta ume andana hiltzen da, gehi gizon kopuru izugarriak. Ekoizpen eta hurrupaketa besterik nahi ez den lantoki, meategi eta honelakoetan pilatu izan gara gizonezkook, bizi baldintza onartezinetan, gizon baten ohorerik gorena zerbaiten alde bizitza ematea den ideiaaren inguruan. (txikitan gure sendi-sendagileak heritza aurkitu zuen X izpiez umeak behatzen zituelako. Bere pediatria gabinetean heroitzat hartua izan zen, hileta elizkizunetan aipatu zen bezala, lan sistemaren segurtasun akats larritzat hartu ordez).

Gure bizitza arriskuan jarri behar edota besteena akabatu behar den kasuetarako, gizonezkooi deitu izan digute, nagusiki. Alde batetik, ordezkagarriak eta suntsigarriak gabela dirudi, emozionalki ez dugula erreakzio handiegiak edukiko eta, bestetik, bestetzuk hiltzeak edota gure kideak hiltzen ikusteak ez digula bereziki eragiten ala hainbeste axola uste ohi da, kontrola ez dugula galduko edo... Gudatik datozen soldaduek, gehienez, omena besterik ez dutela behar uste da, gehienez ere soinu banda bat eta ongiatorri on bat domina batekin, hilak edo urteak erailtzen zein hiltzen ikusten emateak guregan aparteko eraginik izango ez balu bezala, edo behinik behin, gure bizitzetan eragin anormalik izango ez duelako ustearekin. Besterik diote beteranoen trastorno psikologiko larriek edo buru botatze tasek.

Sexu Konkistatzaileak izan gaitzen espero dute.

Beste gizonen aurrean gure *gizontasuna* frogatzeko ohiko eratako bat sexu arloan arrakasta edukitzea izaten da; alegia, *gizon gisa aintzakotzat* har gaitzen sexu mailan konkistak lortu behar ditugu. Aurkako sexudunekin, jakina. Maitasun harremanak ez dira hainbeste balioesten, ez dira horren garrantzitsuak; kontuan hartzeak sexu abenturak, balentriak dira. Hori dela eta, nerabezaroan, gutxienez emakume batek sexu mailan gu erakargarritzat ala asebetegarritzat jotzeak berebiziko garrantzia hartzen du guretzat, zeren honek errazten baitigu gainontzeko gizonezkoek aintzat eta seriotan har gaitzen, gizontasuna erakusteko egin behar dugun eguneroko borrokaldian irabazlea izatea. Ez da bultzatzen harremanaren kalitatea, kantitatea baizik, gure nerabezaro osoan zehar aditu ditugun eta irakurri ditugun zabor-hedabideek eta literaturak agindu bezala. Benetan liluratzen gaituzte emakumeekin ongi moldatzen dakiten mutil lirain arrakastatsuek: "nola arraio egingo dute, zere san edo egingo diete neskei?"

Behin konkista burututa hurrengo rola da aktibo, zehatza eta zuzena izatea sexua

kudeatzerakoan: Koito-zentrismoa.

Sexualki Konpultsiboak

*Jakín berria dugu, eta gero eta argiago azaltzen ari da, gutako uste baino gehiagok sexu abusua edota bortxaketa nozitu duena, umetan. Orain artean datu hau ezkutuan izan da, arrazoi ezberdinengatik. Batetik, denbora luzea behar izan delako gizon taldeetan gai delikatu hau azaltzeko beharrezko konfiantza ezartzen; bestetik, dituen inplikazioengatik bazter egin nahi ohi den gaia delako (bortxa emaileak nor diren, hauen gizarte klasea zein den eta zein kasu kopuru handia den...) eta, bestetik, jasandako minaren berezko ikusgaiztasunagatik, gehienak haurtzaroan gertatu zirelako eta sendien beraien barruan, askotan.

Dirudenez, hamar gizonengandik erdiak baino gehiagok jasan izan du sexu abusurik, batez ere gertuko giroetan (sendia, auzoan, lagunak...). Sexu bortxaketa pairatu duten gizonezko asko beraien oroitzapenak ezkututzen saiatzen dira; beste asko edozelan ere jasandako sexu-ihauleraz -tratu txarraz- konturatu ere ez dira egin gehien konfiatzen eta maite duten pertsonengandik etorri zirelako; honek zailtzen du txarkeriatzat jotzea; edo

*Herrialde hainbateko gizon taldeetatik jasotako datuak

zeharo ahazteraino eraman dute oroimenean, horrekin bizitzea umiliagarriegia eta nahasgarriegia zelako. (Dez Willwood. Australia.1995)

Dena den, gertaera hauek ezkutuko zein ageriko aztarnak uzten ditu biktimengan. Nola gertatu ziren (maiztasuna, bortizkeria maila...) arabera biktima bi muturretan kokatuko da: oldarkorra bortxarekiko ala geldokorra edo lekuko izoztu eta mutua. Honek azal dezake sexua lasaiki zein erreflexiboki gozatzeko dugun zailtasunaren zati bat.

Hauexek, besteak beste, lirateke gizonezkook eutsi egin ditugun rol nagusienetakoak eta egun indarrean darraitenak, gutxi gorabehera, lekuan lekuko berezitasunak eta aldaerak badirelarik.

Orokorrean, emaitza ala ondorio antzeko samarrak uzten ohi dituzte gu guztiongan. Aroak aldatzen doazen heinean zapalketa ere moldatzen, berregokitzen eta itxura eta alor berriak hartzen doa: gero eta gehiago bilatzen ditu emakumeak sistema kapitalista honek, gizonezkoak zapaldu dituen era berean zapaltzeko eta etekinak ustiatzeko.

Ikus ditzagun, segidan, ondorio horietako batzuk:

G.-ZAPALKUNTZA HONEN ERAGINA PENTSATU, SENTITU ETA JOKATZEKO GURE ERATAN

Gizonezkook ez gara berdinak, beraz, segidan azalduko duguna gizon batzuei egoki lekieke beste batzuei baino zehatzago, bestetzuei ez horren zehazki, ordea. Hala eta guztiz ere, honakoak dira zapalketak gudan dituen ondorio komun samarrak:

BARNERATURIKO ZAPALKUNTZA ALA AUTO-ZAPALKETA

Barneraturiko zapalketa oso zehaztapen interesgarria eta garrantzitsua dugu: zapalketa bere horretan iraunarazten duen agia (fenomenoa). Ondo ulertzen baldin dugu lan esanguratsua burutu genezake sexismoa igortzeari oztopoa jartzerakoan. Bi hitzetan laburturik: zapaldutako pertsonak, berari egokitu zaizkion rolak horren sistematikoki eta ekinez ezarri zaizkio, behin eta berriz, ezen iristen baita une bat berau bakarrik bere burua behartzen duena rol hauek burutzera, nahiz eta kanpoko eragile ala inoren eraginik ez egon, ez eta beste inolako kanpoko baldintzapenik, une horretantxe. Ez da kanpoko adierazlerik, seinalerik behar rol horiek bete ditzan; bere kabuz, berau bere buruaren zapaltzaile bihurtu da eta, jakina, era berean, zapaldiriko bere taldeko kide guztien zapaltzaile, gehi zapaldu behar duen taldearena.

Geurekin erabili diren jarrera eta jokabide mingarriak konturatu gabe gureganatzearen ondorioz, geure burua eta gainontzekoak jokabide horien mende jartzea da. Esan nahi baita, elkar zapaltzen gabilta: ez dela zapaltzailearen irudia beharrezkoa gure artean elkar zapaltzen jarrai dezagun. Sistemak eramaten gaitu gu geu geure zapalketaren igorle eta burutzagile izatera eta berau bete nahi ez dutenekiko "sistema zapaltzailearen polizia lanak" egitera. Une honetan sistema kapitalistak atsedean hartzen du eta "eskuak igurzten".

Honegatik, askotan, elkar zanpatzen dugu, gure liderrak kritikatu eta eraso ditzakegu, zapalketatik ezberdinak diren ideiak dituztelako, edo zapalketaren aurkako proposamen ala asmoak dituztelako, gure askapenaren aldeko ideiak, hain zuzen. Beren hutsegiteengatik ere kritika ditzakegu, aurrerago ikusiko dugunez.

Homofobia

Homofobiaren fenomenoak –zeinaren bidez gizonezkoek beste edozein gizonekiko ikusezina, gorrotoa garatzen duten- haztegia aurkitzen du gure zampaketan honetan: “behar bezalako gizona ” ez izateagatik lotsagorritu eta lotsarazi gaitzake zampaketaren mendean egon nahi ez duen eta hari aurre egiten dion gizonak; gure ezintasuna ekar diezaguke gogora, gure amore ematea eta zapalketaren onarpena. Zampaketa onartu ez duen gizonak ezberdintasuna markatzen du eta honek arriskua ekar diezaguke, denok berdin izatean segurtasuna topatu nahi genukeelako.

Bestalde, gizonekiko gaiki jokatzten duten gizonez ere lotsatu egiten gara hori okerkeria dela jakin bai baitakigu.

Honek eragin ezkorra du: Eragin dezake beste edozein askapen mugimendurik euskarrizten ez uztea guri behar bezala, itxaropenik gabe bazter uztea edozein aitzakia balioetsita, atera ezin gaitzkeen zapalketa honetan murgilduta jarraitzeko, eta, gainera, gure egoeraren erruduntzat jotzera jo dezakegu zampaketa ametitu nahi ez dituztenekiko. Honetan sustraitzen da homofobiaren ardatz nagusienetako bat.

Hau dena ez sentitzearren gu ez garen beste inor izaten saia gintezke, eredu ospetsuak, heroi sonatuak bilatzen imitatu ahal izateko, gu garena ahazteko. Lehertu arte lanean ihardun araz gintzake, oso tipo jatorrak garenaren itxurak eta plantak eginik; alkoholean edota beste edozein drogatan ezkutarazi, itoarazi porrot hau ez sentitzeko. Etsipenak menpera gintzake eta beste denak mendera ditzan desio, gainontzekoengandik ezberdin senti ez gaitezen. Horrelakoetan guztietan, barneraturiko zapalketaren atzaparretan geundeke.

Isolamendua eta Etsipena

Gizonezkoota askok barneratu egin dugu zapalera hau. Iruditzen zaigu gu bakarrik izan gaitzkeela hain okerrak, hau dena guri bakar-bakarrik gertatu zaigula, merezi genuelako (barneratu zapalketaren beste ezaugarri bat). Bakarrik eta isilean eraman ohi dugu kezka hau. Ez dugu nahi inork jakitea hau gertatzen zaigula. Honela, geure buruarengandik banantzen gara arrazoi nagusi batengatik: “ nahiko *gizon ez garenaren*” *sentsazio etengabe hau*, batetik, eta bestetik, besteei min ematen dien gure *alde ilun hau* gorrotatzen dugulako. Horrez gain, gizonengandiko bortizkeriaren mehatxuak, gay zapalketak, homofobiak eta gainontzeko gizonezkoek jendeari mina egiten diotela jakin eta ikusteak sortzen dizkigun nahaste, zaputz eta kamusadak (desengainuak) gainerako gizonezkoengandik banan gaitzakete. Bestalde, emakumeak gutxietsi ditzakegu gure gizontasuna frogatzeko ariketa zentzugabeetan; haiek kaltetzera eramaten gaituen baldintzamenduak berak beraiengandik bereizten gaitu ere eta ez dakigu zer egin, nola eten borobil amaigabe hau. Azkenik, haurrengandik ere ez gara nahi bezain hurbil kokatzen eurek ez dutelako ulertzen gure jokabide arraro eta gorabeheratsua eta ez dute beti gogoko.

Honi buruz hitz erdirik egiten ez dugunez zapalketaren aurrean uste ohi dugu amore eman dugun bakarrak gu garelako. Lotsatuta senti gaitzke pertsona kaskarrak eta

menderatuak izateaz. Ondorioz, ez dugu pentsatzen inork gure ondoan denborarik eman nahi lukeenik; bakarrik eta itzalita sentitu ohi gara horrelakoetan. Honetaz guztiaz hitz egitea lotsagarria zaigu, beraz, nahiago izaten dugu bat ere garrantzirik ez duten gauzetaz mintzatzea, gure egoera zein den gogoraraziko ez diguten arinkeriaetaz: futbola, autoak, ekintzazko filmak, dirua, kirolak...

Sorgortzea

Gure sentimenduak ezkutuan edukitzen ikasi beharrak sorgortu egiten gaitu maiz, eta sentiberatasun eza nabarmena garatzera eraman ohi gaitu; honek nahastu egin dezake gure ondoan bizi den edonor. Gure sentimenduak agerrarazteko aukerarik ezean, gutariko askok beraietatik alendu beharra izaten dugu eta ez sentitzeko ohitura hau errotik bereganatzen dugu eta defendatu. Zer sentitzen dugun galdetzen digutenean ez dugu erraz erantzuten eta kostata egin beharreko ariketa suertatzen zaigu, sarri gure erantzun okerrak emakumeak zapuzten dituelarik eta baita gure egoeraz interesa agertzen duten gizonak ere. Honen ondorioz, berriro ere jo ohi dugu gure sentimenduetatik bereiztera, gure barnean gertatzen ari dena ezezaguna, arrotz, urrun... bihurtzen ari zaigularik, lur labain... hobe ez zapaltzea. Gutako asko honela ibiltzen gara sarri eta besteekiko harreman sakonik nahi ez izatera bultzatzen gaitu; harreman arloa nahasgarri eta zingiratsua bihurtzen digu, ulertzen zaila eta azaltzen zailagoa. Korapiloa gero eta handiago bihurtzen doa adinean aurrera joan ahala. Askotan nahiago izango dugu azalean ibiltzeko harremanik.

Geure buruari buruz argi pentsatzeko oztopoak

Arestian aipatu eragin hauek eraman gaitzakete geure buruari buruz argi zein ongi ez pentsatzera. Ez gara berehala ohartzen gure bizimoduaren nahaste-borrasteaz eta zailegia egin dakiguke hori argitzen saiatzea. Beharbada, honengatik izaten da gizonezko batzuk nozitzen dugun *bizitzaren erdialdeko krisialdia*, adin horretara heldu beharrik ez dagoen arren krisian egoten hasteko. Dirudienez, sasoi horretan zer nahi dugun eta egiten gabiltzana zergatik egiten ari garen ez dakigula ohartzen gara – lehenago ere ez genekien oso ondo zertan ari ginen- aldamenekoek horretaz hausnartzera bultzatuta edota behartuta, batez ere gure une horretako bizikideak, eta bizitza alferrikaltzen ari ote garen izuak harrapatzen gaitu. Era berean, inortxo ere lehenago konturatu ez eta lagundu ere egin ez zaigulako, haserrea pizten doakigu, gure ondokoentzat ulertezinezko jarrera eta erreakzio kaltegarri ugari ere bai. Guk geuk ez dugu jakiten sumin honen jatorriaz, baina hura estaltzea zaila suertatzen zaigu zenbait unetan eta lehertu egiten gara pertsona, animalia, objektu errugabeen kaltetan.

Mendekotasunerako joera

Gure sentitzeko gaitasuna atxilotu eta beroriengandik urrundu beharrak gai, substantzi eta jokaera menderatzaileei atxikitzea errazten du. Sentimenduok hertsatu beharrean gabiltzala, beroriek moteltzen dituzten alkohola edota bestelako drogak hartzera jotzen dugu. Substantzia hauei esker errazago egiten zaigu sentikizun horiek saihestea, kudeatu

eta antolatu ordez, sentimenduak lokartuta edukitzeak irtenbidea ekarriko duelakoan. Behinik behin, erosoago eta errazago zaigu sentikizun horiek sentitzea baino ekiditea.

Mendetasuna garatu egiten dugu orduan, eta berarekin batera gure osasunaren gainbehera. Osasun fisikoa zein psikikoa. Ez dugu gure burua zaintzen eta batzuetan norbaitek ohar bat eman behar izaten digu gure burua zain dezagun: hi, ez al huke sendagilearengana jo behar? Hi, bizar egin eta txukun ezak hire burua pixka bat, ez? Hobeto jan behar huke... Gutxiago erre behar huke...

Substantzia hauetaz gain adikzioa aurkitzen dugu beste gai batzuekin gure arduraren hauetatik alde egiteko: telebista, internet-a, liburuak, kirola, txikiteoa, lana eta ordu estrak... Ez diogu gure osasunaren arduraren gure esku egoteari guztiz heltzen.

Handikeria

Gure baldintzapen-zapalketaren zehar pairatzen ditugun kritika eta gehiegikeriak direla-eta, dauzkagun oztopoak aitortzea gero eta zailagoa suerta dakiiguke. Baldintzapen horren oroitzapenak bizirik dirau gure gogamenean eta izutu egin gaitzake. Tratu txar haiek berriz gerta daitezkeela pentsatzeak beldurtu egiten gaitu. Gertatzen zaigun guztia gertaturik ere, oraindik espero da igurikapenak beteko ditugula eta presio honek eraman ohi gaitu itxurak egiten jarraitzera igurikapen horiek mantentzeko, nolabait, nahikoa itxura sinisgarria ematen badugu, agian gutaz ahaztuko dira eta ez digute egur gehiago emango.

Itxurakeria honetan hutsegiteak zuritzen saiatzen gara sutzuki, alferrik dela sarri badakigun arren. Akatsak estaltzeko, neurria ematen ez dugula ezkutatzeko, "zarata " egin ohi dugu gizonok. Era ezberdinak ditugu zarata ateratzeko; bakoitzak berea garatzen du:

- batzuk oso ozen eta ziur hitz egiten dugu gauzetaz, dena bageneki bezala
- batzuk ez dugu inoiz ezetz esaten
- beste batzuk ez dugu sekulan ezer galdetzen, inork ikus ez dezan ez dakigula
- beste batzuk ez dugu txintik esaten; bakar-bakarrik keinu eta adierazpen interesgarri batzuk egion edo ahoskatzen ditugu itxura interesgarria emateko
- beste batzuk areagotu, exajeratu egiten dugu; nahastu egiten dugu lortu duguna lortu nahi genukeenarekin.
- beste batzuk gauza denei garrantzia kentzen diegu,
- Batzuk leku guztietan eta inon ere ez egoten gara batera
- Bestetzuk kontatzen digutena jada bizitu eta ezagutu dugu aspaldian. "Niri kontatzen al didak/n?"

Zarata era hainbat, gure gabeziak gandutzeko, ezkutatzeko.

Ez gara erakutsi nahi dugun bezain onak. Hauek denak ez dira gugandik ihes egiteko erak baino; benetako gaitasunak baloratzeko irizpidea galtzen dugu sarritan. Hau dena da gauden tokian gaudela onartzeko egin behar dugun apaltasun ariketari txiri egitea litzateke,

behar ditugun baliabideak behar ditugula onartzeko eta eskatzeko ariketa beharrezkoa. Heldu behar diogu orain gauden egoerari eta baliabideak eskuratu hortik ateratzeko.

Hurkoari beldurra, mesfidantza

Orokorki, besteak beste, bi sentimendu kontrajarri eramaten ditugu aldean gizonezko batzuk: alde batetik, hurbiltasuna nahi dugu, besteekin egiazko giza hurbiltasuna. Bestetik, ordea, beldur diogu hurbiltasunari. Gertutasun horretan gure barruko sentimenduak eta nahasmenak agertuko dira orain ala gero eta hauengatik arbuiatuak edota kritikatuak izateko herabe eta beldur izan gaitezke. Gure barnean, jakitun gara ditugun hutsunez zein sentsazio gaiztoez eta, horiengatik, ez dugu beti gogoko gure burua oso erakusgarri jartzea. Gure akatsen bat azaleratuko duen zerbait gertatzeari beldur eduki diezaiokegu. Gertuko harremanetan (urruti dagoen norbaitek, gurekin egunero dagoen norbaitek baino eragin txikiagoa eduki lezake, orokorrean) da min gehien egin zitzaigun egoera eta honetantxe da, hain zuzen, gure ezintasun, zailtasun eta gabeziak errazen azalera dakizkigukun unea, eta honek gainerakoengan zer pizten duen badakigunez, ez zaigu hurbiltasuna erakargarri suertatzen beti.

Lehia

Alor anitzetan norgehiagoka ibiltzera bultzatu zaigu. Esaterako, gutako asko kiroletan aritzen gara lehian. Ez da nahikoa kirola egitea: “kirolean *garaitzea ez da dagoen dena, ... dagoen bakarra baizik*”. Kirola ez da gaitza berez, baina sarritan gure gizontasuna neurtzeko beste jardueretako bat izaten da. Besteak baino hobeak garela erakutsi behar izateko presioak mehatxatu egin gaitu esparru askotan, kirola dela, lana dela, artea dela, maitasuna dela... eta gure kideen arrakastari beldurrez begiratzen genion. Egiatan, guk aurrera egin ezin dugun horretan besteren batek aurrera egiteak gutxiespen sentimendua ekarriko digula iruditzen zaigu, “neurria” ez dugulakoan guk emango, beste batek baizik. Ildo honetatik, norbaitek gairatzen gaituela ikusten dugunean, kritika erabiltzeko joera izan dezakegu gure burua zurrizteko, harekiko sentsazio hauek estaltzeko: galtzaile, “inor ez izatea”, “inor baino gutxiago izatea”. Gurekin batera lan edo bestelako jardueran guk baino txukunago dihardutenak maiz izan daitezke gure kritiken eta erasoen jomuga.

Lidertza postuak hartzen dituzten pertsonen aurkako kritikak

Zuzentzeko joera gara dezakegu, bai gizon bai emakume izanik ere, gauzak aldatzeko beraien ahalegina aitortu beharrean. Zapalduko talde guztiek bezalaxe, gizonezko batzuk ere gure aitzindariari eraso egin diezaiokegu, dauzkan akatsak nabarmendu, gutxietsi, batzuetan haien aurka antolatu...eta zaila zaigu onartzea gu lagundu gaitzaketarik. Ahul ez dugu sentitu nahi, ez dugu gutxiago izan nahi, baina harrokeriak batzuo gainezka egin gaitzake batzuetan.

Sarritan nahastu egiten dugu baten arrakasta norberaren porrotarekin. Ez zaigu

iruditzen “podium” -ean birentzako lekua egon daitekeenik. Akatsak bai, ikusten ditugu; aitzitik, irabazleek islatzen duten garaipena ez dugu gogoan beti eduki nahi izaten. Oso erraza dugu burugogorak izatea eta laguntza izan litekeenari sarri uko egiten diogu, norbaitek irrikatzen dugun hura eskaintzen digunean, zeren, laguntza behar dugula onartzeak interpretatzen dugu gu gutxiago, okerrago, ergelagoak garela esan nahi duela, badela gu bezain ahula, traketsa ala kaskarra ez den beste inor. Ez gaude ohituta pentsatzen podiumean bi pertsonarentzako lekua egon daitekeela; ez da apaltasuna eta asertibitatea asko azpimarratu zaizkigun baloreak.

G.1 SEXISMOA ETA BERE ROLEN JOMUGA DIREN BI ALOR GARRANTZITSU: AITATASUNA ETA INDARKERIA GURE HARREMANETAN

Beste batzuen artean , hemen azalduko ditugu sexismoari aurre egiteko aintzakotzat hartzeko diren bi arlo.. Batetik jasan dugun eta ekoizten dugun indarkeria eta honen eragina gure harremanetan eta hauetako pertsonengan; bestetik aitatasuna. Denbora pixka bat eskainiko diegu bi arlo hauei bertan jokatzeko ditugun hainbat rol agerian uzteko. Hala, agian, ohar gintezke errazago egunean zehar zein rol jokatzeko ditugun alor hauetan eta bertan behera uztea errazagoa izan liteke.

Aitatasunean aurkitu dugu sexismoaren eragin nabarmengarria. Kontuan hartzen badugu gurasoak direla beren seme-alaben jokabideetan zein identitatea eraikitzean eragin zuzena eduki dezaketen pertsonak, garrantzitsua deritzogu zein eredu igor diezaikegun behatzeari, eta gure jokabideak pixka bat aztertzea ea horretan zein eragin eduki dezaketen. Sexismoa aurrezaintzeko bidean beste adreilutxo bat, behar bada. Gurasoren batengan argi izpi txiki bat piztearekin pozik geratuko ginatke.

G.1.1AITATASUNA IKUSLEAREN ROLA

Gure aitak eta haien aitonak behatu beharko genituzke une batez. Honela ikusi ahal genuke zein izan diren haiengandik gugana heldu zaizkigun sexismoaren ardatz nagusi batzuk, zaintza eta arretari dagokienean, aitatasun testuinguruan; egun, kasu askotan martxan iraun lezakete gudan.

Gutako batzuen aitek jasan eta gauzatu zuten indarkeriaren zatiak gugana iritsi dira meteorito baten puskak bailiran: jo duten tokian aztarna utzi dute. Beraiek zituzten gauza on askoren artean, baziren, halere, sexismoaren adierazle indartsu batzuk. Ikusi genituen gizon haiek beren emakumeak eta seme-alabak maitatzen, defendatzen, hornitzen... gogo asmo osoaz. Baina tamalez ikusi genituen ere gaizki tratatzen, bai hitzez, bai ekintzez; inoiz ere ikusi genituen burua galtzen, etsitzen, haserretzen eta aztoratzen, jakin ez genuelarik zein heziketa mota jasan zuten eurek halako gauzak egitera iristeko.

Hazten ari den haur batentzat izutzekoa da gertakari horien lekuko izatea; gehien maite dituzun eta miresten dituzun pertsonak harreman gatazkatsu haietan ikustea eta gatazka horien emaitzak hurbiletik bizi behar izatea bizipen zaila da edonorentzat, eta bereiziki, haiek bezalakoak izateko prestatu behar duten umearentzat. Gutako aita batzuk hori egin baldin bazezaketen gizaki batekin eta ni gizaki baten antzekoena naizenez... nirekin ere egin zezaketen gauza bera. Egoera honek haurra mesfidantza, beldur, nahasmen eta segurtasun ezaren eszenatoki batean koka dezake eta prestatu egoera hauen aurrean erantzun mugatuak eman ditzan. Hona hemen belaunaldia bati jaso eta hurrengoari indarkeria mota ezberdinak igortzeko -era batera edo bestera- aukera aurkezten duten adibide batzuk:

- edo haien aurka jo, eta haiengandik ahalik eta desberdinenen izaten saiatu, emaitza berberak ala okerragoak jasateko arriskuarekin ala
- tratu txarra ikusi ahala irentsi, barneratu eta isiltasunean gordetzen ikasi, norberari gauza bera egin ez diezaioten itxaropenaz.
- “benetako gizona ” izateko baldintzapenaren emaitzaz haien portaerak eta jokabideak imitatzeko prestatutako mutila izan,

besteak beste.

Gizonezkook gizon taldeetan gure aiten eta hauen aiten ala anaien...portaera behatzen eta guregan zein emaitza izan duten aztertzen hasten garenean gure eskura jartzen ari gara indarkeria eta matxismoa baliogabetzen hasteko tresna garrantzitsuak. Honekin batera ulertzen has gaitzake gure aitak eta aitonak zerk bultzatu zituen hala jokatzera eta beraien emazteengan eta seme-alabengan sortutako emaitzak hobeto ulertu eta interpretatuko ditugu, hala nola geurenak ere. Era berean, gaur egun, gizon bezala gure borrokak eta gure bikoteen, emazteen eta seme-alaben borrokak zein diren eta zergatik ematen diren gehi kateatzen gaituzten indarkeria eta jokabide sexistak antzeman, ulertu eta hobeto desegin ahal izango ditugu.

Ulertzer iritsiko ginatke gure arbasoek ezin izan zutela gauzak hobeto egiteko aukera askoz handiagorik, bitarteko nahikorik eduki eta gu gauden egoera baino dezente zailduagoa izan zutela. Ez da harritzekoa izaten, puntu honetara heldurik, beraien maitasuna argiago sumatzea, ohartzea eta baloratzea. Ez genbiltzan oker hanka sartzen zuten guraso haiek erruz maitatzea erabaki genuenean. Bizitza eta bere aukera guztiak ahalik eta zabalenera eta muga zentzugabeetatik urrunera eramaten saiatu ziren eta ... hemen gaude gu, horri esker.

Zentzuzkoa litzateke pentsatzea, beraz, belaunaldi bakoitza hurrengo belaunaldiari berak jasotakoa baino kalte gutxiago igortzen saiatzen dela; ez agian kasu partikular guztietan, bai, ordea, orokorrean.

Hala eta guztiz ere, “meteorito ” horiek, portaera haiek, gudan aztarna utzi dute. Egun marka hauek bereiztea eta antzematea ez da erraza suertatzen, ez ditugu egun gertatzen zaizkigun gertaera eta egoera gatazkatsu eta sexisten nahasmenarekin lotzen zuzenean, beste gauza batzuei egozten diegu errua, eta honek irtenbidetik lekora gaitzak gure sexismoaren aurkako lanean.

Maitasuna eta axola erakusteko zailtasunak

Eragin handi horietakoen artean bat argi iritsi zaigu gaurdaino: pertsonetikiko, gauzekiko gure axola, gure maitasuna, gure eskerrona eta samurtasuna beraiekiko, ardura... erakusteko zailtasuna. Gure artean elkar nola axola dugun erakustea zaila, ezeroso - batzuetan ia- ia arbuia garria- suertatzen zaigun arloa da. "Benetako gizon" gisa hazteko baldintzapenaren muina, besteak beste, sentimendurik edo emoziorik ez sentitzea da, edota sentitzekotan, hauek ez adieraztea; edota adierazteko zailtasunez, nekez eta gogoz aurka aurkeztea, berehala pasa beharreko zerbait desatsegin gisara, azkar, motz eta "zaratarik gabe eta formei eutsiz".

Batzuetan galdetu izan diot nire buruari norainoko eragina izango zuten txikitzen gure gurasoek egitera behartzen gintuzten "maitasun adierazpen" batzuk: -"muxu emaiozu osabari, izebari, aitonari... ez izan zakarra; emaiozu muxu bat lehengusuari edo amaren lagun honi eta atezainari..." benetan gure gurasoek ez zekitelarik guk zer harreman geneukan pertsona haiekin, zein gogo, zein egokiera... Batzuk urrunekoegi senti genitzaken, beste batzuk ez gogoko bizi genitzakeen... beti ez ginen aldarte onean egoten muxuak nornahiri emateko...

-"Emaiozu eskua zure arrebari, anai gazteenari, lehengusuari... " Kontuan hartzeke gu garapenaren zein epetan geunden. Batzuetan neskak ukitzea oso lotsagarri suertatzen zitzaigun umetan, besteetan amaren eskutik joateak irigarri uzten gintuen lagunak aurrean...

Edo... "eskua elkarri eman iezaiozue eta barkamena eskatu eta besarkatu" egitea eskatzen zigutenean; batez ere mingarria inor ez zenean ohartu guk ez genuela orduan liskartxoaren errua izan, besteak baizik.

Interesgarriena da ohartzea sentimendu eta emozioen arlo zabal horretan kokatzen direla, hain zuzen, besteekiko maitasuna, axola, ardura, zaintza eta erantzukizuna; "genero femeninoari" bi aldiz pentsatzeke esleitzen diogun eremua.

Interesgarria ere ohartzea, emaitzez, alor honetan dorpe, ezgauza edo antzu gabiltzala gizonok sarritan. Are garrantzizkoagoa da fenomeno hau aitatasunaren aldeko apustua egiten dugunean, bertan abagune aproposa izan daitekeelako gure zama kulturala hurrengo belaunaldiari egozteko ala saihesteko. Zenbat eta oharmen gehiago garatu gure sexismoari buruz gero eta aurrezaintza hobetuz garatu ahalko dugu. Ikus dezagun aitatasunean oharkabea pasa ala ihes egin diezaguketen "meteorito" batzuk.

AITATASUNA, IKUSLE ROLA: BEGIRA EMANIK

Ageri samarreko fenomenoak da hau gure aitatasun rolari dagokionean gure aitengan eta egungo aita askorengan. Seme-alabak izateko eskubidea, gogoia eta ilusioa izaten ditugu gizon ugari baina une garrantzitsu hau iristean batzuei martxan jartzen zaigu gure aitengandik jasotako ereduaren zatiren bat, apur bat isilean ala lotan egon den fenomeno honen itxuran: "**ikusle rola**".

Aita askok begira igaro zuten – eta, egun, batzuk igarotzen dute- denbora gehiena behatuz nola amaren barruan hazten doan seme-alaba, gehiegi jakin gabe nola murgil daitezkeen ama eta ume horren arteko lotura-zubi harrigarri horretan. Aita asko ez da ausartzen lotura biko horretan bere burua sartzen, konexio ia magiko hori apurtzeko beldurrez batzuk, bestetarik beraientzako lekurik ez dagoela sentitzen dutelarik eta era guztietako iritzi eta aurreiritziak heldu zaizkielako leku hori amaren jabetza dela baieztaturik: hor amak bakarrik dakiela nola egoki jokatu, eta utzi egin behar zaiola bere kasa harreman ia "sekreto" hori eraikitzen. Nahiago izaten dute aitek beren burua aparte samar kokatu eta begira jarri. Beste batzuk hau aitzakiatzat hartzen dute zaila zaien zaintza eta afektuzko alor

horretan ez inplikatzeko. Beste aita batzuk oso ondo egiten dute. Guk arreta jarriko dugu hiruko harreman zoragarri horretan beren burua kokatzeko zailtasunik dutenengan.

Jaiotzerako ama eta umearen artean harreman honek zutabe irmoaren itxura hartu du eta hortik kanpo, satellite baten erara, bueltaka ibili da aita, harreman horretara biltzeko ez zirrikitu ez unerik aurkitu gabe eta , besteetan, aurkitzen saiatu ere egin gabe, *begira*. Honela konformatzen dira zaintzarako elkarlan zoragarrian murgiltzeko aukera paregabea galduz.

Ama batzuk errazten diote bidea beren bikoteari. Aukera ederra, profitatzea erabakitzen dutenen aitentzat. Beste ama batzuk sexismoak lapurtu dien botere zati bat berreskuratzeko ahaleginean erabili nahi izaten dute une hau gizonari argi uzteko esparru hori emakumeena beraiena dela, beraiei dagokiela eta beraiek direla hor mugitzen dakiten bakarrak. Begira egotearekin konformatu beharra dute aita hauek, hori baita bikotean une horretan gelditzen zaien lekua. Behin baino gehiagotan aditu dute, eta ez beti beren emazteengandik, baizik eta hauen amengandik, edo lagunengandik, sendikoengandik...:

-Ekarri umea, ez dakizu eta eusten!

-Erori egingo zaizu eta!,

Eta honek ez du beren susmoa egiaztatu baino egiten:

Traba ala sobera sindromea

“Bai, arrazoa! ez dut ideia zipitzik nola jokatu honetan ”.

Begira pasatzen dute denbora seme-alabak nola mundu honetara etortzen diren. Begira jarraituko dute nola amaren ondoan eta inguruan hazten eta hezten doazen seme-alabak, begira nola ikasten duten amarengana jotzen eta ez beraiengana, nola ikasten duten ama nahigo izaten. Honek indartzen du beren susmoa:

“ ni sobera nago” . Afektuzko harreman emozional honetan “ traba naiz ”: Nire bikotea prestatua dago horretarako eta primeran egiten du; nik ez dakit nola egin. Utz diezaiodan berari hori maneiatzen.” Batzuentzako aitzakia borobila izango da alor garrantzitsu honetatik kanpo bizitzeko eta sexismoarekin kolaboratzeko; beste batzuentzat luzaro eramango duten sindromea izango da eta beren harremanetan beste esparru batzuk eragingo ditu

Egokitu zaigun sozializazioagatik, gu eta gure seme-alaben artean ormak daude. Gure seme-alaben hazkuntza eta hezkuntza ez dugu paper erabakigarririk jokatzen, ez dakigu nola murgil eta inplika gintezkeen beraien bizitzetan. Uste ohi dugu ez garela amak bezain ongi, sendo eta luze maitatzeko gai, gaitasun honek ihes egiten digula, sentimendu kontrajarriak dakartzkigu, ez erosoak, errudunak, arduragabeak... hobe honi guztiari bizkar egitea... eta gure aitak eta hauen aitak edo anaiak hor egon dira hau dena egiaztatzeko. Aita haiek, denbora gehienean gure hazkuntza eta hezkuntzaren urrutiko lekuko izan ziren - era orokorrean, lanak etxetik urruti eusten zituelako eta, era partikularrean, baldintzapen sexitak gaitasun hau zailtzen zielako- . Boladaka, harreman lehorrak, urrutikoak ala , batzuetan, hotzak edo gogorrak garatu ditugu askotan gure aitekin, eta gero, ondorioz, gure seme-alabekin, urteetan zehar, hauek etxetik joan diren arte. Une horretan badirudi bi aldeek hartzen dutela atsedena (azkenean!) eta, era berean, tristura antzemanekin bat,

gure gogamenean itxura hau har lezakeen gandua: Tamala! Elkarrengandik urrutian izatea ere hobetu konpontzen garen modua!

Hala eta guztiz ere berrogei eta hamar ala hirurogei urteetara heltzean aita askok nahi izaten dute beren seme-alabak beraiengana bisitan joatea. Behin seme-alabak etxean, jarraitzen dute begira nola amarengana zuzentzen diren eta nola harekin kontuak egiten dituzten. Ez dakite oso ondo oraindik zer esan edo nola esan zer seme-alabei eta konformatzen dira eserita egon, egunkaria atera eta haien muxu bat hartzearekin. Hau da beren seme-alabengandik irits daitezkeen gertukoena; ez dakite neurri hori baino hurbilago kokatzen eta ez dakite beren horma nola zeharkatu. Ulergarria da, jaso duten hezkuntza eta sozializazioa ikusita; era berean oso tristea da. Tristeia da ere beren seme-alabek ez dutelako hori baino gehiago espero beraiengandik, nolabait, ohitu egin direlako ikusezinezko horma horiekin bizitzen, hazten, sinisten eta errespetatzen.

- “Kaixo aita!”

-“Kaixo, zer moduz?” Dena ongi, ala?

esaten dute eta jada, nahikoa da. Begirada telebistara zuzendu ala egunkarian ezkututzen dute, inork ikus ez diezaien zer nolako zailtasunak dituzten beren axola erakusteko eta zein zaputza sentitzen duten ohartzen direlako ez direla gai adierazteko.

Sexismoak gudan zein emaitza utzi duen aztertzen hasi aurretik hau da gizon arrunta ugarik onartzen duen axola-erakuste-esparruaren dimentsio guztia.

Komeni da gogora ekartzea ez ginela horrelakoak jaio bezain laster; edozein gizakik duen maitatzeko eta axola erakusteko bezain besteko gaitasuna dugu nahiz eta ez genuen eredu nahiko sendorik ez eta hezkuntza egokirik eduki beste era batera jokatzeke. Baina gaur, gauzak bestela izan daitezke.

ARDURA GUREA DA

Gure lana da leku honetan borrokatu beharra gure axola pitinka-pitinka erakusten hasteko. Ez baita “axola gehixeago erakutsiko dut eta kito, konponduta dago”. Axola ezin erakustea beste gauza asko eragozten digun barruko sexismo sustraituari aurre egin eta bere eraginkortasuna balio gabetzeko kontuaz ari gara. Ezin gara konformatu axola ez erakusteko baldintzapenarekin eta bere oinarrian datzan sexismoaren dimentsio osoa ez aldatzeko erosokeriarekin. Deseroso den horma hori zeharkatzeko zirt edo zart-eko erabakia hartu beharra daukagu. Leiho berriak zabalduko zaizkigu berdintasuneranzko bidean, baina batez ere gure buruak ezagutzeko helburuan. Hau baino helmuga hobeagorik ba ote den zalantzak ditut.

Gure seme-alabak oso aukera egokia dira maitasuna erakusten has gaitezen. Gauza zoragarriak gerta daitezke maitasun iturri txiki bihurtzen garenean. Bizirik egoteko modurik zuzenetako bat da: beraiek eskertuko dute biziki; guregana etorriko dira korrika eta salto batez heldu eta harrapatuko gaituzte kontu gehiegirik hartu gabe, modu horretan bizirik sentitu nahi gaituztelako. Heldu nahi gaituzte eta gure gorputza atxiki eta sentitu, bizirik gaudela eta axola zaizkigula eta maite ditugula sentitu, gure ormak direnak direlarik. Hau nahiago dute eta ez gure baldintzapenak hartzera eta bereganatzera behartu gaituen maitasun-erakustaldien modu mugatu eta zurrunik:

-Tori, lore sorta!

-Tori, paga (edo sari material bat...)

Beraiek irakats diezagukete nola erakutsi zenbat axola gatzaizkien. Horretan , haurrak oso onak dira, ez daude nahastuta; badakite nola zu besarkatu eta ongi-etorri zaratatsua eskaini, lotsatu gabe besteek zer pentsatuko duten. Maite egiten gaituztela sentitzen dute eta beraientzat poztasunerako eta harrotasunerako arrazoi bat besterik ez da. Badakite zuzena den zerbait egiten ari direla eta erakusgarri jartzen ari dira guretzat, guk jakin dezagun nola maite gaituzten. Ikasgai baliotsua guretzat.

IRAGANARI LEHIOA ITXI. ORAINARI ATEA ZABALDU

Saiatu behar dugu albora uzten zein arriskutsu egiten zaigun axola erakusten saiatzen garenean gutaz barre egin ala irainduko gaituzten aukera egon daitekeela pentsatzea. Hau gertatu zen aspaldian eta iraganari dagokio. Gure baldintzapen sexistaren zati bat izan zen; orduan iraindu gintuzten axolarik txikiena erakutsi genuelako. Ez dagokio gaurko momentuari, ez du zertan berriz gertatu, ez gaude egon ginen arrisku hartan, ezberdin izan daiteke orain. Gure seme-alabek eskertuko dute mugarik gabe, gure bikoteek ere bai eta, azken finean, gure bizitzek hartuko dute merezi duten giza kalitatearen zati garrantzitsua. Berdintasunetik hurbilago kokatuko gara.

Gure esku dago eta merezi dugu..

Azter dezagun, jarraian, sexismoak eta indarkeriak beste alor garrantzitsu batean eragin diguten eragozpena. Bikote harremanetan hain zuzen.

G.1.2 SEXISMOA ETA BORTIZKERIA: GURE HARREMANETAN DITUZTEN ZUZENAKO ONDORIO BATZUK

Nahiz eta gutako batzuk maskulinitasunaren bestelako ereduak topatu, behatu ahal izan ditugun, eta zenbaitetan kasu egokiak aurkitu, ausartzen gara esatera gizon askok beste egoera bat bizi izan dugula, jarraian azaltzen dugunaren antzekoa, beti ere hamaika aldagai eta ñabardurekin. Bortizkeria sexistak gure bizitzetan duen eraginaren ideia orokorra har genezake hemen; ezaguna egiten zaiguna antzeman eta berori lantzea erabaki genezake, ezezaguna edo ezberdina zaiguna baztertzeko ahaleginean arreta osoa jarri ordez.

Batzutan, laguntzaz, ohartzera helduko gara gizon bezala jaso dugun baldintzapenaren beraren parte bat –esaterako, perfektuak, zehatzak, onenak... izan beharra- oztopo izango zaigula, honetatik guztitik apurren bat gudan ere badagoela onartzen saiatzean. Beraz, apal bezain adi, tentuz egin beharko dugu bidaia, bereziki jarraian aurkezten duguna bezalako atal delikatueta. Adore, eta ez ahaztu kontua ez dela errudunak bilatzea, irtenbideak baizik.

Indarkeria ofizialerako prestakuntza

Gizonok osatzen dugu ia gizarte osoa hartzen duen kate zapaltzailearen azken kate-begia. Gauzak okertzen direnean eta herritarrak gogaituta eta haserre daudenean, matxinatzeko edo gizarte ordena errotik aldatzeko gogoz, gizonak bidaltzen dira, armatuta, egoera “birbideratzeko”. Gizonek prestaketa eta baldintzapen berezia behar dituzte gainerako gizarte armaz nahikoa izutu ahal izateko, beraiek apur bat gutxiago

izutzen diren artean; modu honetan herritarrak behartu ditzakete aurreko “bide edo ordenu egokira” itzultzera, bortizkeriaren mehatxua edota erabileraren bidez. Gogora ekar dezagun nola ematen den hau:

Gizonezkoen trebatze edo gizarteratze sexista

Trebatze edo baldintzapen hau oso goiz hasten da mutil askoren bizitzan; honen ondorioz jasotzen duten tratatu sistematikoaren oinarri dira zakarkeria, isolamendua eta sentimenak ukatzea, hauen adierazpena itoaziz eta antzutuz, bai emozioen alorrean zein alor afektiboan. Gizonezkoei espresuki zuzendutako trataera hau haien aitek eragiten diete batez ere –haiek ere berdin tratatu baitzituzten- eta hainbat amen parte-hartzeaz zenbaitetan, zeintzuak beren aita, neba, irakasle, lagun, senide, eta abarren sexismoaren biktima izan diren. Honekin batera, gainontzeko osagai soziokulturalak etengabe ari dira biztanleriaren gogamenetan indarrez sartzeko bidezkoak: mezuak, heziketarako eduki biolentoak eta indarkeriazko propaganda : hedabideak eta gerra-berriak, film eta literatura bortitzak - “gore-ak”- izuzkoak, armak gora eta behera darabiltzatenak, ordenagailurako jokoak eta dvd-ak, kirolak eta kultur ekitaldiak, marrazki bizidunak (manga japoniarrak, Simpson.darrak...) eta iragarkiak, opariak, jolasak... guztiak bortizkeriazko eskenatokietan kokatuak.

Honek guztiak gizartearengan eragiten du halako ideien nahaste-borrastea, batik bat baronen gogamenetan, oinarrian uste hau duena: ez dagoela aukerarik gutxieneko bortizkeriarik gabe elkarbizitza egin ahal izateko, eta harekiko gutxieneko “tolerantzia” - sentikortasunik eza- garatu gabe. Nazioarteko gerra-gatazketaz etengabe heltzen zaizkigun berriak, nabarmenduak eta testuingurutik bereziak, eta ematen zaien propagandazko erabilera, lehen paragrafoan azaldu dugun fenomenoaren oroigarri sutil eta eraginkor dira: ordenua bortxaren bidez mantentzeko mehatxu etengabea, *eta funtzio hori batez ere gizarteko gizonezko multzoari esleitzea.*

Sistematikoa, gogorra eta eraginkorra izan behar du baldintzapen eta prestatze honek, gizarteko gizonezkoen multzoa bortizkeria pairatzera eta hura erabiltzera ohitarazteko. Hasi, lehia edota bortizkeriazko lehen jostailuarekin hasten da (oraindik orain mutikoei oparitzen zaizkie alegiazko heroi bortitzen trajeak haien arma guztiekin, kartutxo-uhalak eta pistolak, indiarren arku eta geziak, suntsipenerako laser izpi eta ezpatak, hilgarriak diren gailuak –tanke, kañoi, metraileta itzelak-, edo bortizkeriazko eduki suntsitzailez gainezka dauden bideo-kontsolak, inolaz ere pedagogikoak ez direnak... Goia jotzen du trebatze honek derrigorrezko soldaduskan –oraindik hala den herrialdeetan- edo borondatezko soldadutzan, gainontzekoetan, hala nola polizia erakunde hainbatetara sartzeko “lan eskaintza sozial duin eta honest”- en bidez.

Jarraian irakurriko duzuna gertakari honek eragiten dituen era askotako alderdi desberdinen ohiko adibide gutxi batzuk besterik ez da. Ez dira berdin gertatzen pertsona guztiengan baina argigarriak gertatzen dira, gizonen multzo handi batean topatu baititugu.

Ez dago soberan gogora ekartzea, kapitalismoa eta bere egitura hegemoniko boteretsuak aurrera doazen heinean gero eta gehiago “ teknologizatuz eta modernizatuz” gizarteratzen eta baldintzatzen gaituzten modua ere aldatzen doala, ñabardura berriak aurkeztuz. Bere eragina eta ondorioak, hala ere, ildo beretik doaz eta gero eta emakume gehiago ukitzen du.

Sentikortasunik eza eta oharmen eza

Sarritan ez gara ohartzen nola zapaltzen dugun gure burua, ezta elkar nola zapaltzen dugun ere. Ez gara ohartzen ze tratu txar maila onartu dugun nor bere buruarekiko, eta ondorioz, ezta ze mailako tratu txarra sortzen eta eragiten dugun gainontzekoekiko. Ez dugu beti arrasto handirik edukitzen honek dituen ondorioetaz, ez gure inguruko pertsonengan, ezta geure bizitzan ere. Sexismoaren zati bat da oharmena sortzen ez uztea eta ez eta garatzen uztea ere.

Gutako batzuen aitak eta haien aitak izan ziren sexismoaren atal honen igorle nagusienetakoak. Gure aitak ikusi genituen, eta haien aitak, haien anaiak, ondoan zituzten - eta sarritan aurre egin ezin zieten- emakumeak txarto tratatzen, eta grabatuta geratu zitzaigun gogamenean pertsonak tratatzeko moduetako bat bezala, batez ere emakumeak baziren. Tratu txar honen lekuko izatea nahikoa da zure gogamenean txerta dadin. Behin barruan daukazula, ezustean ager daiteke, gutxien espero dugunean.

Gure etxeetan emakumeak mota honetako sexismoaren biktima zuzenak izan dira kasu askotan, gizonetzkoen eskuetan. Gizonezko batzuk libratu ziren haien etxeetan bortizkeriaren “kulturizatzeko” hau ikastetik, baina kalera irtenda giro horren zati batzuetan murgildu zituzten beste pertsona edo entitate soziokulturalek, zeregin hori betetzen dutenek: ikasketa-zentroek, kirol klubek, lagun koadrilek, beren etxeetan bestelako zortea izan duten senideek, adiskideek, lantokiek, eta lehenago aipatu ditugun bortizkeria igorle diren gainontzeko mekanismoek. Modu ezberdinez, baina antzeko emaitzez.

Indarkeria antzemateko zailtasun maskulinoa: MAITASUNAREN KUDEAKETA

Honelako giroan hazita ez da harritekoa gizonezko askok zailtasunak agertzea indarkeria antzemateko. Honek zailtzen du gerora norberaren ala hurkoaren indarkeria salatu, gaitzetsi, ekidin ala baztertu behar denean taxuz, eta zorrotz jokatzeko bere aurrean. Gure eskuetatik pasatuko gizon taldeetako kideei galdetuta, gizonezkoen hiru laurdenean baino gehiagok jasan izan du zuzenki tratu txar fisikorik beren gurasoengandik. Tratu txar hauen emaitzak askotan aitak izan dira eta erditan baino gehiago amak ere aipatzen dituzte gizonek.

Testuinguru honetan, ondorio nabarmen eta arriskutsua da mutilek maitasunezko keinuak indarkeriazko keinuekin batera, ala jarraian, ala gainjarriak... jaso izana eta maitasuna garbi zer den zehaztu ezin izatea suertatzea beraiei. Ikuspegi lausotua geratzen zaie maitasuna eta indarkeria bereizten dituen marra beren buruan zehaztasunez eta zorrotzasunez diseinatzeko garaian. Batzuetan indarkeria keinuak edo ekintzak maitasun keinu gisara aurkeztu izan zaizkie, edo maitasuna berreskuratzeko bide edo erak bailiran...

Kasu hauetan, mutikoak eraikitzen eta garatzen duen maitasunaren kontzeptuari indarkeriaren zantzurik ez itsastea ez da beti erraza, eta batzuetan emakumeekiko maitasun harremanetan ez da harriztekoa indarkeria motaren batek leku izatea, beraientzat sendiarengan eta “maitasun giroan” jasotakoa baita eta ia ia “sasi –eskubide” bat bezala ikus dezakete batzuk maitasunarekin batera eta honen zati ekidinezina bezala indarkeriaren erabilpena: “zure onurarako”; “maite zaitudalako da”; “maite zaituenak negarra erauziko dizu”....

Indarkeria fisikoa zuzenki jasan ez duten gizonezkoen artean gehi-gehienak izan dira indarkeriaren *lekuko*, modu batera edo bestera, beren haurtzaro eta gaztaroaren zehar

beraiek kontatu ohi dutenez: beren lagunen etxeetan, ikastetxeetan, kalean, hedabideetan, kiroleetan eta aldageletan, tabernetan, filmetan, iragarkietan, liburuetan...

Maitasuna nola ulertzen dugun eta nola adierazten dugun kontu handiz ezarri behar genuke gure seme-alabekin eta gaztetxoekin, beti ere indarkeriatik, baldintzetatik, mehatxu eta txantaietatik at, ahal baldin bada, eta inolako ezberdintasunik egin gabe neska baten ala mutil baten aurrean gaudenean. Berdin jokatzeko al dugu gure semearen aurrean ala gure alabaren aurrean maitasuna adierazi eta helarazi nahi diegunean?

Maitasuna ez genuke inolako kanpo eragileren arabera adierazi ala ezarri behar; interesgarria izango litzateke balioak eta jarrerak, baloreak eta jokabideak ezarriko bagenitu poliki eta tentuz; baina hauek bete ala ez axola behar ez lukeelarik maitasunari eusteko orduan. Jaio izan hutsak izan behar luke nahikoa arrazoi eta eskubide gizakitxo horrek maitatua izateko baldintzarik gabe. Eta gerora hezi behar genuke estereotiporik eta etiketarik gabeko pertsonetik maitasuna senti dezaten, gauza guztien gainetik: generoa, modak, estiloak, gorputzak, itxurak, joerak...

Emakumezkoen trebatze edo gizarteratze sexista

Emakume hainbatek, bestalde, jaso duen heziketan bereganatu ahal izan duen kontzeptua da, ez duela zertan materialki beste pertsonen mendeko izan – eta zehatzago esateko, gizon baten mendeko-; maila emozionalean ordea, trebatua izan da gizon bat irrikatzeko, ahal balitz sexismorik gabea, edo gutxienez zorigaitz hori ekidingo lukeena edo beste kasu batzuetan horretatik babestuko lukeena. Jasan behar izan duten baldintzapena gizonenaren antzekoa da sistematikotasunean eta iraupenean, baina edukietan ezberdina: beste pertsonak tratatzeko modua da batez ere besteei atsegin ematea -gizonak eta gainerakoak- zerbitzatzea eta besteen beharrak asetzea, berorenak bigarren lekuan ipinita, modu horretan norbaitek - oro har gizonezko batek- arreta beragan jar dezan, eta emakumea “bereganatzen” saia dadin.

Eskuarki sentiarazi zaie pertsonaia honek, teorian lagundu behar lukeena edo, zenbait kasutan, “babestu” beharko lukeena *emakumeari bere boterea kendu zaion esparruetan*, gizonezko itxura behar duela izan: izan daiteke aita, anaia, lehengusua, irakaslea, bizilaguna, anaiaren laguna... eta emakumeari kendu zaizkion ezaugarriak izan beharko lituzke: indartsua, gogorra, segurua, ausarta... Eta emakumeak mota honetako gizonezkoarengan jartzen du bere itxaropen osoa; aldi berean gizon horri bestelako ezaugarriak topatu nahi lizkioke, ziur aski, baldintzapen matxista medio garatu ezin izan dituenak: ulerkorra, arretatsua, maitekorra, hurbila... izatea.

Argi dago, bestalde, emakumeek inguruko gizonak ezagutzen dituztela; badakite zeinen sexistak diren gizon horiek. Beraz, arrazionalki:

Espero al dute emakumeek sexismorik gabeko gizon bat topatzerik? Uste al dute hori benetan dela posible?

Ziurrenik, emakumeek beraiek jasan behar izan duten sexismoaz ohartzen ez diren arte, eta ezarri zaizkien rol sexistez kontzientzia garatu gabe, bilatzen duten gizon eredia sexismo kutsuez onartzeko prest egongo dira. Baina sexismoaz ohartzen hasi orduko (gu

baino askoz lehenago hasten dira honetan) azkar konturatzen hasten dira ez dela erraza izango, ez dela oso erreala sexismorik gabeko gizonik aurkitzea. Baina trebatuak izan dira baietz sentitzeko, itxaropen faltsu hori elikatzeko, gizon salbuespenaren edo printzearen irrika horri arnas emateko. Emakume hauek mota horretako gizon bat – bai sexismorik gabeko printzea zein rol sexista zehatz batzuk betetzen dituen - topatu ahalko duten irrika horretatik askatzen ez diren artean, irrika hori haiengan erroto zedin jasan behar izan zituzten baldintzapen sexisten esklabo izango dira.

Senak eta kontzientziazte lanak adierazten diete ez dagoela sexista ez den gizonik. Eta ez dabilta oker, baina batzuk gogo biziz topatu nahi izaten dute gizon hori, harremanetan izandako zaputuz segida luze batek isilpean susmatzen zuten egia baieztatzen dien arte.

oharmena lortzeko borrokan

Genero zapalketan gertatzen zaiguna ulertzen saiatzen garen gizonok badakigu orain artean ezinezko gertatu zaigula beste modu batekoak izatea. Barnean daramagun sexismoarekin ezin gara izan emakumeek desio duten motako gizona, ezta halakoa garenaren itxura eman ere. Ideia ona da gure sexismoak emakumerik kaltetu ez dezan ahalegina egitea, edo gutxienez emakumea gure portaera matxistetaz ohartaraztea, baina oraindik ez gaude leku horretan. Ezin dugu bera gure sexismotik “ babestu” (mindu dezan eragotzi) gu geu pertsonalki horretatik askatzen ez garen artean, jaio eta gizarteratu ginenetik egotzi zaigun zama guzti horretaz libre ez garen artean.

Bestetik, emakumeek mugagabe maite dituzte haien seme-alabak, gehiago maitatzerik ez dagoen modu batean. Amek semeak maite dituzte alabak bezain sakonki, baina arazo bat dute mutikoekin: amak ez badira askatu ahal izan sexismoak egin zien minetik, horren eraginek jarraitzen dute, luze irauten dute, nahasmena eraginez eta belaunaldiz belaunaldi igortzen dira. Amek desio izaten dute beren semeak sexistak ez izatea, inguruan dituzten gizon sexisten ez-bezalakoak izan daitezen. Haien esku dagoen guztia egiten dute beren semeak beste modu batez heziak izan daitezen. Sexismoarengandik txikitatik jasan duten minaren aurka borrokatu nahi dute amek, bidegabekeria hori deuseztatzeko, baina ez da beti erraza borroka hau garbi irabaztea eta ondorioz batzuetan beren semeak eta alabak eskema sexistetatik hezten dituzte.

Honi gehitu behar diogu alde ez dugun eragilea: gizonok ez gara oraindik gai haiei euskarri nahikoa edo laguntza emateko, edo esparru horretan esan behar dizkigutenak entzuteko, hor jaso genuen eta ezarri ziguten baldintzapen sexistaren menpeko, esklabo izaten jarraitzen baitugu. Oraindik ez gara gai emakumeak guztiz ulertzeko, haiek sexismoaren aurkako borroketan ari diren lekuetan, leku horietan izan baikara gu minduak, matxista izateko prestatuak, eta portaera horren agente gauzatzaileak izaten darraigu. Baina borroka honetan beraiek euskarritzen saia gaitzke, borroka erabat ulertu ala ez.

Elkarren beharra dugu

Argi dago maitasunik gabe ezingo genukeela biziraun. Giza espeziean beharrezkoa, ederra eta berezkoa den zerbait da. Elkarren beharra dugu baina ez maiz gertatzen zaizkigun modu gatatzuetan murgilduta aurkitu ohi garen moduan. Pertsona guztiok,

oro har, izan dugu maitasunaren inguruko bizipenen bat. (Ez gara ausartzen hemen maitasuna definitzen, gizarte hauetan etengabe pairatzen ditugun hainbat zapalketa, baldintzapen, sasi-informazio eta abar ezberdinen eragin guztiengatik maitasunerako sarbide librea dugunik ez dugu uste eta; horretara heltzeko berau urardotzen duten faktore asko zeharkatu behar ditugu-eta).

Dagokigun gai honetan, genero bereizketa dela eta, gizonok emakumeak behar ditugu emakumeek gizonak behar ez dituzten moduetan. Heziketa kontua da; heziketa sexista, jakina. Izan ere, sorburuan nahikoa antzekoak gara: inor ez da sexista jaiotzen, ezta haurtxo bakar bat ere planeta osoan. Genero bateko ala besteko izateagatik gutako bakoitzarengandik espero den hori guztia da sexista hazi eta garatu arazten gaituena. Bi sexuok behar dugu maitasuna, hurbiltasuna, ulerkortasuna, samurtasuna, euskarria eta informazio ona osasuntsu haziko bagara. Hauetatik gutxi jasotzen dugu mota ezberdineko hainbat baldintzapen egoera zeharkatu gabe. Hauetatik gutxi heltzen zaigu garbi, duintasunez, sexismoaren kutsadurarik gabe –eta lehen aipatutako beste kutsatzaileen eraginik gabe (klasismoa, arrazakeria, adinkeria...)- Honela emakumeek eta gizonok maitatuak sentitzeko eta maitatzeko “era” ezberdinak garatzen ditugu.

Mundu honetara “lurreratzea eta lehen pausuak ” hain bortitzak izatearen ondorioz - eta gudan gizonengan ezartzen diren igurikapen sexisten ondorioz- ondoan bikote bat behar dugula sentitzen dugu –ia beti emakumezkoa- beste gauzen artean,

- a) Bizitzaren hainbat alde **oroitzeko**, “benetako gizonak ” izateko gure prestaketa gogorragatik ahaztu edo bistatik galdu ditugunak: alegia, bizi gaitzkeela pozik, alai, patxadatsu, fidakor eta baita eguna kantuan pasa ere, jaikitzen garenetik. Gure ondoan munduarekin berehalako lotura duen pertsona bat behar dugu, maitasunarekin, afektua eta samurtasunarekin, malgutasunarekin, sentimenekin, eguneroko elkarrizketa amultsu eta ardurarik gabearekin... Bere prestaketan behar adina bortizkeria fisiko zuzen –edo zeharkakoa- jasan ez duen pertsona bat, eta bere mundu afektiboarekin (sentimendu eta emozioekin) zein besteekin harremanetan mantentzen gehiago utzi zaiona; azken batean, gure rol gogor hauetatik at bizitza nolakoa den ahaztu ez duen pertsona bat.
- b) Bigarrenik, gure ondoan emakume bat behar dugula sentitzen dugu, **erreferentzia** gisa, emakume asko gai baita harremanak eraiki eta zaintzeko guri zaila - eta zenbaitetan ezinezkoa- egiten zaigun modu batean: zaindu egiten ditu. Emakume askok badakite harremantzen eta harreman horiek mantentzen beste modu batez, modu egonkorragoa, edo agian, interes handiagoa jarriz, non lehenengoa, onena, indartsuena edo ospetsuena edo ausartena... izateko lehiak ez duen hainbesteko zentzu edo lekurik. Baliteke lehia egotea, beste esparru batzuetan, besteenganako gaitasunetan: emozionalak, maitasunezkoak, sentsualak...

Gizonok trebatu gintuzten zuzeneko bortizkerian eta gorputzez gorputzeko lehian, gogamenez gogamenekoan baino gehiago, nahiz eta bigarren hau ere apur bat sartu ziguten. Trebatze horretan besteetaz ez fidatzen ikasi genuen, mesfidati izaten eta mehatxuak egiten, solastu orde. Ez gara oso abilak harreman berri eta sakonak egiteko orduan, eta haiek mantentzen, batez ere harreman horien izaera soziala edo kulturala denean, abentura heroiko edo sexualetarako zirrikiturik gabea. Hein batean, harreman asko aspergarri modura bizi ditzakegu, zeinetan beti ez dakigun zer esan, nola jokatu, nola egon, zer egin. Deserosoak zaizkigu. Eskuarki, gure bikotekideek egiten dituzten harremanen menpeko izaten gara esparru sozialarekin lotura ez galtzeko, lan mundua, sexua, kirola edo lehiatik at. Bitartean, emakumeek beraien harremanei jaramon egiteko

duten sakontasun eta seriotasunak guretzat erreferentzia baten modukoa izaten jarraitzen du maiz.

- c) Haietako askok gu behar gaituzte, ziurrenik, modu ezberdin batean, ukatu, zikiratu, baliogabetu edo ahaztarazi zaizkien bizitzaren alderdi eta gaitasun batzuk **oroitzeko**; esaterako, buru-estima eta bere buruaz ziur sentitzea, bere adimen arrazionalaz fidatzea, erabaki ahalmena, gorputza erabiltzea indar moral eta fisikoaren iturri bezala, zenbait guneetan -publikoak- eta faktoreetan -lehia, mehatxua, arriskua, abentura...- ondo moldatzea eta abar.

Honengatik guztiagatik, milaka urtetan zehar elkar bilatu eta topatzera jo izan dugu, behin eta berriro. Badira bilaketa hau berezko eta naturaltzat jotzen duten teoriak. Hori eztabaidatzen jarri gabe, ikertuko duguna izango da sexismoak eta bortizkeriak elkartzeko hauetan dituzten eragin batzuk, maiz haserrealdiak, istiluak, gaizkiulertuak eta talkak eragiten dituztenak, eta batzutan ondorio negargarriak dituztenak.

GIZONEZKOEN ESTRATEGIA ZAPALTZAILE BATZUK

Horrela izendatuko genuke gizonok norbaitengandik hurbil egoteko –eskuarki emakumezkoa dena- edo gure bikotekide izango den norbait hurbil edukitzeko garatzen dugun hainbat portaera ez errespetuzko. Behin gugandik gertu dagoela, pertsona hori gure ondoan mantentzen ahalegintzen gara eta portaera zerrenda luze bat garatzen dugu, barneratuta dugun sexismoari dagozkion - eta pertsona harekiko zapaltzaile diren- elementuz josia. Goazen hauetako batzuk aztertzerako, azaletik bada ere, guretzat gizonetzko eredu gertatu diren gizon askorengan agertu izan diren, eta ondorioz, eragin gaituzten jokabide bakar batzuk.

Lehena eta ohikoena **itxurakeria** da.

Arestian aipatu dugun moduan, gizon askok badakigu ezinezko gertatu zaigula beste modu batera izatea, hau da, sexismorik gabeko gizakiak, gaur arte. Daramagun sexismoarekin ezin gara izan emakumeek edo bikotekide gisa nahi gaituztenek irrikatzen duten bezala, edo ez garenaren itxurak ezin ditugu egin modu arrakastatsuan, kasurik gehienetan. Baina hala ere, itxurak egiten ditugu baietz, bagarela. Badakigu pertsona haiek osagai matxistak arbuizaten dituztela, baldin eta ez badaude oso minduak sexismoaren eraginpean; horrelakoetan ezin dituzte osagai horiek antzeman eta haien menpe bizi dira sinisturik osagai horiek beharrezkoak direla.

Beraz gu gogor saiatzen gara gure pentsamendu, sentimendu eta jarrera sexistak ez erakusten eta ezkututzen, eta eginahalak egiten ditugu irudi korapilatsu honek ahalik eta luzeen iraun dezan, gutxienez pertsona hori konbentzitu arte, sinistu arte, edo maiz gertatzen den bezala, bere buruari sinistarazi arte itxurazko horiek garela.

Ez da bidezko, ezta zilegi ere; ez da sexismotik askatuko gaituena, ezta haren ondorioetatik babestuko gaituena ere. Mahai gainean jarrita soilik egin ahal izango diogu aurre, nahiz eta bakarrik geratzeko arriskua sentituko dugun (zenbaitetan baita ikara ere) hori erakusten dugunean.

Bigarren estrategia bat da **“arrazionalizaziozko babesaren edo ezkutua”**

Bikote barruko kontu bat dela eta gatazkaren erdian gaudenean eta ez dugunean inolako kontsentsurik lortu; eztabaidatu besterik ez dugunean egin, eta ziur aski baita elkar

gaitzetsi ere, unea iristen da gure bikotea egoerarekiko eta gurekiko nola sentitzen den ahoska dezan. Honelako zerbait esan dezake:

-“Zapuztua sentitzen naiz, mindua eta triste, zu eta bion artean gertatzen ari den honengatik guztiagatik”.

Esaldi honek sumina eragin diezaguke bera gai delako hori ahoskatzeko eta gu ez. Guri datozkigun sentimenak sentitzeko, fokatzeko, identifikatzeko eta adierazteko dugun prestaketa urria da eta zaila eta ez ohikoa egiten zaigu sentikizunei buruz mintzatzea, ondorioz, esaldia har baitezakegu eztabaida orotan ustez mantendu behar diren balizko koherentzia, arrazionaltasun eta buru hotzari eraso moduan. Arazoari gogamenetik aurkitutako irtenbide “zentuzko eta arrazionala” beharko lukeena bertan behera gelditzen dela irudi dakiguke, arazo emozionala izan daitekeena arrazionalizatu eta intelektualki argudiatu nahi izaten dugulako, emozionalki tratatu ordez.

Une honetan gure erreakzioa sarri izaten da balizko jokaleku sentimentalari erabateko arbuioa ematea, honek buru-eztabaida behar lukeena ordezka ez dezan, bigarren honetarako trebatuagoak gaudelako. Mundu horri uko eginez, eta agian bere sentimenak agertu berri dituen bikotekideari kontraerasoa eginez, batzutan sentimen horiexek baliatzen ditugu bera gutxiesteko, mesprezatzeko edota mina eragiteko. Ihes egiteko modu bat besterik ez da, jokaleku berri eta, hein berean, beharrezko horretan ager daitezkeen sentimenak -gure buruarekin, gure jarrerekin, edo funtzionatzeko edota harremantzeko gure moduekin zerikusirik izan dezaketenak- piztu ez daitezen. Baina eskenatoki hori ezinbestekoa da maiz eztabaida bideratu eta elkar aurkitu ahal izateko, elkarri mokoka jarraitu ordez.

Onartu behar dugu sentimenak gizakion eta giza- harremanen parte direla eta ez dutela berez ezer txarrik –agian aurkakoa- haiek nola kudeatu ikasten dugunean.

Hirugarren estrategia bat dira **usteak eta gutxiespenak**.

Batzuetan, gure bikotekidea pozik ez dagoenean burutik halako zerbait pasa dakiguke: “zer ote zetorrek orain? Nire bikotekidea ez dago pozik... zer egin ote dut gaizki?” eta izutu, haserretu, zapuztu... gaitezke, pentsatu ordez nola lagundu diezaiokegun bikotekideari elkarrizketa haritxo bat eskaintzen edo beraren behar simple baten jasotzaileak izaten: harrera emozional egokia ezartzea berarentzat.

Ez zaigu zaila egiten pentsatzea - nahiz eta onartzea edo aitortzea oso bestelako kontua den- gure harremana bat-batean “ziprztindu” duena izan daitekeela hain gogor ezkututzen eta hertsatzen saiatzen garen elementu sexista horietako bat. Badakigu noraino hel gaitezkeen itxurak egiten ala ez sentitzen; badakigu ez dela oso iraunkorra, gure baitan hertsatu behar dugun sexismoa handia baita. Sinpleki, ez da zaila ihes egin diezagun eta unerik ustekabekoenean “leher” dakigun.

Galdera etor liteke jarraian, ala beste unereren batean, zure bikotekideak zure lapsus edo nahaste, lotsa, blokeo... unea baliatuz esaten dizunean:

-“zer ari zara pentsatzen, laztana?”

-“ezer ez!” (lehor)

Erantzun honek hamaika bertsio dituen oinarri zapaltzailea du:

“nire ustez, zuk uler dezakezunik ezer ez zait gertatzen; konta diezazukedala pentsatzen dudan ezer, ulertuko duzula uste dudan ezer ez; ez naiz pentsatzen ari zuk konpon diezadakezun ezer ere, nire munstro eta atalik zailenetaz benetan axola izango zaizun ezertxo ere ez; zuk jakiterik nahi dudan ezer ez, ez baitakit zelan erabiliko duzun jakin ondoren; ezer ez, ez baitut zu kezkatu edo aztoratzerik nahi, nigandik “babestu” nahi zaitut eta, edo uste dudalako ez duzula zure burua babesten edo moldatzen jakingo nire zailtasunen aurrean “ etab.

Sexismoak, hemen, baldintzatu gaitu emakumeak eta haien gaitasunak gutxiesteko. Baita baldintzatu gaitu ere, norbait benetan gutaz interesatuko den itxaropena gal dezagun, ez gaituela inork lagunduko gure sexismoarekin, honen errua guri egotziko digun beldur. Gure trebatze “maskulinoan” baldintzatu gintuzten *kultura femeninoa* deritzaiona arbuizatzeko, gutxiesteko –emakumezkoengan sustatu diren eta gizonezkoengan gutxietsi diren jarduera, gaitasun, baloreen multzoa dena, ez besterik- eta azkenik mespretxatu edo gorrota genezan eta *kultura maskulinoari* dagokiona soilik guregana genezan.

Ondorioz, emakume askok, edo gure bestelako bikotekideek, etsi egin dute gizonak inoiz atearik ez izango dizkiela pentsatzeko puntuan. Gizon askok ez du bere barrua agertu nahi, edo ezin du jada, ez baitu nahi pilatuta daukan eta batetik bestera daraman “kakatza” ikus dakion. Gizonak uste dezake –eta batzuetan ez dago erratuta- bere bikotekideak alde ilun matxista hori begiztatzen badu gizonez aldatu nahi izango duela. Ondorioz, itxurak egiten jarraitzea seguruagoa delakoan egon ohi gara.

Laugarren estrategia: **alperrikako ihesa.**

Bada leku bat gizonezkoen gogamenean non ikus dezakegun bikotekidea saiatzen ari dela, jo eta ke, sexismoaren aurkako borrokan, bai gugandik datorrena, bai bere barruan daramana, azken hau, hezten gaituzten gizarte sexisten tratua txar zapaltzaileen ondorioa. Leku horretan guk suma dezakegu bikotea saiatzen dabilena garrantziko zerbait dela eta epe luzera bion ekarriko digula onura, baina bikotearen borroka jasan ezina gerta dakiguke: zarata handiegia da bertan gera gaitzen, edo hobe ulertzeko, zarata horrek daramagun sexismoarekin duen lotura gehiegizkoa da bertan gelditu ahal gaitzen.

Gure bikotea zapuztua dago itxurakeriaren atzean ezkututzen zen gizon sexista aurkitu duelako eta horrekin borroka egiten saiatzen ari da, zilegitasun osoz; baina borroka horretan darabilzkin hainbat keinuk eta ahoskerak nahiko modu argian ekarriko digute gogora gatazka geuk eragin dugula eta gertatzen ari denak gure sexismoarekin zerikusi dezente duela, eta horrek izutu edo lotsarazt gaitzake ala defentsiban jar... bikotea kexu eta zaraten artean adierazi nahian dabilena *entzuten* saiatu ordez. Gutako batzuk gure senetik aterata gaitzake honek, egoera horrekin berehala amaitzeko gogo bizia sentitzeraino. Baliteke gogo horiek gauzatu aurrez “eskenatokitik ospa egitea” erabakitzea. Baliteke gure izua eta asaldura jokaleku guztian zehar barreiatzea... modu batean zein bestean. Hor, oraindik, ezinezkoa zaigu gure bikotekidea laguntzea une horretan berak nahiko lukeen moduan.

Kapitulu horrek sarri hartzen du itxura hau:

-“Laztana, zerbaiti buruz hitz egin behar dugu...”

(UF! Hasi gaituk!). –Zer gertatzen da orain! (tonuera lehor edo haserretuaz).

-Bada komentatu nahi dizudan zerbait...”

Une horretan gizon batzuk bikotea ezabatuko genuke etxeko mapatik badakigulako aurpegi aurrean jarriko digula gure jarrera sexistaren batekin zerikusia duen zerbait, sumatzen, ulertzen, aldatzen, alboratzen... zaila zaigun horietako bat, hain zuzen. Bikoteari nahiko deserosoa egiten zaio, baina jaso duen heziketa ezberdinagatik gai da argudioak eta hitzak jartzeko guretzat hain abstraktua, sakona eta arraroa den horri. Bera gai da bere lagunei, amari, lankideei, ahizpei kontatzeko, zatika dezake osagai txikiagoetan, berriz ere elkartu, haien esanahia ulertu, baita haien jatorria ere, aztertu, bueltak eman, txiki-txiki egin, bildua kendu, mamia landu, sailkatu, izendatu eta baita irtenbiderantz bideratu ere. Guri galarazi zitzaizkigun gaitasun horiexek ditu berak. Ez gaituzte horretarako hezi. Eta jasangaitza gertatzen zaigu. Une horretan bikotea jasangaitza dela senti dezakegu, baina barru-barruan badakigu ez dela bikotea jasangaitza dena, baizik eta jasangaitza dena dela guk ez daukagula horretaz lan egiteko aukera. Horixe da jasangaitz: ez jakitea zer egin horrekin eta beste erremediorik gabe zama hori garraiatzen eta, aldi berean, ezkututzen ibili beharra.

Berehalako ondorioa da urrundu egiten garela emozionalki (eta batzutan fisikoki ere bai) berarengandik, harremanetik eta gugandik kilometrotara. Eskenatoki horretan gure bikotekidea egozten dugu gure gogamenetik. Eta sarritan ez dakigu bera nola ekarri bueltan, edo zein den gure harremanerako itzul-bidea, guk geuk gure burua bertatik kanporatu dugunean. Errazagoa da harremanaren zailtasunen errua berari botatzea eta ekaitza pasa dakion arte itxoitea, "bere senera" itzul dadin. Leku honetan sexismoarekin elkarlanean ari gara.

Batzutan era askotako bertsio anitzak izan ditzake...

Nik neure erabakiak hartuko ditut, gerta zer gerta, inori galdetu gabe, eta are gutxiago berari! Izorra dadila!

Guztia bere errua! Hau duk hau nire onetik gehien ateratzen nauen horixe bera galdetzeko mania madarikatua daukana! Orain jakingo du benetan nor naizen ni!

Zergatik ez ditu muturrak sartuko bere kontuetara! Ni sartzen al naiz, bada, bere izateko moduarekin? Beti izorratzen! Badirudi gozatzen duela!! Eta abar.

Bikotearen gogamenetik agian halako zerbait igaro daiteke...: "Ez dago zer eginik! Guztiak dira berdinak eta ez dute erremediorik! Etsi dut!... eta abar.

Kontua da elkarrizketa, elkar euskarritzearen ikuspegia eta *elkarrekin erabakiak hartze garrantzitsu hori* lurperatua geratzen direla, baten lotsa eta haserre sentimenen eta bestearen zaputzaren azpian, eta elkarri errua botatze guztien pean ahazten dugu bizi garen sistema sexista hau dela nahaste guzti hauen eragilea.

Guk, aurrerantzean, ez dugu erraz egingo gai garrantzitsuetan bere bikotekidearen iritzia eskatzeko bidea, ez dugu aukera askorik emango; soilik haren iritziek gure ala bien egonkortasun emozionala kolokan jarriko ez duten gaietan ez bada. Intelektual eta emozionalki alferrikako ihesean abiatuko gara.

G.2-NOLA IKUSTEN GAITUZTE, ETA NOLA DAKUSAGU GURE BURUA, PROZESU HONEN ONDORIOZ

Ezgizatiartzat ikusten gaituzte

Helduak garelarik, gutako askok horren ondo bereganatu ditugu rolok eta beren eraginak hain gure egin ditugu ezen jendearen aurrean eta gure buruaren aurrean benetan sinesten baitugu horixe garela, zapaltzaileak. Rol horien emaitzak ongi barneratu ditugu eta sinetsi har dakigukeela berezko sentiberatasun gabekotzat, indarkeria zaletzat, itxitzat, urrutikotzat, , sexuak erraz erabligarritzat, pertsona batzuetan gogaikarritzat, desatsegintzat, materialistatztat, matxistatztat... Den-denok azaltzen ditugu zapalkuntzaren ondorio batzuk edo bestetzuk. Gizon guztien artean puzzle horren pieza guztiak osa genitzake; denetarako adibideak ematen ditugu. Ez da, beraz, bat ere harrigarria hau dena sinestea denok, bai gizonezkook zein emakumezkoek.

Honelakoetan, korapilotsuena da honen aurrean hartzen dugun jokabidea: ez dugu gogoratzen nolako prestakuntza jaso genuen haurtzaro goiztiarrean “gizon” izateko, beraz, egun gertatzen zaigunaren errudun sentitzen gara; guk geuk sinetsi egiten dugu horrelakoak garela eta hala balitz bezala bizi ohi gara. Gutaz eta gizonetaz esaten diren guztiak egiazat eman ditzakegu baina ez dugu begiratzen horren atzean zer eraman gaituen hala jokatzera. Edonor geure kasu berean balego, antzeko egoera erakutsiko luke.

Oso jende gutxik galdetzen dio bere buruari zer dagoen oker hainbeste gizonek oker joka dezan.

Seme-alabengandik eta maite ditugun emakumeengandik zein gizonengandik urruntzera eraman gaituzten rol hauek gu geu garenetik urruti kokatu gaituzte ere bai. Lan handia dugu aurretik benetan nor garen bilatzen hasteko; orain artean burutu lanak itxaropenerako tartea zabaltzen digu aldaketa egingarria dela ziurtatuz.

Gainera, azken 20 urteotan gizon taldeetan egindako lanak eman digun eskarmentuak erakutsi bezala bada gizonontzako ezkutuko errealitatea, aurkitu eta jabetu beharrekoa, kosta ala kosta.

Rol hauetatik eta beren min eta kalte fisiko zein psikologikoetatik suspertzen hasten direnean, gizonezkoek erakusten dute oso **Bestelako Errealitate Bat**:

H. GIZONEZKOOK EZ GARA ZAPALTZAILE, IZATEZ

Gizonezkoon aurkako aurreiritzia dago gizarteetan, gizonezkook, *izatez*, zapaltzaileak garela aurreikusten duen iritzia. Hau ez da guztiz zuzena, gizonezkook zapaltzen baldin badugu da lehenago baldintzatuak eta zapalduak izan behar izan dugulako, helburu argi batez: geroago zanpatzeko prestatuak izateko. Honek, gure uste apalean, gauzak aldatzen ditu eta itxaropen apurrak ekar ditzake generoaren indarkerian talde maskulinoak burutzen duen indarkeriazko giro jasanezin horretara.

Ez da gure izaeraren parte gizakiak zapaltzea, baizik eta gure “gizontasuna” – lehenbizi- eta –gero- gure “maskulinitasuna” garatu, bereganatu eta eraikitze prozesuaren parte (R.W.Connell 1997 Madrid.). Honek gure jokabidearen erantzukizuna baliogabetzen al du? Inola ere ez. Gure jokabideen emaitzen arduradun zuzenak gu geu gara; gure portaerek pertsonengan eta ingurumenean sortzen duten kaltearen arduradunak gara. Honetan lan antolatua eta sistematikoa egin beharra dago, aurrerago ikusiko dugunez, zanpatzeko baldintzapena eta joera bertan behera utzi ditzagun betiko eta berdintasunean, begirunean eta zuzentzan oinarritu bideak jorra ditzagun. Baina baliagarria da, oso, erantzukizuna eta erruduntasuna bereiztea. Errudunak bilatuz ez ditugu gizonezkoak laguntzen beren zanpaketa desegiteko antola daitezen, ez dugu arazoaren mamira jotzen, ez eta berau benetako konponbide iraunkorrean jartzen.

Gizonezkoekin lan egiterakoan bada emakumezkoekiko aintzat hartzeko alde bat: emakumeak gehiago prestatzen dituzte eta entrenatzen mina jaso dezaten eta horren aurrean isiltasunari euts diezaioten; gizonezkoak gehiago prestatzen eta baldintzatzen dira min hori burutu dezaten, gure gizontasunaren izenean, dugun sexuari dagokion ezaugarria bailitzan eta gure maskulinitasunaren eraikuntzaren begi-kate garrantzitsu bezala. Azken honi itsasten zaio gure gizontasun “titulua ” kolpeka defendatzea zilegia dela dioen

aurreiritzi hegemonikoa, hori bezain garrantzitsua dela gure ondasun denak defendatzea eta horretarako indarkeria baleko tresna dela. Ez ahaztu gure baldintzapenak pentsarazi digula emakumea ere gure ondasuna dela eta maskulinitasun kontzeptu okerrak berau "defendatzea" barneratzen duela, izaera gogorra eta auto-estima sendoaren adierazle gisa. Emakumea galtzea benetako mehatxutzat bizi daiteke eta hau gerta ez dadin (bai beste batek "lapurtua", bai emakumea bera "emantzipatua") indarkeria tresna nagusia dugula ulertzea bultzatu zaigu, zilegia, gizabidetsua, "benetako jauna"... kontzeptuaren izenean.

Uste dugu zentzugabeko indarkeria eta posesio kate horren kontzeptu okerra apurtzea gakoa dela indarkeria birsortzeari ezetza emateko garaian. Baina honetarako zampaketa benetako jatorriaz oharren argia eta ulermen garbia derrigorrezkoa da: **inolako gizakik ez lukeela beste inor minduko bera aurrez mindua izan ez balitz.**

Rol banaketa honek ez dauka inondik inora zer ikusirik geure gizon edota emakume izate naturalarekin, baizik eta zerikusia dauka pertsonen arteko sexu-bereizketarekin eta honi esleituriko botere-harreman eta erabaki ahalmenaren banaketa interesatuarekin, sexu-genero hierarkia ez zuzena eta ezarri honen bidez – eta beste zampaketa batzuen bidez-sistema kapitalistak lortzen dituen etekinen kudeaketarekin, hain zuzen, genero maskulinorantz bideratuak.

Konplexua izan daiteke hasiera batean hau dena erabat ulertzen, beste zapalketa batzuekin batera baitator sexismoa. Klasismoak, arrazakeriak, adultismoak... beren papera jokatzeko dute honetan guztian gu denok nahasten; genero-sexu zapalketa amaraun nahasi bateratu bihurtzen dute (Chafetz, 1988:5. Weeks, 1998:46, en Virginia Maquieia D'Ángelo; "Género, diferencia y desigualdad". Feminismos: debates teóricos contemporáneos; 2001).

Adibidez, hogei urteko gazte bat, gizonetzko izateagatik, berrogei urteko emakumezko bat baino boteretsuagoa senti daiteke eta, aldiz, berrogei urteko gizon baten aurrean kontrakoa, adinagatik gazteek pairatzen duten zapalketa dela eta. Era berean, koloreko gizon bat emakume txuri bat baino gutxiago sentituko da eta emakume zurien artean ertain klasekoa langileriakoa baino gehiago sentituko da. Kasu hauetan guztietan bada bestea baino gehiago sentitzen den norbait eta honek zapalketa gauza dadin hazia ezartzen du. Bai adinagatik, koloreagatik, klaseagatik, nazioagatik, erlijioagatik... **norbait beste norbait baino gutxiago den ideia** dabilen bitartean zapalketak iraungo du.

Emaitza da jende oso gutxi aukera dezakeela askeki – ia inortxok ere ez- gauza handirik zapalketetan oinarritu gizarite hauetan. Gizonetzkoek beren zampaketa eta emakumeak zapaltzeari uzteko behingoan -eta gainerako ankerkeriak ezabatze- gizaritearen egituraren eragin beharra dago, zapalketa horiek saretuta, erakundetuta eta zilegituta dauden gizarite egituretan. Ikus dezagun zer egin litekeen hasteko...

I.-IRTENBIDE BATZUK IKUSMIRAN

Jasandako kalteen eraginak ez du zertan betiko izan, zorionez; ez du betiko guregan zertan gelditu, beste erremediorik gabe. Kalte horiek badute konponketarik, baita min hauen bidez txertatu dizkiguten aurreiritzi, jarrera, joera eta sineskeriak ere. Hau edozein gizakirengan gerta daiteke; zampaketak pertsonari ezarri eta utzi dizkion aztarnak ondo grabatuta eta eragin handikoak badira ere hori dena hobetzeko eta aldatzen joateko modua badugu. Kalte hauek baliogabe ditzakegu eta elkarri eta ondokoei mina emateko eta zapaltzeko katea apurtu. Nola? Esan dezagun bi era nagusi ditugula:

I.1 sartutako informazio eta hezkuntza okerra baliogabetu, hala nola hauen jarrerak eta ondorioak, eta

I.2 informazio eta hezkuntza egokia ziurtatu, hau gauzatzeko behar den egitura eta askapen politikak diseinatu, berdintasunerantz iristeko.

I-1 EGINDAKO KALTEA OSATU. SENTIMENDUEN KUDEAKETA

Jasandako kaltea osatzea da pertsona guztiek dakarten giza espeziearen berezko gaitasun eta ezaugarria, eta behin aukera emanik gerta daiteke edozein adinetan, edozein unetan.

Mina gertatu orduko giza adimenak martxan jar dezake min horren eragina ezabatuko

lukeen prozesu natural bat. Gorputzak berak zauri bat sendatzen duen bezalaxe, zapalketek – eta hauek burutzeraz eramatean gaituzten jokabideek- sorturiko edozein min fisiko ala emozional, psikiko... senda liteke. Kaltea gertatu orduko, gertatutakoa beste norbaiti kontatu ahal izatea, kontuan hartua izatea, daukan garrantzia denbora eta lekua ematea eta kontakizun horretan piztu diren sentimenak adierazi ahal izatea da pertsona orok egin nahi lukeen zerbait, zapaldua izan ez den gizaki orok egin behar lukeena mina ezabatzeko. Baita sentimenduak ez agertzeko ala ez sentitzeko baldintzatuta izan diren pertsonekin (nagusiki gizonezkoak) ere funtzionatuko luke, sentimenduen kudeaketa egoki baten bidez.

Geure seme-alabek, mina hartuez gero - eroriko batean, kolpea hartzean, tratu txarren bat jasotzean...- negarraldia burutzen dute berehala, astintzen dira, oihu egin eta berotu egiten zaie gorputza, badakigunez. Hau ez dugu berria. Berria duguna da ulertzea sentikizun hauek erakutsi ahal izateak eta berauek adierazteak martxan jartzen duela berezko osatze prozesu mental bat, zeinak laguntzen duen utzitako marka – eta horren bidez ezarritako aurreiritzi, joera, jokabide...- hori ezabatzen, baliogabetzen. Hurrek prozesu hau martxan jartzen dute naturalki eta bat batean:

- tristura, etsipena, nahigabea, mina... sentimenduok adierazteko negarra;

- lotsa, iraindua ala iseka tratatua izatea... eta sentimenduok adierazteko gorri-aldia zein barre-aldiak;

- haserrea eta ezadostasuna, kexua eta kemena, injustizia edo tratu txarraren aurrean

- beldurra eta berau adierazteko gertatzen diren dardara eta izerdiak....

- Tentsio fisikoa zein emozionala eta honen ihesbidea diren aharrausiak eta gorputz luzaketak...

Hauek denak eta beste batzuk dira hurrek baldintzatutakoak izan aurretik modu naturalean kudeatzen dituzten sentimenduak eta beren adierazpenak. Zenbat eta gehiago kontatu gertatutakoa eta zenbat eta kasu gehiago egin pertsona horri gero eta lehenago adieraziko du gertatu zaiona eta lehenago baliogabetuko du egoera horrek sortu kaltea; ondorioz, azkarrago itzuliko da kaltea gertatu aurreko normaltasun egoerara. Hauxe da, dirudienez, minduak garenean, gizakion jokaera naturala; alegia, mina sendatzeko negarra, oihu, aharrausi, izerdi edota gorputz luzapenen eta dardaren bitartez zein barreaz gertatzen den prozesua da, minezko emozioak azalduz kaltea askatzen duena. Prozesu honek giza espeziearen bere-berezkoa dirudi. Hau era natural eta bat-batean gertatu ohi da edozein gizakirengan eta ahalbidetuko lioke pertsona horri duintasun eta bizi-kalitate maila on bat mantentzen, baita buru-estiman eta norbere asmoen gauzatze mailan ere.

Hezkuntzaz, aitzitik, emozio hauek adieraz ez ditzagun presio handia nozitzen dugu denok, “edukazio txarrekoa ” direlakoan, baina batik bat gizonezkoek jasaten dugu ez adierazteko baldintzapen hau. Benetako “gizon” izatearen izenean sentitzeko gaitasuna da ukatzen zaigun lehendabiziko gauza. Ondorioz, jasotzen ditugun kalte eta aurreiritzi guztiak bereganatu egiten ditugu, gure sentimenduak irensten ikasiz:

- ez negar egiten (“ahul hori”, “oilo hori”, “marineska hori !”...)

ez kexatzen (hori ez duk eta ezer, altxa hadi, bigun hori!...)

ez dardarik egiten ala beldurra agertzen (konporta zaitex gizon bat bezala, oilo halakoa! Ez izan koldarra!...) eta abar.

Adierazpide natural hauei bere martxa naturala eramaten utziaz gero, hots, kaltea gertatu orduko adierazten eta gertatzen utzirik- hertsatu eta moztu orde- egintza mingarriaren eragina ahulduko litzateke; hala ez denean kalteak eta bere markak hor diraute, grabatuta geratuko balira bezala eta honek ahalbidetzen du aurreiritziak, beldurrak, pentsamendu ezkorrak eta hauen araberako jokabideak gugan ezartzea eta gero burutzea. Martxa naturalean prozesu hau gertatzea ahalbidetuko bagenu berehala suspertuko ginatke min hauetatik eta ez genizkieke gainerakoei igorriko; tratu ez zuzena eten egin liteke errazago eta handik aurrera duintasunari errazago eutsiko ahal genioke nornahiren gizatasuna defendatzeko. Gai izango ginatke gure burua eta gainontzekoak ongi tratatzeko eta gutaz eta gainerakoetaz ongi pentsatzeko.

Ez bakarrik mutikoei, den-denoiz oztopatzen zaigu berezko sendabide hau erabiltzea, eta era honetan kalteak eta minak pilatzen joaten zaizkigu, umetan, zapalketa hasi aurretiko txikitako ilusio, alaitasun, lasaitasun, malgutasun eta lagunkoitasun balore haiek begi-bistatik galduz. Txikitako ezaugarri eder haiek iraunaraztea ahalbidetzen digun mekanismo natural hau gaizki ikusia dago jende guztiari "herentzia kulturalaz" debekatu egin zaiolako erabiltzea, baina batez ere haurtzaro goiztiarretik, mutikoei. Ez erabiltzeko arrazoi bakar eta sinplea da, *aurreiritzia*: uste izan baita beti sentimenduen adierazpena ekintza negatiboa dela, gaizki hezia izateko arrazoa, ahuldadearen adierazle, manipulatzeko tresna...Hau okerra da; gauza hauek dira sendatzeko mekanismo natural hau erabiltzeko debekuaren ondorioa.

Gure eskarmentuaren arabera, zenbat eta gehiago erabiltzen utzi sendabide hau haurra gero eta adimentsuago, autonomoago, elkarkoiago, zuzenago eta malguago hazten da. Zaila da kasu honetan haur hori beste bat zapaltzera bultzatzea; besterik gabe, ez du onartzen.

Umeak, aldiz, irrigarri uzten dira sendabide hau erabiltzen saiatzen diren bakoitzean eta berau erabiltzeko gogoak kenarazten zaio era askotan:

Iraineren bidez (Hara! Negarrez, berriz, mari-neska baten moduan!)

txantaiaren bidez (negar egiten baduzu zerarik gabe geldituko zara- postrea, jostailua, telebista...ez dizut hitz egingo, zigortu egingo zaitut edo nire maitasunik gabe...ez haserrarazi zure aita, bestela okerragoa izango da eta...)

indarkeriaren bidez (zaplaztekoa joaz... orain edukiko duzu negarra benetan egiteko arrazoa...hara! Hartzak! Ea, honela behingoz isiltzen haizen!) eta abar.

Sendatzeko gaitasun hau, ordea, oso-osorik mantentzen da sekula erabilia izan ez bada ere. Dena hasten da minei buruz hitz egiten uztearekin batera, gero etorriko dira sentikizunaren adierazpen gehiago: barreak lotsa askatuko du; aharrausiak tentsioa, estresa, presioa...; negarrak atsekabea, tristura, nahigabea, bakardadea; dardarak beldurra eta ikara...

Sendabide horietako bakar batzuk bakarrik dira baimenduak kultura gehienetan, era mugatuan bada ere: barre egitea, aharrausiak egitea, luzatzea, hitz egitea. Beste batzuk ez dira ongi hartuak (negarra, dardara, haserrealdia...) batez ere zein generotan ematen den arabera. Negarra – oso-oso sendabide beharrezkoa- genero maskulinoan femeninoan baino askoz zigortuagoa da kultura askotan. Honegatik gizonezkook zurrunagoak, ezkorragoak eta gogorragoak suertatzen dira emakumeak malguak, irekiak, baikorragoak... diren gai batzuen aurrean.

Gizon taldeetan egiten dugunaren lan gakoa da sentimenduen kudeaketan hezte eta berezko osatze mekanismo hau ager dadin eta funtziona dezan uztea, ahal den neurrian, hala nola gutako bakoitzari zein gure seme-alaba guztiei ezagutaraztea eta erabiltzeko aukera ematea. Gure eskarmentuaren arabera, gakoa dugu gure gizatasun osoa berreskuratzeko, bizi kalitate duina edukitzeko, emozio egoera argi eta sendo bat edukitzeko. Honek ahalbidetuko luke emozionalki zailak suertatzen zaizkigun arloetan erosoago ibili eta aritzea: zaintza, harreman eta afektuzko erlazioak, etxe barruko eremua... eta, azkenik, uko egiteko rol zapaltzaileak burutzeari eta edonor gaizki tratatzeari.

I-2 INFORMAZIO ZUZENA ETA HEZKUNTZA EGOKIA ZIURTATU. GIZONEZKOEN TALDEAK ETA FORMAZIOA

Zer da, gure ustez, informazio zuzena?

Batetik, sistema kapitalista zapaltzaile ustiatzaileak ezkututzen digun informazioa, bere diru arpilatzerako beharrezko dituen moduko gizakiak izatearen aurka garatu dugun gizon taldeetako dinamika eta bertan berreskuratu ahal izan dugun informazioa. Lau puntu hauetan laburbilduko genezake:

- I.2.1-Gizonezkootaz benetan zer dakigun
- I.2.2-Sexizmoaz benetan zer dakigun
- I.2.3-Maskulinitasunaz benetan zer dakigun
- I.2.4-Sexismoaren ezkutuko aldea

Informazio hau ezagutzea oso azpimarragarria dela uste dugu eta edozein gizon taldeetan erabili beharrekoa, bai hazkuntza pertsonalerako, auto euskarrirako, auto ezagutzarako, gogoetarako zein gizarte ekimenerako gizon taldeak izan ala beste eratako taldeak izan. Beharrezkoa deritzogu beste ikuspegi hau ezagutzeari gizonezkoen eraikuntza sexista zapaltzailea eraisteko eta bakoitzak rol sexistotatik at nahi duen moduko pertsona izateko aukeraz pentsatu ahal izateko.

Azken urteetan gizon taldeetan gehien burutzen ari garen lan mota da eta emaitza onenak ematen ari dena.

I.2.1 GIZONEZKOOTAZ BENETAN ZER DAKIGUN

Datozen hurrengo baieztapenak gizon taldeetan bizi izandako bizipenetan oinarrituta daude. Gizonak beraiek izan dira ideia hauek berretsi dizkigutenak, era batera edo bestera. Aurreko guztiarekin bezalaxe, ez da beharrezkoa zu ados egotea, nahikoa zaigu gaurdaino egon den ohiko ikuspegitik ezberdina den beste ikuskera berri bat eskaintzearekin, gogoeta egiten lagungarri izan dakizun.

Gauzak, zuzenak eta zuzen ditugu gustuko.

Zapalketak gu harrapatu baino lehenago eta kaltea guregan ezartzen hasi aurretik, edozein gizaki gisa, gizonezkook ere adimentsuak ginen, edonor begirune osoz hartzeko prest geunden gizakiak, mundu zuzen eta justu baten zale porrokatuak, gizarte parekide eta zuzen baten aldeko pertsonak. Prest geunden lanari taxuz ekiteko, denen bizitzak hobetuko zituzten gauzak egiteko. Denontzat hobe izango den mundu baten alde esku hartu nahi genuen, bitartekoek eta informazioak ahalbidetzen diguten bizimodurik onena eta duinena denontzat partekatzeko konprometituak. Amets handi eta ederrak genituen.

Zoritxarrez, ez genuen zapalketa ekiditeko egoera alde izan; hala eta guztiz ere ahal dugunik eta trebekien saihesten saiatzen gara ditugun zailtasunak eta oztopoak inor ez ziprztintzen, sarri honela irudituko ez duen arren. Zapalketak baliogabetu dizkigun gaitasunak berreskuratzen goazen heinean egoera horretarantz itzultzen goaz.

Gainerako jendeak arduratzen gaitu

Gure rolek behartu baino lehen, gainerako jendeaz arduratzea gogoko genuen, lagunkoi eta elkarkoi izan nahi genuen, zapaldu gabeko edozein gizaki lez. Jendea hobeto ezagutu eta ulertu ahala, gero eta maiteago dugu. Uste dugu pertsonen artean harremantzeko berezko modua begirunea eta maitasuna dela eta hori nahi dugu. Euren bizimoduez eta buruaz pozik eta harro dabiltzan emakumezkoak gura ditugu. Jagon ahal izango ditugun umeak nahi ditugu; gainera, beren gaitasun eta ahalmen guztiak ezagutu eta bide berri bat jorratzen utzi nahi diegu, denontzako abesgarri izango dena. Pertsona izate hutsaz harro diren gizonezkoak nahi ditugu, elkarkoiak eta bizitzarekin konpromisoa hartutakoak. Gainerako pertsonak ere gurekin ardura daitezen eta horixe adieraz diezaguten gustuko dugu. Finean, maite, maitatuak izan eta elkarrekiko lotura nahi dugu, zailtasunik gabe. Eta sexua, zentzuzkoa denean, ez beti.

Sentikizunen aniztasun osoa sentitzen dugu

Gure sentikizun batzuk antzutu baino lehen, bizitzaren izakiek eta gauzek sortzen zizkiguten tristura edo beldurra edo atsekabea edo zirrara sentitzen genituen erraz, baita kamusada, maitasuna, beldurra edota alaitasuna ere. Nahiz eta pertsona bakoitzarengan ezberdina izan, hunkipen aukera guztiak izaten genituen sentigarri. Bizitzak, bere pertsonak eta bere gauzek ukitzen gaituzte, edonor hunkitzen duten bezalaxe, kontua da hunkipena sentitu eta adierazteko eran oso-oso baldintzatuak izan garela. Irrikaz gara, berriz,

sentikizun guztiak sentitzeko gaitasuna berreskuratzeko eta adierazteko era ez kaltegarri batez, begirunezko eta eraikitzaile batez, hala nola besteen sentimenduak halaxe jasotzeko gaitasuna garatzeko ere.

Bizitzaz blai gaude

Ederrak diren gauzak sakonki maite ditugu, dela ondo eraikitako harresi bat, dela erakuspen matematiko bat, dela musika une bat, dela marrazki polit bat, lore eder bat, keinu maitagarri bat, esku leun bat, ahots goxo bat.... Mugitu nahi dugu, jolastu nahi dugu, indartsu bizi nahi dugu, sortu nahi dugu, eraiki nahi dugu, gozatu nahi dugu. Eta hau egin nahi dugu denekin, armonian. Gustuko ditugu erronkak, gure mugak gainditu eta hesiak apurtzen dizkigutelako. Ametsak ditugu, den-denok, eta ilusio handiak, eta hauek betetzea ez da guretzat amets, baizik eta helburu. Honen bizirik gaude eta honen bizirik nahi ditugu gainerako pertsonak. Muga irrazionalak ez ditugu gogoko inorentzat ez eta inork mugok sinistea ere.

Pozteko asko dugu

Nahiz eta bizi garen sistema zapaltzaile honek zentzugabekeria andana egitera behartu gaituen, gauza askotaz egon gintezke harro: zerura iristen diren eraikinak eraiki ditugu, baita elikatzen gaituen lurra antolatu eta gure alde jarri ere. Lanerako erabiltzen ditugun lanabesak asmatu ditugu. Bi lur bereizten dituen itsas gaineko zubi erraldoiak asmatu ditugu eta baita itsaso azpitik lotu ere. Bizia salbatzen duen ebakuntza-zirujautza sistema sortu dugu; munduaren bi muturretan dauden bi gizaki harremanetan jartzeko beharrezko gailuak asmatu ditugu. Hondamendi batzuk saihesteko nahikoa ezagutza garatu dugu. Espazioan hegan egitea lortu dugu; bizitza sortu eta aurrera atera ahal izan dugu gure esku-hartzerik gabe iraungo ez zukeen leketan...Gure aztarna utzi dugu munduan eta espero dugu ezagutzen dugun planeta hau onena izatea bertan bizi diren guzti-guztientzat. Zinez zaindu nahi dugu, babestu eta bere baliabideak zuzen eta egoki banatu gizaki denen artean. Honek egingo gaitu benetan zoriontsu.

Gutako bakoitza bakarra eta ebaluaezina da, norbera baita.

Geure irriak, malkoak, barreak, maitasuna, abestiak eta ametsak munduari oparitzen diogun edertasuna dira eta geure agerrera bera garrantzitsua da munduarentzat, oraindik ulertu ezin dugun eran. Ingurukoen bizitzetan eragiten dugu, ez soilik geure ekintzez, geure gogo onez ere bai. Bizitza bakoitza ordezkazina eta sekulan errepikatuko ez den zerbait sakratua da. Pertsona bakoitzak estimatzea, maitatzea eta errespetatzea merezi du eta horrekin buru belarri konprometitu nahi dugu. Planeta honetako gizaki bakoitzaren existentzia ospatu nahi genuke eta bere bizitza iraunarazi eta bermatu ahalik eta erarik zuzenen eta egokienean.

Oso ezberdinak gara eta, era berean, oso antzekoak

Neurri guztietakoak gara, kolore anitzetakoak, adin guztiak ditugu, milaka hizkuntzez egiten dugu berba eta gustu oso ezberdinak ditugu. Eta den-denok gara gizonezko, gizon oso, bakoitza den era berezi horretan, aurrez ezer bete beharrik gabe.

Eta, era berean, nahi bezain ezberdinak izan gaitzke. Nahi bezain langile gogor edota atsedeen-zale izan gaitzke. Edota nahi bezain goxo, leun eta samur edota nahi bezain ausart eta eragile. Nahi dugun motako gizonak izan gaitzke eta desiratu bezain bihotzonekoak. Ez dugu mugarik. Denok dugu bihotz handia eta bertan gorde nahi genituzke ezagutu ditugun pertsona guztiak. Era berean ez genuke nahi gure ezaugarriren bat erabili beharra izatea norbait kaltetzeko.

Aurrerantzean nahi dugun bizimodua hauta dezakegu.

Orain artean egin duguna edozelakoa izan dela ere, gizarteak dioskuna dioskula ere, zanpaketa barneratu dutenek gutaz diotena diotela ere, geure bidea aukera dezakegu, beti. Gure rolek eta hauen defendatzaileek oztopa diezagukete bidea, baina ezin digute kendu gure bidea hautatzeko, erabakitze ahalmena. Hau da, nahi dugun bizimodua lortu ahal izateko oztopoak gainditu eta lan egin beharko dugu elkarrekin eta elkarrentzat, bai, baina gure bizimodua aukeratzea geure kontua da, ez beste inorena. Eta, egia esan, tristeagoa da ez saiatzea, saiakeran huts egitea baino. Geure esku dago, eta batera egin dezakegun ahaleginaren esku ere bai, ditugun ametsen bila joatea eta hauek denak betetzeko lanean elkar euskarritzea. Eta ukazina da: gauzak nola nahi ditugun erabakitze boterea geure-geurea da. Erabakiak gustu handiz hartuko genituzke emakumeekin batera; hala komeni zaigu munduari buruz ikuspegi oso bat eskuratu nahi bagenu.

Dirudiena baino eskuragarriagoa da.

Geure esku dago maite dugun jendearekin egoten garen lekuetan bizi berri eta duina sortzea; geure esku dago denboraren neurri zapaltzaileari jaramonik ez egitea eta bizi izatearen edertasuna gogorarazten diguten gauzak egitea, nahiz eta gure rolek besterik dioten. Geure esku dago ihartzen gaituzten lanak alboratzea, atsedena hartzea eta gure maiteekin egotea ahalbidetzen diguten aukeratzea edota sortzea. Geure esku dago, geure seme-alabak behar bezala zaintzea, edota seme-alabarik ez edukitzea aukeratzea eta gizon oso izaten jarraitzea. Geure esku dago helmugak aukeratu eta beroriek lortzeari gogotsu ekitea. Geure esku dago geure burua zaintzea eta bizitza luzeagoak, aberatsagoak, osasuntsuagoak, zoriontsuagoak... bizitzea. Geure esku dago maite ditugun pertsonen zein lagun hurkoez inguraturik bizitzea, baita nor maite izango dugun eta gure bihotzaren erdi-erdian nor kokatuko dugun hautatzea (gizon bat, bi... emakume bat, bi... lagunak, seme-alabak, sendikoak...). Osozunean erdigunean bizitzea dagokigu, denei bezalaxe, inori gizalegez dagokion ezer kentzeke.

Gizonon eta emakumeen antolaketa

Eta hau guztia emakumeekin batera egin nahi dugu. Pentsatzen dugu pertsona zoragarriak direla, guztiz adimentsuak, trebeak, duinak, ausartak, ahaltsuak, elkarkoiak... giza auzi guztietan. Honetan guztian beraiekin batera lan egin nahi genuke, ukalondo

ukalondo.

Hau gertarazteko nagusiki eta hasteko, bi frontetan antolatu beharra daukagu:

-Gizonezkook antolatu beharra daukagu gure artean rol sexitak gainditzeko eta hauek sortu dizkiguten kalteak osatzeko, eta

-Gizonezkook emakumezkoekin antolatu beharra daukagu sexu-genero sistema zapaltzaile hau bertan behera uzteko. Emakumezkoen lidertza euskarritzeari oso garrantzitsua deritzogu, lan ildo hauetan gizonezkoen lidertza sustatzen dugun bitartean, denon artean sexismo gehiagorik igor ez dezagun, ez gizonezkook ez emakumezkoek, ez mutilek ez neskek, ez aitek ez amek, ez maisuek ez andereñoek, ez inork.

I.2.2 SEXIZMOAZ ZER DAKIGU BENETAN

Bost postulatu garrantzizko:

I- Sexismoa gurekin egon da mendeetan zehar, ez da gaur goizeko kontua.

II. Jaiotzen garen gizarte eta kulturak -eta hauen erakundeak- sexistak dira, oro har, gustatu ala ez, beraiekin ados egon ala ez.

III- Sexismoaren minak, nahasmenak eta kutsadura gure baitan iltzatzen doazkigu, jaiotzearen berehala, beraz

IV. Ez da erraza ideia argi bat edukitzea sexismoa zer den eta nola eragiten gaituen, errealitatearen zati gisa ikustera ohitu baikara txikitandik.

V- Sexismoa zer den zehazten ez dugu bukatu, ez da prozesu laburra. Lan asko dago egiteko; baina jada lan asko eginga da eta zerbait zehatza badakigu.

Aurkitu ditugun gauzen artean hauek lirateke punturik garrantzitsuenak.

1. Rol garrantzitsua jokatzeko du, fronte askotako borroka nahastuz: arrazismoa, klasismoa, adulesentzia... Azken hauek nekez uler litezke sexismoa aintzat hartzeke eta alderantziz.
2. Sexismoak jendeak elkarrekin pentsatu eta aurrera mugitzea galarazten du. Gizaldiak min hauetan kateatuta mantentzen ditu.
3. Ez dugu pentsatzen sexismoa gizakiengan berezko denik.
4. Ez dugu uste sexismoak betiko iraun behar duela. Beraz ez gaude bakarrik bere aurka baizik eta beraz guztiz ezabatzearen alde.
5. Denok gaude sexismoak jota. "Kutsatu" egin gara, jaio garen gizarteak eta hauen erakundeak sexistak direlako.
6. Sexismoaren aurka borrokatzen gara baina ez da erraza edo laburra, bere eragina baduelako gu guztiongan:
 - Zatitu egiten gaitu,
 - Elkarren aurka jartzen gaitu...
 - Bereiztu egiten gaitu,
 - Ustedu eta
7. Ez digu ongi pentsatzen uzten berari buruz, ez eta gure buruari buruz ere. Elkar kritikatu, mespretxatu eta erasatera garamatza, geure burua barne.
8. Giza gogamen batentzako gauzarik kuttunen eta interesgarriena beste giza gogamen baten aurrean egotea da. Hau sexismoak berehala ustelduko du.
9. Inor ez da sexista jaiotzen. Ume oro jaiotzen da jendearekin ongi konpontzeko gogobetez. Generoak ez du garrantzirik bizitzaren lehen hilabeteetan, haur txikiak erakusten diguten bezalaxe.
10. Honelakoxeak mantentzen gara gauzak zail jarri arte. Eta gauzak zail jartzen zaizkigu oso-oso goiz, lehenbiziko hilabeteetan:
11. Egun bakar batean gizakiok ehunka mezu sexista jasotzen ditugu (eskola, gurasoak, aitona-amonak, erakundeak, egunkariak, aldizkariak, iragarkiak, liburuak, ipuinak, filmak, komikiak, play-station-ak, telebista...). Nahastu egiten gaituzte eta ezin dugu argi pentsatu honi buruz, ez gutaz, ez eta zer gertatzen ari zaigun ere.
12. Hezkuntza sistemak, oro har, sexismoa bere horretan mantentzeko diseinatuak daude, hari aurre egin eta zuzendu beharrean.
13. Behin sexismoak jo eta gero min honek luze irauten du, harremanen eta jendearen irudia suntsitzen digularik, elkarren beldur, mesfidati bihurturik.

14. Ezberdinak garela pentsatzen hasten gara, ezin garela inortaz fio, edo batzuk besteak baino gehiago/gutxiago direla...hobeak, txarragoak...
15. Gizarteak bereziki, hezi, prestatzen ditu gizonak emakumeen zapaltzaile izan daitezen, eta emakumeak sumitu izan dakizkien.
16. Emakumeak dira sexismoaren zuri-gune zuzena. Gizonezkoak eragileak (agenteak).
17. Emakumeak sumitu bihurtzeko, hezkuntza kultur baldintzapen sistematikoa latza jasaten dute oso goiz eta egunero-egunero. Eragile bihurtzeko, gizonezkoek "deshumanizazio" prozesu gogorra pairatu behar izaten dute: sentitzeko gaitasuna baliogabetu haurtzaro osoaren zehar, gerora ezer senti ez dezaten min ematerakoan, zapaltzerakoan.
18. Baldintzapen hauen eraginak ez badira desegiten jendearen bizitza higatua gelditzen da eta sexismoaren igorle bihurtzen dira:
- Pertsona asko, sexista aktiboak, gizonezkoak zein emakumezkoak, ohartu izan ala ez izan.
 - Beste batzuk, sexista pasiboak: sexismoaren kutsapena daramate eta jakinean daude baina ez dute abiarazi nahi, ez dute horretan oinarrituta bizi eta jokatu nahi.
19. Sexismoa ezaba daiteke gizarte eta erakundeetatik, baina baita ere gizaki bakoitzarengandik. Azken hau erronka oso garrantzitsua da. Min hauek nola ezabatu, abiapuntu bat: Sexismoak jotako pertsona bakoitzak bere historia kontatzeko aukera izan behar du. Honetarako leku aproposak, taldeak, antolatu beharko dira bakoitzak aukera eduki dezan sexismoak nola eragin duen kontatzeko. Agian, hasieran, emakumeak eta gizonak bereiz bildu beharko dira, bereiztutako gizon eta emakume taldeetan, nahasmenak, igurtziak eta azpi-janak ekiditeko.
20. Behin eta berriz kontatu, ez bakarrik hitzak, gertatutako guztia baizik. Honek lagunduko du pertsona hori bizirik eta argi egoten urteetan ezkutuan ekarri behar izan duen leku ilun eta nahasgarri horietan.
21. Gure gogamenean txertatu diguten nahasmena arintzen dugunean ohartzen goaz zein rol garrantzitsu joka dezakegun denok sexismoaren aurka: "sexismoa ez sinistea errealitatearen zati bat bezala, baizik eta eraikin sozio-kultural gisa".
22. Aukera-aukeran, inork ez luke sexista izateko erabaki zentzugabea hautatuko.
23. Sexismoak ez du zaintzen nor jo eta nor ez; denak jotzen ditu, denak kutsatzen ditu. Aintzat hartzen duena da nor NOLA jo, bere ezaugarrien arabera. Ez da errudunak bilatzeko kontua- denok gaude txalupa berean- irtenbideak bilatzeko

kontua da, eta honetan denok dugu tokitxo bat.

I.2.3 MASKULINOTASUNAZ ZER DAKIGU

Aurreko atalean ikusi dugun eran, sexismoa eraikitzen da generoen arteko ezberdintasun biologikoaren gainean, hots, bizi garen gizarte sistema honetan posible diren bi genero bakarretan pilatzen diren gizaki guztiak antzeko balira bezala, (edo izan beharko balute bezala) eta molde hauetatik at gelditzen direnak akastunak baliran. Maskulinitasuna sortzen da ezberdintasun hori mantentzeko ezaugarri, balore eta jokabide multzo baten gisa eta egoera horretatik sistemak lortzen duen etekin itzela legitimatzeko. Gizonezkoak zein ezaugarri eta jarrera bete behar dituen ezartzen dio, hain zuzen emakumea zapalduta mantentzeko rolerak agintzen dituzten ezaugarriak.

Guk, gizakien arteko generodun diferentzia kualitatibo hori ez dugu onartzen, are gutxiago berau erabiltzen denean bere bidez hierarkiak eta sailkapenak egiteko, alegia, zatiketak, banaketak, liskarrak eta bidegabekeriak ekarriko dituzten oinarririk gabeko sailkapen eta etiketatzeak. Ezberdintasuna erabiltzea ("bi sexuen " arteko antzekotasunak baino ia ehun aldiz gutxiagokoak) aldea –diferentzia- markatzeko den metodologia oro arbuiatzen dugu. Beraz, maskulinitasunak, era eta funtzio horretan ez du, guretzat, zentzurik; bakarrik mesede egiten dio sexismoa iraunarazteari, bi generoak zatikatuta eta aurrez- aurre jarrita eusteari. Eta sailkapen honetatik mesedea soilik gaur egun indarrean den eta gure gizarteak gizatzen dituen botere sistemarako da.

Gizarteek ingurumari honetan saltzen dizkiguten gizonezko eta emakumezko ereduak ez digute balio. Pertsona izateko eredurik ez dagoen bezalaxe -norbera da izateko beronen eredurik egokiena- ez dugu uste gizon izateko era estandarrik badagoenik, ez eta egon behar lukeenik ere. Bakoitza da -emakumea zein gizona- emakume izateko, gizon izateko, azken buru, pertsona izateko eredu bakarra eta errepika ezina.

Sistema honetatik at zentzurik al luke bestelako maskulinitasunik? Oraingoz ez dugu ez zentzuzko ez eta beharrezko ikusten gizonezkoak emakumezkoengandik bereizteko joera hori, biologia kontu hutsa ez den arloetan, eta helburu biologiko duinekin ez bada, jakina. Gaurdaino, genero bat bestearen gainean kokatzeko interesez erabilia izan da. Eta honek ezin du honela segi.

Zapalketarik gabeko balizko egoera batean maskulinitasuna beharrezkoa izango al da?

Ez dugu uste. Pertsona izatea izango da garrantzitsuena, oinarrizkoena eta eskubide ororen subjektua. Gizon ala emakume izatea, ilea horia ala beltzarana izatea bitxikeria den bezalako gertaera soilak izango da, inolaz ere eskubide, baldintza, mesede, kalte... eta abarren sortzaile.

Bada gauzak hobeto egiteko modu bat; uste osoa dugu.

I.2.4. SEXISMOAREN EZKUTUKO ALDEA:

EZARPENA ETA GARAPENA²

Azken 16 urteetan aukera polita egokitu zait gizonezko askoren bizitza hurbiletik ezagutzeko, "gizonezkoen taldeak" izeneko ekimenari esker.

Talde horietan kolore guztietako historiak, gertaerak, bizipenak, gogoetak, tragediak, sentikizunak, ametsak... entzun ahal izan ditut, zuzeneko lekukotasun paregabea, gizonezkoek gutxitan kontatzen duten barneko korapiloen multzo sekretua. Honek hausnarketara eraman nau zuzenean eta horixe da zuekin konpartitu nahi nukeena, zeren eta talde hauetatik hartu dudak eskarmentuak eman dit orain arte sexismoaz ez nuen ikuspegi berri bat, sexismoaren ezabatzeari buruz ikuspuntu berri eta itxaropentsua ekar dezakeena.

Denok jakina da bizi garen gizartean zapalketa anitz badela, hots, giza talde batek beste giza talde bat zanpatzen duela, gehienetan etekin ekonomikoak edo abantaila laboralak ... lortzekotan. Adibidez zuriak beltzak esklabutzara behartu ohi izan dituzte; egun ez bakarrik beltzak, bestelako arrazakide batzuk esklabotzapean bizi ari dira. Aberatsek behartuak ustiatzen dituzte; nagusiek langileak; helduek gazteak; gazteek adin txikikoak;

² Emakundek antolatutako eta Kursaalaren ospatutako *Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean* nazioarteko kongresuan emandako hitzaldia, 2001eko ekainean.

gizonezkoek emakumezkoak; garai batean kristauak, judutarrak, protestariak , indiarrek, larrudun piztiak... izan ziren zapaldu eta jazarriak.

Honi buruz hitz ugari egin da, zapalketa hauen ondorioak eta emaitzak aztertu dira. Emaitza hauen arabera ekimenak, plangintzak, kanpainak, plataformak, erakundeak, erantzunak... eratu eta burutu dira, era guztietakoak, eta hauen emaitzei buruzko datuak ikerketak, inkestak etab., kaleratu izan dira azken hamarkadetan. Egindako lana eta aurrerapena baikorra izan da oso, batik bat emakumeek egindako lan, ahalegin eta kontzientzia hedapena, guri interesatzen zaigun gai honetan: sexismoa.

Beraiek zabalduetako borrokari esker gaude gu hemen, gizonezkook, ia zeharka etorri zaigun arazo honi argitasuna jarri nahian, azken finean konturatu baikara gu geu ere zuzenez eragiten gaituela.

Bai, zapalketak eta beren ondorioak mintzagai, bala-bala, denen ahotan ibili izan dira, baina, nire ustez, hitz gutxi egin da zapalketen zergatiaz, eta honen inguruan kokatu nahi nuke gaurko hitzalditxo: **Gizonezkook zergatik zapaltzen ditugu emakumezkoak?** Jende gehienak ez du hau ezagutzen eta ondorioz gizonezkoak berez zapaltzaileak direla uste ohi da. Honek ez digu itxaropen gehiegirik ekartzen sexismoa desagerrarazi nahi badugu, gizonezkoak berez sexistak baldin badira lan izugarria izango genukeelako sexismoa eteten, zeren eta sexismoa etenarazi nahi bada derrigorrezkoa da gizonezkoek emakumezkoak zapaltzeari uztea. Baina baditugu zantzu batzuk gizonezkoak ez direla sexistak jaiotzen sinisteko, baizik eta jaio egiten direla sexista den gizarte batean, hazi egiten dira sexista den kultura batetan, hezi egiten dira sexista diren instituzioetan eta hauen hezkuntza politika sexistetan, sexismoak jotako sendiengan eta senideen artean. Beraz ez da zaila aurreikustea honetatik guztitik rol sexista guztiak ongi barneraturik aterako direla, emakumeak zapaltzeko prestaturik. Ikus dezagun, orain, hau dena nola gertatzen den:

EZKUTUKO CURRICULUM SEXISTA

Nola eta non gertatzen da hau guztia? Gizartean bada ageriko curriculum bat, denon ezaguna, etika, morala eta bizikidetzari buruzko araudia duena: pertsonak begirunez hartu behar ditugu, giza-eskubideak errespetatu behar dira, denok aske jaiotzen gara eta heziketa, etxebizitza, lanerako, aisialdirako... eskubidea dugularik; ikasteko, elikagaiak eskura izateko eta pentsatzen duguna adierazteko eskubideak denonak direla nekerik gabe aitortzen dugu... Guztioi ongi iruditzen zaigu curriculum hau, ados gaude berarekin, irakatsi egiten dugu ikastetxeetan, sendietan, aukera dugun guztietan eta berorietan oinarrituta bizitzen saiatzen gara, hor nahi ditugu gure seme-alabak. Hor sinesten dugu gizarte duin batetan.

Honekin batera, eta paraleluki, bada gizarte honetan ezkutuko curriculum bat, ezagutu ez baina belaunaldiz belaunaldi igorri egiten dena, urteetan zehar, bizi garen gizartea osatzen dugun ia pertsona guztiok horretan parte hartzen dugularik, nahita ala nahi gabe. Ia

inor ez dago ados berarekin, inor gutxi defendatuko luke eta denok baztertu nahiko genuke gure bizitzetatik; baina, hala eta guztiz ere, oraindik ere gertatzen uzten dugu, hain ohituta baikaitu bere presentziara! eta. Belaunaldiz belaunaldi gugana heldu da, eta guztiguztiongan du eragina: barneraino sartu zaigu eta guk geuk igortzen, transmititzen duguna, berarekin bat ez gatozen arren. Ezkutuko curriculum honetan aurkitzen ditugu sexistak diren ideiak, sinismenak, aurreiritziak, ohiturak... matxistak diren jokabideak, jarrerak, pentsamoldeak... gizakiaren aurka doazen erak, baloreak, rola... Gizonezkoei egokitzen zaizkien rola eta emakumezkoei egokitzen zaizkien rola, bi generoak kaltetzen behartuta aurkitzen diren rol zentzugabeak. Ikus dezagun nola gertatzen den hau, beti egon ohi da eta salbuespenik:

0.-HAURTZAROTIK HASITA

Hamabost urtez gizonezkoekin ukalondo ukalondo lanean eta hogeit hamar urtez ikastola, ikastetxeetako, parkeetako jolastokiak eta umeen aisialdi guneetan behatuz, nahikoa informazioa bildu ahal izan dut hurrei buruz. Hor ditugu haurrak, gizaki gazte horiek, bizitzaren lehenengo 1-2-3 urteetan denetaz gozatzeko prest, denari buruz jakiteko irrikaz, denekin jolasteko eginak, baldin eta urte motz horietan bizitzak, eta bizitza horretan bizi dugunok, gogor eta estuegi hartu ez baditugu. Lasai asko ibiltzen dira elkarrekin haurrak beren jolasak partekatuz, beren ametsak, fantasiak gauzatuz neska-mutilak **elkarrekin**, jariatasun emozional etengabe, gauza guztiekin gozatuz, hunkituz, barreak, algarak, negarrak eta abar lotsarik gabe kanporatuz, erakutsiz, etengabeko interakzio kolaboratzailean, jolasak eta jokoak burutuz, bai jantzirik parkeetan, kalean, bai biluzik hondartzan, igerilekuan... Ez zaie axola generoa, ez sexua, berdin die zer den bere jolaskidea, neska ala mutila den... bost axola. Nahi duten bakarri ongi igarotzea da, batek ez badu jolastu nahi, berdin dio, beste batengana joko du jolas eske. Elkarrekin ikusten zaie, hurbil, bizi-bizirik, alai, oso lagun, ...

Bi-hirugarren urtea betetzerakoan eskolan hasiko dira, Haur Hezkuntza deritzan horretan; 2-3 urte betetzerakoan giroa aldatzen hasiko da poliki-poliki, beraiek ohartzeke. Eguneroko marrazkietan, liburuetan, ipuinetan, inguruko helduengan eta hauen jokabideetan, jarreretan. Iruzkinetan... txisteetan, iragarkietan, egunkarietan, filmetan, telebistan, jantzietan, jostailuetan... amaierarik gabeko kultur osagarrien bidez ikusten, sumatzen hasiko dira zerbait: **neskak eta mutilak ez dira guztiz berdinak**, ez dute trataera bera jasotzen.

Gainera, urte honetan eta hurrengoan (3-5) mutikoei curriculum ezkutuko roletako asko ezartzen hasiko zaizkie³: ez negarrik egin! ez izan mari neska! gogorra izan, zure aita bezalakoa! Ez erakutsi sentimendurik, ez izan "ahula", "biguna", ez izutu ezeren aurrean, itxura eman beti dena ongi dagoela, kanpoan zein zuregan, dena dakizula, dena ahal duzula, ez erakutsi sentiberatasunarekiko zirrikiturik, ez etsi, aurrera segi kostala ala kostala, ez jotzen edo zapaltzen utzi, behar bada hik lehenago jo ezak, ez fio izan inorekin... bizitzak egurtuko hau eta espabila hadi...

Mutiko kozkorraren emoziozko bizitzaren aurka zuzenean doazen rol multzo honek eragiten dizkio agindu eta presioak modu batera izateko. Ezin ditu gauzok ulertueta bereganatu era baikor batez. Ez doaz bere gizatasunarekin ez berarekin bat. Konturatuta bere inguruko helduek zein presioa eragiten dioten, mutikoa zinez saiatuko da sentipenen bat azaleratzen hasi orduko, irentsi eta barrurantz bultza egiten, helduek, dirudienez, berarengandik espero dutena betetzeko. Bestela zaila izango zaio onartua izatea. Presio handipean eta baldintzapen zorrotzaren bidez bakarrik beregana ditzake jokabide eta balore zorrotzok. Ikusten hasiko da beraren onarpena pertsona bezala jokabide hauek betetzearen arabera etorriko dela.

Garai batean jasotzen zituen, etengabeko ukimena, laztan mordoia, afektuzko keinuak, babes emozionala eta fisikoa, besarkadak etab., behar beharrezkoak zaizkio osasuntsu hazteko eta emozionalki orekatua garatzeko baina hauek guztiak urritzen hasi dira abiadura handian eta etorkizunean gizartean jokatu beharko duen "benetako gizonezko" baten jokabide zurrun eta gogorrenatik trukatuak, ordezkatuak izaten hasi dira.

Ez da hau zehatz-mehatz neskei gertatzen zaiena. Maitasun keinu hauek ez dira desagertu nesken multzotik; haiei bai uzten zaie beren afektiboazko arloarekin, sentikizun munduarekin kontaktuan epe luzeago batez egoten; noski neskatoengandik gizartean rol gogorak, agintariak, autoritarioak, zurrunak... betetzea espero ez denez, txiki-txikitandik neskatoek, gaitzespen eta gutxiespen neurri garaien bidez, garatzen dituzte menekotasuna, sentiberatasuna, maitasuna, afektibotasuna, hurbiltasuna, ulergarritasuna... eta beren barne munduarekin lotuta hazten dira, oso gutxi espero da eta haiengandik kanpoko mundura begira, zoritxarrez. Sentimenduzko arlo horrekiko loturan egote honek ezarriko du aldea neska eta mutilen artean. Hauek jarrera gogorrak, zurrunak, bortxazkoak, hotzagoak, berekoiak, egoskorragoak, lehiakorragoak, urrutikoak, azalekoak, isolatuak, mentalak, arriskutsuak... garatuko dituzte, orokorrean.

I.- LEHENENGO ZUTABEA

Mutikoek ezberdintasun hau antzematen dute erraz eta beraiengan ondorioztatzen duten lehenengo ideia errotzen joango den sexismoaren lehenengo zutabea izango da: "**neskak ezberdinak dituk**". Eta mutikoek ezkutuko curriculum hartatik jasotzen jarraituko duten mezuek ideia baieztatu eta indartuko diete. Neskatoekiko arlo batean halako mesedezko tratua ibiltzen dela ikusten dute, negar egiteagatik ez dituzte ez joko ez zigortuko, ez dituzte horrenbeste eta hinaestetan gaitzetsiko euren sentimenduak agertzeagatik, ez dituzte hertsituko eguneko ordu guztietan gizaki gogor eta zurrunak, inposatzaile eta harroak, lehiakorak eta eraginkorak izan daitezen, hots, ez dituzte esparru publikoan gogor lehiatu eta borrokatzeko prestatuko, esparru pribaturako baizik (etxe barrua, umeen eta helduen zaintza: maitasunezko jokabideak, samurrak, ulerkorak, jasankorak, menpekoak, apalak,...) eta mutilek ondorioztatuko dute sexismoaren

II.-BIGARREN ZUTABEA

ezkutuko curriculum horretatik datorren ideia batetan oinarrituta- neskekiko “mesedezko egoera desorekatsu horrek gehi mutikoen gain-balorazioa eta nesken gutxiespenek ugaldutako ideia-: **“mutil izatea neska izatea baino hobeagoa duk”!** Eta mutil izatea hobeagoa bada, noski, neurri handi batean da neska izatea okerragoa delako, haien ustez.

Mutikoen lauzpabost urterekin garatuko dute halako jasankortasun gabeko jokabide obsesiboa neskekiko. Neskak bihurtuko dira mutikoen zuri-gune, diana, mutikoen pairatu behar duten presiorako ihes-balbula; eta neskak gaitzetsi, izoratu eta erasotzeari ekingo diote hurrengo hilabete luzeetan. Batzuetan mendekuzko jokabideak ikus litezke mutikoengan; ez dakigu ziur zerikusia duenentz neskek jasotako trataera “hobexego” horrekin.

Hautzaro goiztiarrean lagunik hoberenak zirenak, amets guztiak konpartitzen zituzten jolaskide maitagarri paregabeak bi talde ezberdinetan kokarazi ditugu, aurrez aurre kokatu eta hemendik aurrera ia-ia heltzarora arte doan bolada luzean iraungo duen enfrontamendu batetan. Jolastokietan mutikoen neskei ileetatik tira, baloikadak jo, gonak altxatu, soka lapurtu, mespretxatu, iraindu, irrigarri... utziko dituzte neskatoak.

Neskak, erabat harriturik, beren garairik hobereneko jolaskideen jokaera berriarekin beldurtuta biziko dira mutilen aldaketa honen aurrean eta ez dute ezer jakin nahi izango mutilekin; jolasak aparte egin nahi izango dituzte, ez diete mutikoei euren elkarrizketetan, jokoetan, planetan sartzen utziko: “hain dira astakiloak mutilak”! pentsatzen dute.

Jakina, mutilek beldur hau sumatuko dute eta nesken aurka grinatsuagoki ekiteko aitzakiatzat erabiliko dute; mutilei dieten beldurra areagotuko da neskengan eta neskek beldurraren erantzule mutilak bihurtuko dituzte. Mutilek uste dute, aitzitik, neskak beldurti hutsak direla, beraiekin ezin dela ezer egin eta erruduntzat joko dituzte: “ez dute ezertarako balio”.

III.-HIRUGARREN ZUTABEA

Lehen Hezkuntzara sartu gara jokabide hauekin eta orain oinarritzko hezkuntza honen hasierako urteetan mutikoengan gauzatuko da hirugarren zutabea. Mutikoak beren barne munduari nahikoa uko eginda daude jada eta ikasita ere bai ezin direla izan berauek direna, baizik eta beraiengandik espero dena. Honetan gogotik ahaleginduko dira eskatzen zaien ereduak izaten, hots, onenak, lehendabizikoak, paregabeak, ahaltzuenak, azkarrenak, indartsuenak... eta, nahi eta nahi ez, lehiatu beharko dute beraien artean. Honek zapuztuko ditu beren arteko harremanak. Onenarentzako leku bakar bat dago, ez besterik, lehen-lehengoa pertsona bat bakarrik izan daiteke, ez bi, beraz, hasiera batean ume guztien laguna izan zitekeen umea, gerora, bakarrik mutilen laguna izan zitekeen eta hor mantentzen zuen bere harreman afektibozko arloa -rol gogorrek uzten zioten neurri txiki horretan- baina orain ez eta hori ere. Lehiatu behar du bere lagun onenekin giro zakar eta atezu batean murgildurik.

Liderrak sendotzen ari dira adin honetan eta zenbat eta gauza, balentria... zailagoak egin gero eta onarpen handiago lortuko. **Lehen laguntzat, adiskidetzat zituen asko orain lehiakide, areriotzat izango ditu** gainerakoen eta helduen onarpena jasotzearen. Onarpena denok dugu beharrezko, baina kasu honetan ez da emango norbait denagatik,

baizik eta beren portaera roletan murgilduta duten pertsona helduen nahierara moldatzeagatik, eta honela ez da inolaz ere errazten norbait bere buruarengan ardazturik, zentratuturik haz dadin, aurkakoa baizik.

Eta zoritxarrez jokabide honetan neskei erasotzeak garrantzi handia hartzen du, batez ere, oinarrizko hezkuntza honetako urte hauetan (7-8-9-10...), bai nesken zein mutilen ereduari segitzen ez dioten mutikoen aurka (Bulling). Eragile honek zama izango du mutilengan ezkutuko curriculumazabaltzen hasi den beste mamu batengatik:

IV.-LAUGARREN ZUTABEA

Homosexualitatearen mamua; homosexual izatea neska izatea bezain txarra da:

“Edo gurekin zaude edo neskekin ” eta gurekin bazaude badakizu nor izorratu behar duzun: neskak. Eta beraiekin bazaude marineska zara eta “guk geuk emango diagu egurra ”. Lelo honek bere agintea ezarriko du lau haizetara.

Beraz aukerak oso zehatzak dira: neskekin ongi moldatzen bazara, marineska, arraroa, afeminatua eta mutilen zapalketa jasoko duzu, eta betirako markatua utziko zaituena – homofobiaren hastapenak, building-ak...- eta ordea mutilen multzoan egotea erabakitzen baduzu, mutilen “arauak ” bete beharko dituzu eta hor listoia oso altu dago: neska guztien aurka egin beharko duzu eta baita, lehiaketa dela eta, mutil gehienen aurka ere- onena izateko, norbait izatea lortu nahi baduzu. Egoera honek iraun dezake nerabazarora arte.

EMAITZA: Zer dugu hemen, zer da ingurumari hau guztia?

Zeharo gizatiarrak jaio diren umeak, bizitzaz beterik, sentimendu eta emozioez gainezka, elkarrekin jolasteko begirunez eta irrikaz beteta, kooperatzaileak, lagunak, gardenak, alaiak, solidarioak, genero bereizketarik gabeko umeak, orain, erabat ez gizatiarrak diren jokabideetan murgilduta aurkitzen dira, elkarri mina eginez, elkar zanpatuz, gaitzetsiz, arerio giro batean, %100ean gizatiarrak izateko oso aukera urriekin, bi multzo ezberdinetan zatituz, generoaren arabera kilometroetako amildegi baten bi ertzetan aurrez aurre kokatuak. Batetik mutilak neskak gorrotatzera iritsi dira eta beraiekin ongi moldatzen diren “sasi gizon” guztiak ere bai eta, bestetik, neskek ez dute tutik ere jakin nahi “astakirten hutsak” diren mutilekin: “eguna ederragoa da gure begi bistatik at daudenean”.

Bakoitzak bete behar dituen roletan eragiten diete gizatasuna; mutilek ikasi dute ondo asko beren emozio arloa isolatzen, izozten; errazago zaie ez sentitzea, sentitzea baino; jokatu beharra daukaten rol ezgizatiar horiek gauzatu ahal izateko hobe ez sentitzea. Baina, honen ordaina gero etorriko zaie: sentitzeko zailtasunak, gaitasun eza kasu askotan, nor diren, zer nahi duten, zer pentsatzen duten, nolakoak diren jakiteko arazo larriak, depresioak, frustrazioak, zaputzak, ikasteko eta kontzentratzeko arazoak, urduritasuna, egonezinak...

Inork aukeratu ez dituen, eta gustu handiz errefusatuko lituzkeen rol ezgizatiar horiek kalte besterik ez diete ekartzen, bai neskei zein mutilei. Hain bizitza elkartuak eramaten hasi ziren ume haiek oso bestelako bidea egin dute, ia-ia 180 gradu kontrako norabidean.

Elkarrez ez dakite kasik ezer. Mutil askok ez du ulertzen nesken mundua, “ia-ia estralurtarrak” iruditzen zaizkie –nerabe aroan gaude ia-; eta neska askok antzeko, ez dituzte ulertzen mutilen jokabide eta erreakzioak, eta “hobe haiengandik aparte samar ibiltzea”.

V.-BOSGARREN ZUTABEA

Ezkutuko curriculumak ez du lana bukatu oraindik; nerabegarotik gertuko adin honetan mutileri belarrira xuxurlatuko die: **“orain neskak konkistatu behar dituzu”**, euren gustuko izan eta, noski, beraiek maitatzeko era bakarra da sexuaren bidez. Eta neskei, mutilak erakarri behar dituztela, limurtu, eta jakina, beraiek maitatzeko era dela mutilek esan eta egiten duten guztian baiezkoa ematea, sexuan ezik. Imajina al dezakezue zein nahaspila handia den hau dena. Ia-ia 15 urtez kontrajarriak eta aurrez aurreko “guda” batean kokaturik bizi izan direnek bat-batean berrelkartu beharra dute eta elkarren gogoko izan, aurreko urtetan nahastutako guzia konpondu gabe. Zergatik ikasketen porrota eta buru botatze kopuruak dira horren altuak adin honetan?

Ezkutuko curriculumaren zeregina ez da hemen bukatu. Lanean segituko du pertsonen gizatasuna hondatzen, (soldaduska, lan arloko sexismoa, esparru publikoko matxismo eta aurreiritziekin, soldata bereizketak, eskubide injustiziak genero bereizketetan, eta abar luzeegi bat hemen aipatzeko.)

Panorama hau ikusirik argi dago sexismoak ez duela zentzurik, kalte besterik ez diela egiten neskei eta mutileri, ez gaituela gizatiar izaten uzten. Gizakiak gara eta gehien betetzen gaituena, zoriontsuen egiten gaituena, eta pertsona bezala asebate eta errealizatzen gaituena da gizaki izatea %100ean, gure gizatasuna osotasunean mantentzea, eta sexismoak ez digu uzten, sexismoak gizatasuna husten digu, murrizten digu, hondatzen digu. Lan etekinek, diru etekinek, ospe etekinek ez gaituzte benetan betetzen, ez zoriontsu egiten, gehien batean beste gizaki bat zapaltzetik datozkigun etekinak direnean, zeren eta norbait zapaltzean bere gizatasunaren aurka ari gara eta gizaki gizatiarrak garenez gure giza-integritateak ez du hori onartzen. Norbaiten gizatasuna mintzen dugunean gurea mintzen ari gara eta hau ez gara pertsonok, ez gara honelakoak, honek ez digu inongo mesederik egiten.

Sexismoa etetea denon onurako izango da, zalantza izpirik gabe. Ez dugu gehiago itxoin behar. Ez dugu gizonezko berriaren eredu aurkitu behar sexismoa geldiarazteko, ez dugu gogoeta gehiagorik burutu behar nolakoak izan behar dugun gizonok jakiteko; badakigu nolakoak ez dugun izan behar.

VI.-GERORA BEGIRA

Ezkutuko curriculum horretan indar egin, intziditu beharra dago; hor aurkitzen dira gizon-emakumeen arteko harremanak gaiztotu eta hondatzen dituzten aurreiritziak, jarrerak, jokabideak eta baloreak, denok arbuatzen ditugunak, baina orokorrean denok nozitu

genituenak, era batera edo bestera. Sexismoa bukaraztea ez da emakumeen lana bakarrik, ez da emakumeen mesederako bakarrik izango, denon ardura da, denok izango gara eta irabazle, mesedea denontzat izango da, zalantzarik gabe. Emakumeak zein gizonok, barru-barruan ez gara ongi, pozik bizi rol hauetan, gehien maite ditugun pertsonak mintzera bultzatzen gaituzten rol hauetan; lana elkarrekin egin beharra dago. Gizonezkook zenbat eta azkarrago askatu rol horietatik bizkorrago askatuko dira emakumeak beraienetatik.

Gakoa ez datza hainbeste gizon eredu berriaren ezaugarriak zein maskulinitasun oinarritatik aterako ditugun deliberatzean; honela egingo bagenu akatsa errepikatzen arituko ginatke. Gizarte zapaltzaile honek gizonezkoengan sustatu ditu emakumezkoengan antzutu, debekatu, ezabatu dituen ezaugarriak, eta alderantziz, emakumezkoengan bultzatu ditu gizonezkoengan gaitzetsi dituenak.

Eredu hauek ez digute balio, ez dira gizatiarrak. Ezaugarriak ez ditugu bilatu behar genero bereizketan sortutako ereduengan. Pertsonak gara, emakumeak zein gizonezkoak, Ezaugarriek izan behar dute pertsonari, gizaki zeharo gizakoiari dagozkion ezaugarriak, guztiz gizatiarrak eta bi generoei egoki-egoki dagozkienak. Guztiz bateragarriak eta egokiak dira bi generoetan: sentiberak izatea, indartsuak (indarra berez ona da; txarra izan daiteke egiten den erabilpena, norbait zapaltzeko, kaltetzeko erabiltzen denean) maitekorrak, alaiak, elkarkoiak, jasankorrek, bizkorrek, xamurak, jakitunak, inizatiba-zaleak, ospetsuak, lagunkoiak, ausartak, bigunak (ez menpekoak ala sumituak, baizik neka daitezkeen eta atsedena merezi duten pertsonak) adimentsuak, burutsuak, kirolzaleak, etxe-zaleak, kale-zaleak, mendizaleak...

Errepikatzea nahi ez nukeen beste akats bat izango litzateke gizonezkoak arazoa direla pentsatzea, ez baita horrela; horrelakorik esatea izango litzateke arazoaren errora ez jotzea. Gizonezkoak ez dira arazoa baizik eta benetako arazoaren eroaleak, igorleak.

Arazoa da denok ukitzen gaituen sexismoa. Beraz, sexismoa ezabatzeko borrokan oso aintzat hartzekoa dugu ez bakarrik gizonezkoen aldetik emakumeekiko zampaketa, baizik eta baita gizarteak gizonezkoak baldintzatzen, erabiltzen (manipulatzen) eta zapaltzen dituen era emakumeak zanpa ditzaten. Eta denon ardura dugu berau desagerraraztea.

Aukera paregabea dugu aurrean gatazka honi amaiera egokia emateko. Hogeita hamabost mila urtez bizirik iraun badugu, zerbait ongi egin dugun seinalea da. Eta oraindik hobeto egin dezakegu, ziur.

J. ZUZENDU BEHARREKO AKATS BATZUK:

ZEIN ERAGILEK ERAGIN DUTE GIZONEZKOOK EMAKUMEEN OINARRIZKO ALDARRIKAPENAREKIN, ORO HAR, BAT EZ EGITEA.

J.1. FOKATZE EZ ZUZENA SEXISMOARI ANTZEMAN -ZAPALKETA BEZALA- ETA AURRE EGITEAN:

- a) Gizonezko askok pentsatu dugu sexismoa banakoari dagokion kontua dela, pertsona batzuen arazoa dela. Ahaztu egiten zaigu egiturazko fenomeno bat dela, hau da, bizi garen gizartearen azpiegituran guztiz errotua dagoela eta berarengan oinarritzen eta eraikitzen direla gizarte elementu guztiak: instituzioak, erakundeak, entitateak, elkarteak, politikak, egitarauak, pentsamoldeak eta sistemak: balore sistema, honen ondorioa den jarrera sistema, hezkuntza sistemak, ekonomia sistemak, kultur, erlijio sistemak...eta beraietan lan egin eta bizi diren gizakiak.

- b) Hau dela eta, ez dugu asmatu aldarrikapen feministak euskarritzen, ez ditugulako goiko testuinguru horretan ulertu, kokatu ere ez, eta konformatu gara aldarrikapen femenino batzuk babestearekin ala - nekezago- barneratzearekin, hots, gizarte beraren egitura eta boterea aldatzea eskatzen ez duten aldarrikapen errazak, erosoagoak, azalekoak. Hauek betez emakumeen aldarrikapen sakonak baretuko genituelako ustea genuen.
- c) Ez dugu argi ulertu sexismoak denok jotzen gaituela, gizarte sexistetan bizi garenetik, eta honek derrigorrez eskatzen duela antolakuntza sistematiko eta bateratua pertsona guztien aldetik, ez soilik sexismoaren zanpaketarik zuzenena eta krudelena pairatzen dutenen aldetik.

J.2. FOKATZE EZ ZUZENA, ONURAK EZ AIPATZEA ETA GALERAK, ALDIZ, BAI

J. 2.1 GIZONEZKOOK EMAKUMEEN ASKAPENAREKIKO EDO BERDINTASUNAREKIKO ZER DUGUN GALTZEKO AZPIMARRATU IZAN DA GEHIEN:

orain arte genituen “eskubide ” batzuk. Hauek galduko ote genituen beldur izan gara. Baina, argi eduki behar dugu ez direla benetako eskubide, baizik eta egoera desorekatu batek sortzen dituen pribilegio injustu batzuk. Eskubide eta pribilegioren arteko aldea ulertzea oso garrantzitsua da hemen. Adibide xume eta sinple batzuk:

- Emakumeei debekatzen zaizkien bizitzaren alor batzuetarako sarbide errazagoa dugu: publiko arloa, jendaurrea, botere esparruak, politika eta erabakien hartzeko alorra, agintea eta autoritatea, iherarkietako goiko lekuak arlo gehienetan...
- Emakumeei debekatzen zaizkien diru irabazkin eta abarreko mozkinak gure poltsikoetara joaten dira. Beren ahaleginak balio bera izan dezan gizonetzkoek baino gehiago ahalegindu beharra daukate; soldatei dagokienean gauza bera.
- Seme-alaben eta sendiko helduen zaintzaren eta hezkuntzaren pisuaren zatirik txikiena egokitu zaigu; gainerakoa beraiek estaltzen dute.
- Protagonismoa alor guztietan garatu dugu gizonetzkoek, gertaera eta egoera onuragarrietan, non gertatzen den guztia gizonengandik gizonengana eta gizonentzako den: politikan, ekonomian, kulturean, gizartekoan...askotan emakumeen lana eta ginahala estaliz eta beraientzat leku urria utziz, etc.

Zerrenda horretako – eta jarri ez diren- asko dira onura materialak, eta hauek galtzeko beldurrean arreta gehiegi jarri izan da. Honek erreakzioa ekarri du gizonen aldetik: ezintasuna eta ukapena onurok berdinki zatitzeko aukeraren aurrean. Ulertu behar dugu

Inori ez zaizkiola bere eskubideak ostuko; pribilegioak berdinki banatuko dira eta hau, argi eta garbi, logikoa da.

Oraindik, ulertu gabe gaude onura materialak ez direla onura pertsonalak baino garrantizkoagoak; azkenok behar-beharrezko ditugula gizonezkook gizaki eta pertsona gisa asetzeko. Defendatzen dugun sistema desorekatu horretan hau lortzerik ez dagoela ahazten zaigu. Benetan pertsona bezala beteko gaituena ez dira onura materialak baizik eta dauden eginbehar eta zeregin guztietan denok berdin parte hartzeak eta hortik sortzen diren pribilegioak berdinki partekatzeak. Honek bermatuko du gure biziaren kalitatea, ez abantaila materialek.

J.2.2-EZ DA ASKO HITZ EGIN GIZONEZKOOK ZER DUGUN IRABAZTEKO:

a) Sinpleki, eduki ditugun rol batzuk alboratzea ala galtzea, guretzat irabaztea izango da. Seguru aski, lehen genituen onura material horietako batzuk galdu egingo ditugu parekidetasun egoerarentz joko badugu. Hau honela da eta onartu beharra daukagu. Egoera ez zuzena egoera zuzen bihurtu beharra dago eta kito.

Bestetik, interesgarria da ohartzea beren hutsunea bestelako onura batzuk beteko dutela, gizatasun eta bizitza kalitate maila hobetoekin zerikusia izango dutenak. Orain arte, arlo askotan arduratsu eta lantsu ibili bagara; hemendik aurrera, erantzukizun hauetako batzuk alboratu edo partekatu ahal izatean, beste ardura batzuetan inplikatu ahal izango gara. Adibide soil batzuk:

- Axola eta maite ditugun pertsonekin – seme-alabekin, sendiko helduekin...- harreman eta kontaktu zuzenagoa eduki ahal izango dugu maila ezberdinetan: beraien bizitzetan murgilduagoak, konexio handiagoak, erlaxatuagoak.
- Hauen zaintzan eta hezkuntzan parte hartze zuzenagoa eduki ahal izango dugu. Hau berez abentura ederra da.
- Denbora gehiago eskaintzeko geure bizitzari, gure bizitza-kideei, gurasoei, hurbileko lagunei...eta harreman hauek barnean daramaten gizatasuna xurgatu. Denbora gutxiago estresatzera, nekatzera, urduritzera, lehiatzera eramaten gaituzten gure soldatadun lanei eskaintzeko.
- Arrazoi justuen aldeko auzo mailako lanean inplikatzen eta bertan harremanak (lantokian eskatzen zaigun harreman lehiatsuetatik ezberdin) egiteko aukera gehiago: enplegua denontzat, etxebizitza eta ikasketak denontzat, gaixo edo etorkinen arazoekin sentiberatasun gehiago, ingurugiroaren zaintza eta birziklatzearekin harreman gehiago, lokal mailako antolakuntzarekin ...

- Hirugarren adinekoen alde inplikatzeko denbora gehiago edukitzea zaintza zer den jakiten joan gaitezen, bere alde zaila eta onekin; osasun publiko duinaren aldeko ekimenetan lan egitea, gizarte eta ingurumenaren baliabideen kudeaketa humanizatzailea, gizarteratzailea, ekologikoaren aldeko lanean denbora gehiago...
- Harreman parekatuetan goza daitezkeen begirunea, estimua, berdintasuna, hurbiltasuna... dastatzen ikasten hasia eta honetarako denbora gehiago gordetzea.

Hau da, materialismoan edo lehia oinarritzen ez diren onurak izango genituzke irabazteko, gizatasunean oinarritzen direnak (zerbaitegatik gara eta gizakiak). Materialismo gutxiago eta afektibitate gehiago.

b) Eta baita ere, orain arte zegokigun rol ahalguztidun horietatik beraietatik askatzea, batzuetan lan egitera ia hiltzeraino eraman gaitzaketenak; gehiago erostera eta saltzera garamatzatena, azkarrago eta hobeago, bizkorrago, lehiakorrago, modernoago, eguneratuago, ospetsuago izatera garamatzatenak. Onuragarriak ez diren ardura batzuetatik libratu ahal izango ginateke, edo, gutxienez, arindu:

- Gertatzen den guztiaren erantzukizuna gure gain izatea: nazio mailako gatazkak, gizarte mailako gatazkak, injustizi eta hondamendiak...
- Gauza hauek guztiak ez dakigula konpontzen onartzeak eta beste pertsona batzuei horiei buruz pentsatzeko eta konpontzeko aukera ezberdin eta berriak emateak onura ekar diezaguke guztioi.
- Gure rol maskulino zentzugabeek ezarritako lan arriskutsu, zail edo zikin batzuk gehiago egin behar ez izatea, ez guk ez beste inork: torturatzailer, toreatzailer, militar, boxeolari, mertzenario... eta hain emaitza ikusgarriak ematen ez dituztenak baina urtero giza bizitza andana ezabatzen dituztenak: eraikuntza garraioa, meatzaritza... eta abar.

Gizonezkook eman behar dugun aldaketaren aurrean gauza hauek ezagutzeak ez ezagutzeak baino beldur gutxiago sortuko digula pentsatzen dugu eta adore emango digu sexismoaren ezabapenak behar duen erroetatiko antolakuntza bateratua begi-bistatik gal ez dezagun.

Itxaropenari eusten diot pentsatzen dudanean sexu-genero sistema zapaltzaileak **inori ez diola onik egiten** ulertzera iritsiko garela, nahiz eta bertatik gizonok etekin material ugari ateratzen dugun bertatik. Hau ulertzen dugunean, gizarte justuen aldeko lana oso aurreratua izango da.

K.- ASKAPEN POLITIKAK

GIZONEZKOON ASKAPENERAKO EKINTZAILE IZATEA LORTZEA

Ekintzaileak, formatzaileak.

Bai pertsonal mailan zein talde mailan lan asko egin dugu pribatu giroan eta estilo batean azken urteetan. Duela urte gutxi hasi gara gizarteari begira lan hau garatzen Euskal herriko erakunde batzuk lagunduta. Eman beharreko urratsa zen, jakin ahal izateko zein datorren jarraian: beharrezkoa dugu gizonezkoen askapena bideratuko duten ekintzaileak sortzea, gizonezkoen maskulinitasun sexista eraitsi eta aukera berri ez sexistak eraikitzen

laguntzeko, gure Herriko herri eta hiri guztietan. Lan hau egiteke dugu. Lehendabiziko urratsak ematen hasi gara; esku batez zenbatu gaitzakezu baina agertu egin gara- heziketa ez sexistarako formatzaileak- Hau da garrantzitsuena. Beraz aurreko hamarkadetako lan isila eta trinkoa balekoa izan dela uste dugu eta emaitzak ematen hasi dela.

Askapen politika bat izan litekeenaren zirriborroa badugu egun eta bada arrazoirik itxaropentsu izateko, ibil daitekeen bide zuzen horietako batean kokatu garela pentsatzeko, formazio ez sexista ematen ari den emaitzei begira. Gauza andana dugu hobetzeko, aurkitzeko, zuzentzeko baina eskuartean dugunarekin nahikoa da itzulezina izango den lan sendoa eta erabakigarria abiatzeko berdintasun alorrean. Ezinbesteko deritzogu formazio lan honetan kontzientzia hau garatu dugun gizonok buru belarri murgiltzea.

Gizon Sarea

Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu orain arte han-hemenka agertzen aritu diren bestelako "gizonen antolakuntzek" aurrera jarraitzea, nahiz eta denboraldi baterako izan: auto ezagutza, auto-euskarria, gogoetarako gizon taldeak, gizarte ekintzaileak...eta egoki oso izango litzateke ekintzaile hauei formazio ez sexista hau eskaini ahal izatea. Gerora, gizon formatzaile guztien eta beraien gizon talde guztien "Gizon Sare" bat antola genezake eta erakunde ofizial bihurtu, instituzioen laguntza sendoaz, bertatik hezkuntza sexista -eta sexismoa bera orokorrean – ezabatzeko. Hauek lirarteke esku artean ditugun hurrengo erronkak, besteak beste.

Ordea, erronka eder honetan gure abiadura moteltzen duen oztopo bat baino gehiago bada. Hona hemen aurkitu ditugun eragozpen batzuk gizarte mailan. Nagusienetakoak, gizona-geogun geugan zein emakumezkoengan, aurreiritziak ditugu. Aintzat hartu beharko ditugu gure lana oker ez dezaten eta eskatzen duten denbora eman irtenbide egokiak aurkitzen bidea egiten joan gaitezen. Aurreiritzi hauek jokabideak garatzera eramaten gaituzte eta irauten dute sentikizunez blai daudelako. Sentikizun hauek harresi baten porlanaren lana bera egiten dute: adreiluak (hots, aurreiritziak) elkarren artean tinko itsatsita eusten ditu eta aurreiritziak eta jokabide horiek indartzen eta errotzen dituzte, beraz, aintzat hartu eta ongi kudeatu ezean lana nekeza izango zaigu. Aurreiritzi batzuen adibide batzuk ikus ditzagun:

·**lehenik:** gizonzkoak dena daukagula eta, askapen beharrik ez dugula. Gizonzkoen ahotan esan nahi luke gizonok ongi gaudela gauden sistema honetan eta aldatu gabe jarraitu nahi dugula egoera jasanezin bihurtu arte: haizea alde dugu, zertarako aldatu?. Emakumeen ahotan esan nahi lezake: "gizonei ez zaiela aldatzea komeni eta haiengandik zerbait itxoin nahi badugu jai dinagu!"

·**bigarrenik:** beren roletan barruraino sartu gizonzkoak esan lezake sentimendurik gabetuak garela-eta ezin dugula minik hartu edo sentitu, ez deserosotasunik ala egonezinik, beraz, zertaz gara kexu? "Hau ez dut nik antolatu; beste batek konpon dezala, eta utzi baketan".

·**hirugarrenik:** beste batzuk "galga zapaltzen" dute sentitzeko gaitasunaren aurrean. Minik hartzen badugu edo holakorik sentitzen badugu, horrek batzuentzat esan nahi lezake ez garela benetako gizonzkoak, beraz, eta orduan ez dugula gizonzkoen askapenik behar, baizik eta beste zerbait: "gutxiago kexatu eta lan gehiago egin"... "Nik bakarrik baliatu egiten diat aukera ez diat nik sortu ala asmatu. Ez badiat nik egiten beste batek

egingo dik ”

·laugarrenik: zerbait benetan garrantzitsuan eta etekintsuan jardun beharra daukatela uste dute gizon batzuk. Nola sentitzen garen hirugarren mailako afera da. Beraz, sentiberatasuna berreskuratzeko kontu inozoei muzin egin eta “txorakeriak utzi eta segi lanean”. “Bestela, truke erakargarria eskain diezadatela nik dudana ordezkatzeko”.

·bostgarrenik: ” Heldu gabeko ezjakina ala *maritxu* bat soilik arduratzen dira minaz; beste zereginik ez duena bakarrik arduratuko litzateke ala emakumeen antzeko izan nahi luke”... Hala ulertzen baitute batzuk berdintasunaren auzia.

·seigarrenik: gure inguruko gainerako gizonezkoak gorrotatu –homofobia- eta elkarrekiko lehian aritu behar dugula bizitzeko heziak izan gara asko, hartaz, sobera dago gainerako gizonezkoen arduratzea ala haiek zaintzea; gainera “beraietaz arduratuko dituk euren emakumeak, ezta?”. “Beraiek zainduko dituk euren burua”. “Espabila daitezela neronek egin behar izan nuen lez”...

Zerrenda hau are luzeagoa egin liteke. Ia-ia rol bakoitzeko aurreiritzi bana aurki genezake. Gure askapen abiadura moteltzen duten eragozpen hauei aurre egiteko beharrezkoa dugu ikuspegi, kezka desberdinak jorratzeko prest dauden gizonezkoekin lehen bait lehen lanean hastea, gustura aurkitzen ez direnak eta aldatzeko beharra sumatu dutenak. Eta ahalik eta azkarren hauek bihur daitezten gizon berrien formatzaile, gure askapen mugimendua sare gisara zabal eta azkartzeko.

Egitura

Zailtasun hauek direla eta denok egin beharko genuke ahalegina gizonezkoak -auzo bakoitzean bana, behinik behin- bultzatzeko hausnar dezaten gizonezkoen askapenerako koordinatzaile ala ekintzaile, laguntzaile... izateari buruz. Koordinatzaile hauek auzoko gizonezkoekin lan egin lezake, baita koordinatzaileen artean ere, formatzaile ala ekintzaile berriak prestatzen aitzeko, etengabe. Gero herri ala hiriko koordinatzaileen eta formatzaileen arteko harremanak sendotu beharko genituzke eta lan ildo adostu batekiko batasuna bilatu – gizonezkoen askapen politika litekeena- sare hau eraikitzerakoan. Formatzaile bakoitzak bere testuinguru berezira aplikatu lezake askapen politika eta Sarea leku egokia liteke koordinatzaile eta formatzaile guztiak bildu eta elkarren artean bizipenak, lanerak, erronkak... elkarrekin aztertu, pentsatu eta hurrengoak diseinatzeko. Aurrera joan ahala, sareak hazten joan behar luke eta agian sare nagusitik azpi-sareak sortu litezke gizonezkoen kopurua ugariegi denean.

Jarraian gizonezkoen askapen balizko politika zer izan litekeen erakutsi nahi dizugu.

BALIZKO ASKAPEN POLITIKA LITEKEENAREN PUNTU NAGUSIAK

1-Gizonezkoen baldintzapen-zapalketa-gizatasunaren huste, gabetze prozedura bertan behera uztea betiko:

· gizonezkoei beren sentimenduekin kontaktuan egotea bermatzea txiki-txikitandik, haien kudeaketa egoki bat ahalbidetzea, eta behar duten hezkuntza emozional osoa, duina eta guztiz gizatiarra ematea.

2- Gizonezkoen benetako errealitateari buruzko informazio zuzena hedatzea gure gizarteetako erakunde guzti-guztietan.

.Pertsonen gogamenetik ezabatzea gizonok emakumeak zapaltzera eta gure artean elkar zanpatzera, mintzera, bereiztera garamatzaten eraikin kultural sexistak: aurreiritzi, ideia, juzku, ohitura, sineskeriak... eta hauek sortarazten dituzten sentimenduak, jarrerak eta jokabideak.

· Gizarte hau aldatu nahi badugu ezinbestekoa da pertsonak jakitea gizonezkook zer baldintzapen-zanpaketa zeharkatu behar izaten dugun, eta nola bere azpian lurperatua geratzen den gure benetako izaera. Jakinarazi beharra dago ere betetzera bultzatzen zaigun rol horiek emakumeak zapaltzen dituztela eta baita gure burua ere. Den-denok kaltetu egiten gaituela genero sexu zapalketa sistema honek. Eta ez diola inori on egiten.

3- Gizonezkoen zapalketa eta sexismoa beren hartan mantentzen laguntzen duten industriak eraldatzea (ikus 23. orrialdea):

Gizarte kapitalistentzat eta beren egituretarako antolatuta egon beharrean pertsona guztien ongi-izate sozialerako eta emozionalerako eginak egon daitezen bilatzea.

4-Gizonezko guztion batasuna bilatu, beren artean zein politika honen inguruan:

Garaia heldu da gizon guztion artean begirune osoa eta zintzotasun osoan oinarritutako jarrerak gara ditzagun eta edozein gaitzespen ala jokabide ez gizatiar baztertzeko, hauek zernahi direlarik:

-Homofobia, gay zapalketa, klasismoa, arrazakeria, adinkeria, erlijioak, ideologiakoak, naziotasunekoak...

4.1 Benetako adiskidetasunean oinarrituriko gizon-komunitateak, sareak sortu:

Bide honetan elkarren eskutik joan beharra izango dugu, beraz, lehia alboratu beharko da elkar lagundu eta euskarritu nahi bada. Elkar babestu eta erasorik elkarri ez bideratzea ezinbesteko izango da askapen bidea ongi eta zuzen egin nahi badugu. Gizonezkoei beren minak eta kalteak osatzeko gune segurua eskaintzeko ahalegina burutu beharra dago, bertan konta ahal dezaten sexismoak nola eragin dien bizitza, negar eta barre egin ahal

dezaten, isilpean ekarri dutena azalera dezaten. Erakundeetatik laguntza paregabea izango da baliabideei dagokienean, ongi-izate eta eskubide zibilen arlotik gara daitezkeen plangintzekin eta hauek aurrera bultzatzeko azpiegiturekin. Ikasi beharko dugu giza-harremanetan segurtasuna eraikitzen eta ez bitarteko materialetan, proiektu eder honek aurrera egin dezan arrakastaz.

4.2 Talde eta erakunde saretu hauetatik sustatzea edozein ekimen (formazioa, hedatzea, kontzientziatzea, kanpainak, eskolak, ezagutza lantegiak, ikerkuntza, ikastaroak, hitzaldiak, kongresuak...) inongo pertsonarik min gehiago jaso ez dezan edo eragin ez dezan.

Salatu behar ditugu gizonezkoak indarkeriara bultzatzen dituzten gizarte egituren baloreak eta eredu hegemonikoak eta bermatu gizon horientzat **artatze** eta **laguntza** indarkeriari utz diezaioten. Beharbada, gure espeziearen hasiera-hasierako garai haietan beharrezkoa izan zen norbaitek beste norbait hil behar izatea bizirik iraun ahal izateko, baina, egun, estrategia hori ez dugu ezinbesteko. Bada lekurik eta bitarteko nahikorik, eta hauek zuzen eta egoki antolatzeko nahikoa giza adimenik, espezie orok bizirik irauteko. Geure segurtasunerako besteak - ala gure burua- sakrifikatzea ez da beharrezkoa, dagoeneko. Elkarlana eta begirunea dagozkigu gizakioi, berez, jaiotzez, nahiz eta sistema kapitalistak besterik gogorarazi nahiko digun egunero. Ez da gehiagotan beharrezkoa, ez eta bidezkoa ez eta gizatiarra beste inor gehiagok kalterik pairatzea mundu honetara ekarri duen ezein ezaugarriengatik, duintasun osoz bizi ahal izateko.

4.3 Segurtatu sare eta talde hauetatik lanean ari garela puntu bakar baten inguruan bat etorririk eta onarturik: pertsona inoiz ez erasotzea ala kritikatzeko. Pertsona horrek eskaintzen duen politikari, ideari... kritikak bai, baina hauekin batera beti proposamen berri ala ideia berri edo eraikitzailea eskaintzea; gehitu beharra dago gogoeta egitea pertsona horrek horrela jokatzera zer eraman duen bilatzeko eta beharrezko litzatekeen gizarte aldaketa burutzeko.

5. Aliantzak bilatzea herrialde, estatu... ezberdinetako gizonen askapen lanekiko elkarlan elkarkoia eta osagarria ziurtatzeko; baita emakumezkoen askapen lanarekiko ere

Batera aurrera egin beharko dugun unea etorriko da. Elkarrengandik asko ikasteko aukera paregabea izango da, aberasgarria. Bizipen ahaztezina eta, agian, ezinbestekoa egungo gizarte egitura zapaltzaileak askatzaileak diren beste batzuen truke ordezkatzeko orduan: berdintasuna, zuzentza eta ongi izatea gizaki guztientzat bermatuta ekarriko dituztenak

ASKAPEN POLITIKAREKIKO LAN-ILDO OSAGARRIAK

“Mutikoak hezi itzazue eta ez duzue gizonak zigortu beharrik izango”.

Pitágoras.

Gaur egun, gatazkak eta auziak konpontzeko era berriak behar ditugu, alferrikako sufrimendu gehiagorik ekarriko ez dutenak, hain zuzen. Sistema klasista honek etekin handienak gatazka eta guda sistemak ezartzetik lortzen ditu, eta hauei bizkar ematea eta gure bideari ekitea da garrantzitsuena askapen politiketara hurbil gaitezen. Bide berri hauek zera eskatuko lukete hasiera-hasieratik:

A.-Sexismoa eta gazte jendearen zapalketa batera ezabatu

Gure askapenak are beharrezkoago zein egingarriago bihurtuko du umeena zein emakumezkoena, eurak baitira gure zapalkuntzaren biktima zuzenak eta ikusgarrienak. Hauek zampaketatik at jartzea gure askapenerako lanarekin batera doan dinamika da.

Geure zapalkuntza bera desagertzean sexismoa desagertzea nahitaezkoa da, eta haurrak eta gazteak honetatik salburik jarri beharrean gaude honen igorle bihurtzagun baino lehen. Edonorekiko itzarobide mugatu eta zapaltzaileek gizona kooko itzarobideak ere mugatzen dituzte. Jasan dugun minengatik ohikoa da errudunak bilatzea eta beraiei txanpon berarekin ordaindu nahi izatea. Gizateria egitura kaltegarri honetan kateatuta luze bizi izan da. Bada garaia hau errotik aldatzeko. Heziketarekin hastea era egokia da, oso. Frogatua dago haurrak adimentsuago eta osasuntsuago hazten direla balorapenekin, kritikekin edo gaitzespenekin baino.

Laburki esanik, gazteak nahi duten bizimodua begirunetik aukeratzeko libreak ez diren artean gizona kookoontzat eta emakumezkoak ere ez da askatasunik izango.

B.-Gay zapalkuntza ezabatu

Ezinbestez gizona kooko orok nahi duen bizimodua garatzeko eta nahi duen gizona kooko motakoa izateko eskubide osoa dauka. Hau funtsezkoa da gure zapalkuntza ezabatzeko. Hortaz, gizon batek gay izateagatik ihaulia eta zigortua izatea onartzen badugu ezin izango dugu inola arbuiatu eta ekidin beste gizona kooko pairatzen dugun kaltea, ez dugu askapena erdietsiko. Gay-lesbiar-transexual mugimenduak izugarritzko lana egin du gizona kooko elkarrengandik bereizten gaituzten harresiak hausteko eta eskatzen duenetakoa zera da: beren kemen zein lorpenengatik zor zaien begiruneaz eta eskerronez hantatuak izatea. Beraien artean eredu egokiak aurki ditzakegu.

Bestalde, pertsona orok inolako zapalketarik gabeko bizimodu duina izan dezan beharrezkoak diren gutxienezko baldintzak lortzeko lana elkarrekin antolatzea epe labur, ertain eta luzean aintzat hartu beharra daukagu, garen modukoak izanik, ditugun joerak ditugula, pentsatzen dugun eran pentsaturik. Ezin dugu honetatik at inor ere ez utzi.

C. Geure gizatasuna eta zapalkuntza ezagut daitezen ekin eta jardun.

Tinko eutsi behar diogu geure gizatasunari eta berari zor zaizkion duintasun eta begiruneari edozelako gizon mota garela ere, edozelako jatorri dugula ere, edozelako kultura ordezkaten dugula ere, edozelako klase sozio-ekonomikotako garela, edozein sinesmen edo erlijio, kolore... dugula ere.

Pentsatzeko joera dugu gizon denak, inguruan zituzten baliabideak eta aukerak aztertuta, ahalik eta hoberen egiten saiatu direla beti. Honek izan behar du arrazoi eta akuilu ditugun arazo , muga, akats eta keria oro zuzentzera jotzeko era eraikitzaile batez; ez dadila bere horretan mantentzeko aitzakiarik ala arrazoirik izan.

D. Norabide honetan lanean ari diren balizko erreferenteei, liderrei, erakundeei euskarria ematea, ez arbuioa.

Zapalkuntzaren aurkako borrokan diharduen edozein giza talde erraz bilakatzen da sistema zapaltzailearen jomuga. Honek bultzatuko ditu talde horretako kideak euren koordinatzaile ala aitzindariak kritikatuak izatera eta erasan ditzaten. Sistema zanpatzailea baliatuko da barneraturiko zapalkuntzaz, hots, pertsona bakoitzarengan ereiniko “polizia ” edo zanpatzaile horretaz taldearen mugimendua zapuzteko. Aitzindari edo koordinatzaileei kritika ala eraso egiteak ez du ezertan laguntzen ez baldin bazaie bere akatsetaz (denok egiten eta egingo ditugu, jakina) ohartzeko eta hauek zuzentzeko behar bezalako euskarria ematen. Gure ideiarik onenak, geure kemena, geure arreta eta zorrotasuna eskaintzeak bai laguntzen du lan honetan. Koordinatzaileak, ekintzaileak, aitzindariak... gu bezalako pertsonak dira; gu baino pixka bat gehiago ausartu dira egin behar zen lanari heltzen, ez ezer gehiago, ez ezer gutxiago. Aurreneko pausu zailak eman dituzte eta gure euskarri zein eskerrona merezi dituzte.

Ez genuke bere politika ala ideia aurkezten saiatzen ari den pertsona bera kritikatu behar, baizik eta iruzkinak ala kritika eraikitzaileak egin beharko genizkioke aurkeztu duen politika ala ideari berari; beti eskaini behar genuke irtenbide ala proposamen berria, osagarria, ala bateragarria. Gauza bera gertatu beharko luke erakundeen ala elkarten mailan.

M. MASKULINISMOA GUREAN; HISTORIA LABURBILDUA.

MASKULINISMOAREN GARAPENA EUSKAL HERRIAN. LABURPENA

Puntu labur batzuen bidez egin genezake Euskal Herrian pasaldi bat maskulinitasun mugimenduaren inguruan. Lehenik eta behin esan genezake ez dela oso agerikoa izan, batetik bestelako gizarte arazoek lehenetasuna eta protagonismo nagusia bahitu baitituzte gizarte eskenatokian, eta bestetik, talde txikietan eta bolondres erara isilkako lanean aritu delako maiz. Isiltasun honen zati bat agian etor zitekeen erreakzioz, gure herrian garatzen hasi zen “gay askapen mugimendua” jaso zitzakeen kritika eta erasoak ikusirik; hala ere hor aritu da eta egun bada arrasto ikusgarririk. Erakunde mailan ere agerikoa izaten hasi da azken urteetan.

Ea nola osatzen etorri izan den ideia bat egiteko balio dizun honako eskema motz honek. Gaur egun ez dira ari hemen deskribatzen diren talde mota guztiak mugimendu maskulinista gorabeheratsua izaten ari baita. Talde batzuk desagertzen dira, beste batzuk jaiotzen dira.

Datozen bi hauek dira ezarri ahal izan diren ideia gakoetako batzuk gizartean gai honekin aurrera egin ahal izateko garaian lagundu dutenak:

- 1.Maskulinismoa : ez da feminismoaren aurkakoa, nahiz eta askok horrela ikusi duten.
- 2.Elkarren osagarri izan daitezke, maiz aurkakoa aditu dugun arren.
- 3.Lehen aldiz aipatzen da zerbait gizonen eskubide urratuen alde XX mendearen hasieran (Ernest Belford Bax, teoriko sozialista, Marxen kidea). Gure herrian gauzatzen 1980-1990. hamarkadan hasten dela esan genezake, lehenago bisitatu bagintuen ere. Geroztik bide ezberdinak jorratu dira, oihartzun handirik sortu gabe.

4.Zer da:

Nola defini genezake, oro har eta labur-labur, maskulinitasuna, beste korrante batzuekin nahas ez dadin?

Gizonek, lagun giroan, osatu hausnarketa eta gogoetarako eremua, beren bizipenetan oinarrituak gizon izatearekin zerikusia duen orori buruz informazioa partekatzeko: gizon bezala jaiotzen eta haztea, gizon izatearen esanahia, ondorioak...

Gogoeta eta hausnarketok osatu dute ideologia gorputz bat eta honekiko fokapenak, mugimendu eta filosofia moral lerro ezberdinak sortu dira.

Orain arteko dena gehi hau guztia gauzatzeko politika, estrategia zein ekintza ezberdinen multzoa izango litzateke maskulinismoa, laburki esanda.

Emango dugu , segidan, gutxi-gora-beherako ikuspegi zabal bat, ideia bat egin dezazun.

5. Fokapen-ikuspegi anitzak

Anitzak diren arren, hiru adar nagusitan bil litezke, gutxi-asko:

1-Kontserbatzaileak:

Adar honetan era askotako gizon mugimendu sar genezake, haietako asko internet-en bidez komunikatuta. Euskal herrian ez dira ugariak talde hauek ez eta hain artean horren anitzak eta garatuak ere. Oro har, ustea dute emakume eta gizonen arteko bereizketak berezkoak direla, biologikoki eratorriak, eta beharrezkoak direla. Bien arteko desberdintasunei eutsi egin behar zaiela defendatzen dute. Egungo gizarte desoreka emakumeek sortua da beraiei dagokienarekin ez direlako konformatzen. Gizonak versus emakumeen haseraldiaren biktimak. Hegemoniko patriarkal, zuri, ertain ala goi klasekoak , heterosexualak eta homofobikoak izan ohi dira gehienak, nahiz eta salbuespenak izan.

2-Liberalak :

Ez dute emakumeen aurka lan egin ala borrokatu nahi, nonbait ulertu dutelako emakumeak egoera injustu baten jomuga direla, eta bi puntutan, gutxi asko, beraiekin bat datozelako:

- demokrazia eta berdintasun kontzeptuen zabalpen eta hedapenarekin, eta
- azalpen teorikoen bilduma egitean identitate ez zapaltzaile bat aurkitu beharrekin

gizonezkoen bizitzak eraldatzeko orduan, modu ez hain mingarri batez bizi ahal izateko - eguneroko praktikan oinarrituta-

2.1 Beraien artean batzuk “aldaketaren” alde daude benetan uste osoa dutelako egoera injustu honetatik ateratzeko on ekarriko diela bi generoei.

2.2 Beste batzuk “aldaketaren” alde daude baina norberarengandik hasteko ardura emakumeei utzita.

2.3 Beste batzuk “aldaketaren” alde daude bere inguruak bultzatu eta “ behartuta ”: neska-lagunak, emazteak, bizikideak, lagunak, lanak...

2.4 Azkenak “ aldaketaren” alde daude beren “aurka” egiten ez den bitartean.

Bi multzo hauen artean kokatuko genuke beste multzo bikoitz hau: **haserretutako gizonak.**

Gehien batean dibortziatu edo bereizturiko aita edo senar, mutil-lagun ohiak dira eta haien ustez legealdiaren eskutik babesgabetasun eta zuzengabekeria nabarmenak pairatzen dituzte.

- Batzuk edozein pribilegio maskulino galtzeari dei diezaioke “ lege urratzea ” eta emakumezkoekin oso haserre egon ohi dira, baita emakumeen alde lerrotzen diren gizonekin ere. Hauek kontserbatzaileen artean koka genitzake.

- Beste batzuk benetan pentsatzen dute injustiziaren biktimak direla, inor gorrotatu beharrik gabe eta salaketa eta zuzenbidearen aldarrikapen prozesu legislatibo luzeetan murgildurik dabilta. Ez dute zertan hegemonikoak izan, edo homofobikoak...

3-Fokapen eta ikuspegi eza:

Ezer jakin nahi ez dutenak. Auzia ez dagokie : “Hau ez zegokidak niri; hauek emakumeen kontuak dituk...”Politikoez konpon dezatela afera hau ”, “berdintasuna lortu dugu,zertarako egoera gehiago zaildu ala kezkatu”...

Adar ezberdin hauek guztiek sortarazi dituzte gizonezkoen antolakuntza era anitzak. Gainera bota diezaiozun bistadizoa:

6.GIZON MUGIMENDUAK ETA BEREN TALDEAK

Bost mota, oro har, aurkitu ditugu maskulinitasun mugimenduaren zehar, gutxi gora behera. Mugimenduok gorabeheratsuak dira , ez sistematikoak, beraz, batzuk, jada, ez daude indarrean, beste berri batzuk sortzen ari dira...:

0.Gizonezkoen eskubideak zaintzeko mugimendua eta bere taldeak.

- Hauen ustez gizonezkoen “lapurtzen zaizkien ” eskubideak zaindu eta berreskuratu. “**Fundamentalistak**” eta “**patriarkalak**” batzuk: “garai zaharretara itzuli behar

genuke...feminismoa etsaia eta deabrua da...Emakumeen errua da dena.”

Interneten bidez harremanduak gehien batean.

“**Antigualitaristak**”: “berdintasunarekin gizonezkook galdu egingo dugu eta dezente” ; beste batzuk baieztatzen dute emakumezkoek ere asko galduko dutela;

“**Neutralak**” “nik ez dut emakumeen aurka ezer, baina nire eskubide guzti-guztiak eta pribilegioak errespetatu daitezela...emakumeen egoera ez da nire errua ”.

1. “Gogoeta taldeak ”.Gai jakin batzuetan jakin mina asetzeko.

Beren barruan pizten joan zaizkien zalantza, kezka, galdera deserosoei erantzuteko beharrak bultzatzen ditu gizonezko batzuk elkartzera eta taldean gauza hauei buruzko gogoeta eta erantzuna bilatzera: zer esan nahi du gizon izateak, zein inplikazio du? homosexuala ote naiz?, nahikoa gizon banaiz?, sexualitateaz zer dakit eta dakite? Zer galdu dut?... . Jakin mina aseta taldea desegin egiten da, beraientzat bizipenak bere biziko garrantzia izan duelarik. Beraien arteko harremanari banaka ala indibidualki eusten diote luze horietako batzuk.

Beren inguruan, beren baitan baino zalantza gehiago aurkitzeak presio sozial, familiar gisa bizitzen dute beste batzuk eta hau aldetik kendu nahi izaten dute. Euren egonezinak ala lagun, andre, maitalaren batek bultzatuak. Egin gabeko etxeko lan zahar bat egin beharra zen, psikologoarengana, terapeutarengana ala aholkularitza maskulinorako bulegora jo ordez. Kezka ezberdinei erantzuten diete:

“**behartutakoak**” (ea honela bakean uzten nauten...),

“**dudatiak**”(hau al da behar dudana?),

“**begiluzeak**” (ea zer egosten den hemen...)

2. Mugimendu terapeutiko maskulinoa. Ongi izatea bilatzen dutenak: hausnarketa eta talde ala banakako terapia uztartzen dituztenak. Nekatuta daude betiko “gizona” izateaz. Beren buruarekin gustura ez eta aldaketaren bat bilatzen dute. Identitate krisialdiren bat pasata daude. Terapia era asko frogatzen dituzte. Ongi izatea lorturik taldea utzi egiten dute, gehiegi arduratu gabe emakumeen egoeraz.

“**Berekoiak**” batzuk, (nik neurea egin dut eta kito. Emakumeen arazoak eurenak dira.)

“**jakinnahi-zaleak**” bestetzuk (Hara! Hau zen eta!...Ez al dago gehiago?)

“**asteburuko gerlariak**” (beren aldaketak eta bizitza estiloa asteburuan soilik jasotzen eta garatzen dute, terapia mota andana frogatuz.).

Beste gutxi batzuentzako baliagarria izan da bizipena emakumeekiko justizia ezaz ohartzeko.

3. Gizarte Mugimendu Aldarrikatzailea: Gizonezkoen oharmena eta gizartearen zabaltzearen bidez gizartean aldaketak eragin nahi dituzten taldeak, batzuetan berdintasunaren alde, besteetan, gizonezkoen ekintza sexisten aurka, besteetan genero injustizien aurka ala elementu matxista ospetsuen aurka...

“**Ekintzaile zuzenak**” dei genitzake eta sexismoa agerian utzi nahi izaten dute. Gizona egiten dute egoera injustuaren errudun eta erantzule zuzena eta berau esnarazteko edozein ekintza burutzen dute. Batzuk badute barne gogoeta bide zati handi bat egin sexismoaren inguruan edo formakuntzarik; beste batzuk “bidean” hartzen dute. Batzuetan legislazioan aldaketak proposatzearen alde lan eta borroka egiten dute.

“radikalak”: Beste batzuk uste dute egoera aldatzeko formakuntzarik edo barne gogoeta prozesurik ez dela beharrezkoa eta bakarrik “inpaktu-kolpe” moduko ekintzen bidez lor daiteke gizonak ohartaraztea, beraien aurka joaz askotan. Gure herrian ez dira oso ezagunak edo ugariak azkenok.

4.a: Feminismoaren aldeko mugimendu maskulinoa:

“ Profeministak ala igualitarioak”. Gizartean egiturazko eraldaketa sortarazi nahi dute, ohiko eredu maskulinoarekin nazkatuta eta gizartearen injustiziaz oharturik. Feminismoa besarkatzen dute, oro har, eta berau eta emakumezkoen eskubideen urraketen aurka egiteko lanean eta ekimenetan zein programetan dihardute: emakumeen aurkako indarkeria ezabatzekoak, gizonezkoen indarkeria matxistaren aurka eta botere patriarkal iherarkikoa eraisteko programak, homosexualen eskubideen aldekoak, arrazakeriaren aurkakoak, legislazioan aldaketak proposatzearen aldekoak...erakundeetatik eta kaleetatik. Lan asko egiten dute antolakuntza sozialaren mailan eta beste korronte igualitario batzuei euskarria erakusten diete. Gurean ez oso dira ezagunak oraindik maila hauetan.

4.b: Mugimendu antisexista:

“Antisexistak”. feminismitik edan dute ere bai, eta baita mundu mailako gizonezkoen mugimendu humanistatik ere. Auto-kudeaketan oinarrituriko sexismoaren gizon talde deseraikitzaile eta terapeutikoetatik abiatuta, barne gogoeta prozesu sakon eta luze bat garatu dute eta ohartu dira beren egonezinen zein emakumeen buruhausteez eta egoera injustuen arrazoiek antzekotasun handiak dituztela, jaio, hazi eta hezten garen gizarte sexistan errotzen direla eta, beraz, egiturazko aldaketa batean murgildurik sexismoa eraisteko lanean buru belarri sartuta dabilta. Maskulinitasun tradizionala eraisteko programak, gizonezkoentzako “hezkuntza ez sexista”, gizonezkoen formatzaileak sortu eta hauentzako formakuntza eskaini, gizon taldeak antolatu eta Gizon Sareak koordinatu eta ugaltu. Gizon izateko sexismorik gabeko eredu berriak eskaini, pertsona berdintasun-zaleak aldarrikatzeko askapen politikak... proposatzen dituzte, emakumezkoen askapen politikak jarraituz, besteak beste.

Azken mugimendu hau indartsu dabil azken urteotan erakundeek hauetako batzuk ekonomikoki babestea beharrezkoa zela iritzi dioten unetik.

7.Gaiak:

Gizona izatearekin loturiko edozein gai har daiteke hausnar-gaiatzat taldeotan. Eta gai bakoitzak hainbat ikuspegi har dezake, maskulinista den guztiak ideia eta ikuspegi bera eduki behar ez duelarik.

-maskulinitasuna (generoa): definizioak (gizona izateko era), maskulinitasuna ala maskulinitasunak, ezaugarriak, motak: hegemonikoa, patriarkala, ez sexista, tradizionala, ilargitarra, mitiko poetikoa -Robert Bly eta emozional mundua-, dibinoa, gerlaria, asteburukoa edo terapeutikoa, biguna, “berria”...

-Gizontasuna (sexua eta generoa): zer den, zer esan nahi duen, zenbat dauden, nolakoa behar duen izan...

- Genero sistema eta bereizketa,
- sexismoa (andreen aurkako sexismoa-misoginia-, gizonen aurkako sexismoa-misandria, andreen aurkako homofobia-ginofobia- gizonen aurkako homofobia androfobia-intersexualen aurkakoa, transexualen aurkakoa)
- sentimenduen kudeaketa
- baldintzapean maskulinoa
- pribilegioak eta eskubideak
- indarkeria maskulinoa (andreen aurkakoa), gizonen aurkako indarkeria,
- maitasunaren kudeaketa generoaren arabera,
- eskubide legilastiboak,
- aitatasuna,
- gizonaen diskriminazioa etxeko eta zaintza esparruetan,

Gizonak eta:

- sexualitatea,
- osasuna,
- hezkuntza,
- lanbidea,
- kirola,
- Estetika
- guda, militar zerbitzuak, kartzela eta zigor-kodeak,
- drogak,
- identitateak: transexualitatea intersexualitatea, queer teoria, desmaskulinizazioa,
- askapena eta askapen politikak...
- Eta abar.

Xabier Odriozola Ezeiza,
Donostian, 2007eko ekainaren 15an
Euskal Herria

(Irakasle- antropologo- gizon taldeen zuzentzaile)

Txosten honek irekita egoten jarraituko du ekarpen eta hobekuntza berrien aurrean gizonezkoekin lanean dihardudan bitartean, hauen sexismoaz gehiago jakitean, dakigunari gehiago ekartzen diogun neurrian.

Zinez espero dut txosten honek balio dezala pertsona ugari beren bizitzaren ardura osoa hartzea galarazten dioten “ biktimizazio edota errua egoztea ” bezalako jokaerak bertan behera uzteko. Ez dezan aurkakorako balio.

Azkenik, begirune osoz, onena opa dizut bide interesgarri honetan. Eskerrik asko ni irakurtzeagatik..